# Goienkaria

2008ko urtarrilaren 11 > Egubakoitza > VIII. urtea > 315. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net



"Heriotzari garrantzia ematen diogu eta neurri batean beldurra ere badiogu"

**Juan Madariaga**
Historialari eta irakaslea > 07

**G2a** **Mikel Urdangarinekin berriketan** > 43-44

**BERGARA**
**Pasealeku berria egingo dute San Antonio eta Martoko artean** > 24

**ESKORIATZA**
**2007an jaiotako haur guztiengatik zuhaitz bana landatuko dute** > 34

**ARAMAIO**
**Aurrekontuen partidarik handiena Ogasun batzordeak eroan du** > 38

**GIPUZKOAKO AURREKONTUAK** > 2008KO KONTUAK

# Diputazioak 32 milioi euro gastatuko ditu Debagoienean

**PARTIDAK** Bide azpiegiturek eta gizarte politikek hartuko dute zati handiena: 11 eta 18 milioi, hurrenez hurren

**GELTOKIA** Arrasaten geltoki intermodala egiteko 600.000 euro aurrez ikusi dituzte; iaztik atzeratuta dator partida hori > 02-03

**ARANTZAZU** > PARKETXEA

## Parketxe berria Arantzazun

Natura ezagutzeko zentroa eta aterpetxea izango ditu parketxeak

Oñatiko Udalak, Frantziskotarren Komunitateak eta Aldundiak hitzarmena sinatu dute parketxea eraikitzeko. Aizkorri-Aratz parkeko sarbideetako bat da Arantzazu. Hala, parkera doazen bisitariei harrera egokia egiteko egingo dute parketxea. > 04

**POLITIKA** > PORTU-SARASOLA

## Lekuko batek dio atxiloketa ez zela bortitza izan

Igor Portu eta Mattin Sarasola lesakarren atxiloketa ez zela bortitza izan esan du herritar batek Bergarako auzitegian. Atxilokearen lekuko izan zen. Bortitza ez izateaz gain, atxiloketa kontrol batean izan ez zela ere gehitu du. Goizeko 10ak aldera Arrasateko Malvinas inguruan zegoen herritarra atxiloketaren lekuko izan zenean. > 05



**OÑATIKO PLAZAN** Abenduaren 25ean Oñatin duen familiarengana bazkaltzera etorri zen. XABIER URTZELAI

**KIROLA** > ELKARRIZKETA ARITZ ARANBURU SURFLARIARI

## "Harritu egin nintzen Oñatin surfa zenbat jarraitzen duten ikusita"

Aritz Aranburuk Oñatikoa du aita, eta han izan da Gabonetan > 40-41

**AZPIEGITURAK** > TRANBIA

## Garraio Saila eta ibarreko hiru alkate tranbiaz batzartuko dira

Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegitura Sailak interesa azaldu du tranbiak hasieran lotuko lituzkeen hiru herrietako –Aretxabaleta, Arrasate eta Bergara– udal ordezkariekin batzartzeko. Litekeena da hil honetan egitea batzar hori, nahiz eta ez dagoen datarik zehaztuta. Batzarrean batik bat landuko dute udal horiek jarritako alegazioek ze erantzun duten; hori da, behinik behin, Debagoieneko alkateen nahia. Arrasaten, esaterako, alegazio berria egin diote trazadurari: tranbia Santa Barbaratik beharrean Garibatik igarotzea. > 06

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-08
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-42
**Kultura** > 45
**Eskelak** > 46-47
**Sailkatuak** > 48
**Gazteak** > 50
**Komunikazioa** > 51
**Telebista-Irratia** > 52
**Non-zer** > 54-55



**ALDUNDIAREN AURREKONTUAK** > DEBAGOIENEAN 32 MILIOI EURO INBERTITUKO DIRA

# Azpiegiturek eta gizarte politikek jasoko dute diru gehien

**EAJ, EA, EB ETA ARALAR** Joan zen urteko azken Batzar Nagusietako osoko bilkuran onartu zen Gipuzkoako aurrekontua, EAJ, EA, EB eta Aralarren aldeko botoarekin

**786 MILIOI EURO** Aurtengo aurrekontua 786 milioi euro da; horietatik, 32 milioi Debagoienerako izango dira, azpiegitura eta gizarte politikak aurrera ateratzeko bereziki

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Gipuzkoako Batzar Nagusiek aurtengo aurrekontuak onartu dituzte dagoeneko. Abenduko hasierako egunetan. Diputazioa gidatzen duten EAJ eta EA taldeak akordio batera iritsi ziren horren gainean EB eta Aralarrekin.

Azken orduko ezusterik ez zen izan eta joan zen abenduaren 20ko osoko bilkuran, urteko azken osoko bilkuran, aurrera atera zen kontuen proiektua. Esandako lau alderdietako batzarkideen aldeko botoa eskuratu zuen egitasmoak. PSE eta PP, berriz, horren aurka azaldu ziren.

Guztira, 786 milioi aurreikusten ditu 2008ko Gipuzkoako aurrekontuak. Joan zen urtekoarekin alderatuta, kopurua zertxobait jaitsi da, ibilbide horretakoa 805 milioi euro izan zen-eta. Ohikoa den moduan, zati inportanteena, politika sozialetarako bideratuko da: %35,6, hain zuzen. Hala, 276.654 milioi euro izango ditu eskura Diputazioak hainbat proiektu aurrera ateratzeko.

Debagoienera 31.821.913,90 euro iritsiko dira aurten. Eta Bide Azpiegituretako eta Gizarte Politikako Departamentuek gastatuko dute diru gehien. Lehenak 11.855.015 eta bigarrenak 14.861.540,52 euro inbertituko dituzte ibarrean, hain zuzen ere.

**Bide Azpiegituretako Departamentuak 11.855.015 euro gastatuko ditu aurten Debagoienean Gizarte Politiketarako, berriz, 14.861.540,52 euro jarriko ditu**

**Arrasatera joango da aurrekontuen zati handi bat; 13 milioi baino gehiago inbertituko dira. Bergaran eta Oñatin ere partida garrantzitsuak izango dira**

#### DIRUA, HERRIRIK HERRI

Kopuru handiena eskuratuko duen udalerria, berriz, Arrasate izango da. Guztira, 13.378.791,60 euro jasoko ditu. Jarraian Bergara 9.200.533,96 eurorekin eta Oñati, 3.339.318,60 eurorekin daude. Antzuolara 2.284.654,82 iritsiko dira; Aretxabaletara 1.618.192,04; Eskoriatzara 1.413.486,78; Elgetara 298.675,58; eta, azkenik, Leintz Gatzagara 288.260,52 euro.

Bide Azpiegituretako Departamentuko erdia bailarako errepideen artapen obretarako erabiliko dute: 5.427.600 euro. Besteak beste, Bergarako Amillaga biribilgunerako erabiliko dute kopuru hori.

#### ARRASATEKO SAIHESBIDEA

Arrasate mendebaleko saihesbidearen eraikuntzarako, berriz, 4.837.415 euro eta saihesbide horren obren zuzendaritzarako beste 660.000 euro bideratuko ditu Gipuzkoako Diputazioak aurten. Hasiera baino ez da hori. Izan ere, azpiegitura hori eraikitzeko, 2009an 24.662.585 eta hurrengo urtean 12.000.000 euro gehiago ematea aurreikusita dago.

Jakina denez, esandako saihesbideak (GI-2620) 2.014 metro luze izango du eta Debagoiena eta Aramaioko bailara arteko komunikazioa hobetzen lagunduko du. Horretarako, Olandixo parean 860 metroko tunel bat eraiki beharko dute. Lanak udaberri aldean hastea aurreikusita dago. Mendebaleko saihesbidea eraikitzeko epea 27 hilabetekoa da.

Bestalde, Urretxu eta Bergara lotuko dituen errepideko eraikuntza proiektua egiteko 990.000 euro jarriko ditu Diputazioak. Antzuola udalerriko tarterako 660.000 eta Bergararako, berriz, gainontzeko 330.000 euro bideratuko ditu.

Beasain-Durango autobiaren zatietako bat da Urretxu eta Bergara artekoa. Tarte horrek 6,7 kilometroko luzera izango du eta 2010erako bukatzeko asmoa du Markel Olano jelkideak gidatzen duen gobernuak. Horretarako, 100 milioi euroko aurrekontua du aurreikusita.

#### NAGUSIEN EGOITZAK

Gizarte Politikako Departamentuari dagokionez, Debagoienean dauden hirugarren adineko egoitzek jasoko dute diru gehien. Hala, Bergarako Mizpirualde egoitza indarrean dagoen araudiari egokitzeko eta plaza berriak sortzeko, besteak beste, 1.382.935 euro erabiliko dira.

Arrasateko Iturbide egoitzak, berriz, 1.928.744 euro jasoko ditu, Oñatiko San Martinek 679.127, Eskoriatzako Nuestra Señora de las Mercedesek 367.153 eta Aretxabaletako Urats-Gainek 286.128 euro izango dituzte.

#### ANTZUOLAKO LANDA ZENTROA

Bestalde, Antzuolan landa eremuko balio askotariko zentroa eraikiko dute. Horretarako, 150.000 euroko partida aurreikusita dago aurrekontuetan. Gipuzkoan horrelako bi zentro egiteko asmoa du Diputazioak: bat Antzuolan eta bestea Tolosaldean eraikiko dute.

Horrez gain, Aretxabaletan Atzegik babestutako etxebizitzendako 270.640 euro bideratuko dira eta Eskoriatzan guneko udal zentroa finantzatzen laguntzeko 135.198 euro aurreikusten dira. Arrasaten, berriz, Aita Menni eguneko zentro psikogeriatrikorako 345.444 euro jarriko dituzte, Aita Menni egoitzarako 634.764 euro eta Aita Menni atsedenerako egoitzarako 69.752 euro.

Bergarak gizarte politikendako partida garrantzitsuak jasoko ditu. Uliazpi fundazioak Zubillagan duen zentroa berritzeko, esaterako, 760.152 euro emango ditu Diputazioak. Hango Gureak lantegi babestuetarako 1.066.256 euro eta Aspace guneko zentrorako 572.970 euro aurreikusi dira.

#### ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

Etxeko laguntza zerbitzuetan ere inbertsio handia egingo dute aurten. Bailara osoan 1.415.332 euro utziko dira. Antzuolan 86.840 euro; Aretxabaletan 182.151; Arrasaten 467.848; Bergaran 314.795; Elgetan 41.002; Eskoriatzan 53.111; eta Oñatin 269.585. Leintz Gatzagarako, azkenik, ez du gai horren gaineko partidarik aurreikusi Diputazioak.



**BERGARAKO MIZPIRUALDE EGOITZA** Ibarreko nagusien egoitzek partida garrantzitsuak jasoko



dituzte; Bergarako Mizpirualden, esaterako, 1.724.465 euro gastatuko dituzte. M.B.

## Ibarrerako aurreikusitako inbertsioak

| DEPARTAMENTUAK | KOPURUA EUROTAN |
|---|---|
| Diputatu Nagusia | 350.000 |
| Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentua | 131.000 |
| Lehendakaritzako eta Foru Administrazioko Saila | 342.160 |
| Bide Azpiegituretako Departamentua | 11.855.015 |
| Garapen Iraunkorreko Departamentua | 2.242.610 |
| Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Saila | 724.950 |
| Gizarte Politikako Departamentua | 14.861.541 |
| Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentua | 773.888 |
| Kultura eta Euskara Departamentua | 540.750 |
| **GUZTIRA** | **31.821.914** |

| AIPAGARRIENAK DEPARTAMENTUKA | KOPURUA EUROTAN |
|---|---|
| Bide Azpiegiturak | |
| Urretxu-Bergara autobideko eraikuntza proiektua | 990.000 |
| Errepideen artapen obrak | 5.427.600 |
| Arrasate mendebaldeko saihesbidea | 4.837.415 |
| Arrasateko saihesbidearen obren zuzendaritza | 600.000 |
| Garapen Iraunkorra | |
| Bidegorriak, Bergaran eta Antzuolan | 2.242.610 |
| Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa | |
| Debagoieneko geltoki intermodala | 600.000 |
| Gizarte politikak | |
| Aretxabaletako Urats-Gain egoitza | 286.128 |
| Aretxabaletako Atzegi: Babestutako etxebizitzak | 270.640 |
| Eskoriatzako Ntra. Sra. De las Mercedes egoitza | 367.153 |
| Eskoriatzako eguneko udal zentroa | 135.198 |
| Arrasateko Iturbide egoitza | 1.928.744 |
| Aita Menni eguneko zentro psikogeriatrikoa | 345.444 |
| Aita Menni egoitza | 634.764 |
| Oñatiko San Martin egoitza | 679.127 |
| Bergarako Mizpirualde egoitza | 1.724.465 |
| Uliazpi fundazioa | 760.152 |
| Bergarako Gureak lantegi babestuak | 1066.256 |
| Bergarako Aspace eguneko zentroa | 572.970 |
| Etxeko laguntza zerbitzuak | 1.415.332 |
| Landa Ingurunearen Garapena | |
| Baso tratamenduak | 121.811 |
| Deba Garaiko Abelazle Elkartea | 28.620 |
| Seinaleztapena | 104.985 |
| Gizarte ekipamenduak eta azpiegiturak hobetzea | 108.000 |
| Kirola eta Kanpo ekintzak | |
| Baketik fundazioa | 100.000 |
| Diputatu Nagusia | |
| Arantzazuren sustapenerako fundazioa | 350.000 |
| Lehendakaritza eta Foru Administrazioa | |
| Suhiltzaileak. Gastua eta inbertsioa | 342.152 |
| Kultura eta Euskara | |
| UNED | 540.750 |

ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Landa Ingurunearen Garapenerako Sailak 773.888,39 euro gastatuko ditu gurean. Erdia Oñatira bideratuko da: 358.305,48 euro, hain zuzen. Eraikinak egokitzeko, Aizkorri-Aratzeko parketxea eraikitzeko, larreak, seinaleztapena, baso tratamenduak, baso bideak mantentzeko eta Debagoieneko Mankomunitateko hiltegirako erabiliko da, besteak beste.

Leintz Gatzagan ere diru nahikotxo jasoko dute Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuaren eskutik: 73.349,20 euro. Baso tratamenduetan, larretan, baso bideen irekitzean eta seinaleztapenean joango da esandako udalerrira kopuru hori. Aretxabaletak, bestalde, 28.620 euro jasoko ditu, Debagoieneko Abelazle Elkartearendako.

**ANTZUOLA-BERGARA BIDEGORRIA**

Garapen Iraunkorreko Departamentuaren barruan, Bergara eta Antzuola arteko bidegorrirako dirua jarriko du aurten Diputazioak. Hala, 2.242.610 euroko partida garrantzitsua aurreikusi du aurrekontuen proiektuak. Antzuolako tarteak 675.000 euro hartuko ditu eta gainontzeko 1.567.610 euroak Bergararako izango dira.

Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuko partida Baketik fundaziorako da. Joan zen urtean moduan, 100.000 euro eskuratuko ditu. Diputatu Nagusitik, berriz, 350.000 euro irtengo dira, orain dela gutxi eratu den Arantzazuren sustapenerako fundaziorako.

**GELTOKI INTERMODALA**

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketan, Debagoieneko geltoki intermodalerako 600.000 euro bideratuko dira. Geltoki hori Arrasaten egongo da kokatua. Joan zen urtean kopuru bera jarri zuen Diputazioak, baina ez zen erabili. Proiektu horren gaineko informazio handirik ez dago. Euskotren eta Udalaren arteko hitzarmenik ez dago oraindik.

Lehendakaritzako eta Foru Administrazioko Departamentua suhiltzaileen gastu eta inbertsioez arduratuko da. Hain zuzen ere, 342.159,99 euro bideratuko ditu Zubillagara. Kultura eta Euskara Departamentuaren eskutik, azkenik, Bergarako UNEDek 540.750 euroko jasoko ditu aurten.

Orain arte aipatutako partidak 2008ko aurrekontuen egitasmoan azaltzen dira. Horiek guztiak proiektu zehatzetarako dira. Bada, horrez gain, Gipuzkoako eskualde guztietan eragiten duten proiektuak ere badaude. Horiek ez dira orain arte aipatutako kontuetan agertzen. Urtean zehar dauden helburu eta beharren arabera onartzen dira partida orokor horiek, baldin eta ez badago diru lerro berezirik proiektu konkretu batendako.

Garraio publikoa horren adibidea da. Joan zen urtean garraio publikoa hobetzeko plana onartu zen Batzar Nagusietan. Besteak beste, deskontu garrantzitsuak aurreikusten ditu autobusetan egiten den lehenengo bidaiatik. Plan hori Gipuzkoa osorako da eta neurri batzuk eskualde batzuetan martxan jarri dira dagoeneko, baina Debagoienera oraindik ez dira iritsi.

Garraio publikoaz gain, ur sareek eta hiri hondakinek ere aparteko inbertsioak izaten dituzte, beste arlo askoren artean. Urtea aurrera joan ahala ezagutuko dira partida horiek.





**TXARTELA** Herririk herriko zerbitzuetan urria ezkero erabil daiteke txartel bateratua. ARANTZAZU EZKIBEL

**GARRAIOA** > DEBAGOIENA-HIRIBURUAK LOTURA

# Diputazioak otsailera atzeratu du txartel bakarraren erabilera

## Alderdi Sozialistak eta Aralarrek gogor kritikatu dute hirugarren atzerapena

**L.Z./A.E.** > BERGARA

Gipuzkoako Foru Aldundiak atzeratu egin du berriro Debagoienaren eta hiriburuen arteko txartel bakarraren erabilera; oraingoan, otsailaren 1era atzeratu du. "Arazo teknikoak izan dira atzerapenaren arrazoia", esan dute Diputaziotik. Herririk herriko zerbitzuetan 2007ko urriaren 1ean ezarri zen zerbitzua, baina Donostia, Gasteiz eta Bilboko loturako zerbitzuetan oraindik ez da ezarri. Azken asmoa urtarrilerako tresneria guztia ezarrita egotea zen, baina ez da horrela gertatu. "Pesak txartela aurrez ateratzeko bidea ematen du; horregatik, bateratu egin behar dira sistema hori eta autobusean bertan txartela erosteko sistema", esan du Jose Mari Olaizolak, Diputazioko Komunikazio arduradunak.

### ALDERDIEN KEZKA

Horrek sozialisten eta Aralarren kritikak eragin ditu. "Txartel bakarrak, besteak beste, deskontuak ekartzen ditu eta beste behin baztertu egiten gaitutze Debagoieneko eta Debabarreneko herritarrak", esan du Pako Gartzia batzarkide sozialistak. Eta gehitu du: "Azalpenak ere exijitzen ditugu. Esan dute tresneria jartzea zaila dela, baina ez dugu ulertzen".

### AUTOBUSEN ORDUTEGI BERRIAK

Bestalde, eta aurreko asteetan egon diren zurrumurruen aurrean, Pesak adierazi du 2008an orain arteko zerbitzua eskainiko duela, ez duela linearik kenduko.

Hala ere, aldaketa batzuk egongo dira zerbitzu batzuetan. Arrasate-Oñati Bertakoak ibilbidean, bi zerbitzu gehiago jarriko dituzte: 07:00etan eta 08:00etan. Oñati-Arrasate Arinak ibilbideko 07:30eko eta 08:30eko zerbitzuak Bertakoak izango dira aurrerantzean. Gainera, Oñati-Arrasate-Oñati Arinak ibilbidea Bertakoak izatera pasako da.

Bergara-Oñati-Bergara ibilbideko zerbitzu guztiak Zubillagan geratuko dira.

Gasteiz-Arrasate ibilbidean, Gasteiztik 07:30ean ateratzen den zerbitzua Leintz Gatzagan geratuko da (jaiegunetan izan ezik). Bestalde, Leintz Gatzagan ere geratuko da egunero Bergara-Gasteiz ibilbideko 21:15eko zerbitzua. Azkenik, Eibar-Arrasate-Gasteiz ibilbideko 18:15eko zerbitzua Leintz Gatzagan geratuko da (jaiegunetan izan ezik), eta baita domeketako 20:45eko zerbitzua ere.

**PARKE NATURALA**

# Parketxea eraikiko dute Arantzazun

## Gipuzkoako Foru Aldundiak 1.000.000 euro jarriko ditu

**A.E.** > OÑATI

Oñatiko Udalak, Frantziskotarren Komunitateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Arantzazuko parketxea eraikitzeko lankidetza hitzarmena onartu zuten pasa den abenduaren 19an. Proiektuaren arabera, parketxea Gandiaga Topagunean jarriko dute. Bertan, erakusketa iraunkorra egongo da ikusgai; horrez gain, aterpetxea eta gela didaktikoak izango ditu parketxeak.

### GANDIAGA TOPAGUNEAN

Frantziskotarren Komunitateak Gandiaga Topaguneko mendebaldeko hegaleko 740 metro koadro utziko ditu; horietatik, 492 metro koadro natura ezagutzeko zentroa jartzeko izango dira eta beste 248 metro koadro, aterpetxerako.

Oñatiko Udalak bere gain hartu du espazio hori eraikitzeko egin beharreko proiektu teknikoa egiteko konpromisoa. Gainera, jendeari harrera egin eta proiektua dinamizatzeak eragindako gastuak Udalaren kontura izango dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, berriz, lanen zuzendaritza eta lanak gauzatzea finantzatuko du, eta 1.000.000 euro jarriko ditu, horrela banatuta: 250.000 euro 2007an jarri zituen eta gainerakoa 2008an eta 2009an jarriko du.

### PARKEKO SARBIDEA

Aizkorri-Aratz parkeko natura baliabideak antolatzeko planaren arabera, Arantzazu parkeko sarbideetako bat da. Hala, komenigarritzat jo da parkera doazenei harrera egiteko zentro bat eraikitzea.






SVMS
SERVIMASA
Sukaldeko altzariak eta osagarriak
Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA
103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO

**INGURUMENA** > HONDAKINAK

# Gipuzkoarrok sortzen dugun zaborra, erakusketa batean

Hondakinen gaineko erakusketa Bergara, Aretxabaleta, Oñati eta Arrasaten jarriko dute

Lau pertsonako familia batek sortzen duen zaborra irudikatzen du erakusketak

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

*Amesgaiztorik ez!* lelopean, Gipuzkoako hondakinen gaineko erakusketa ekarri du gurera Debagoieneko Mankomunitateak. Bergarako kultura etxean dago ikusgai erakusketa; eta han egongo da hilaren 19ra arte. Gero, Oñatin, Arrasaten eta Aretxabaletan ere jarriko dute.

Erakusketaren helburua guk sortzen dugun hondakinen gaineko hausnarketa egitea da. Horretarako, hondakinen aspektu ezberdinak lantzen dira, arlo orokorretatik konkretuenetaraino. Erakusketa bost eduki multzotan banatzen da eta produkzioaren kantitatea eta kalitatea, tratamendua eta kudeaketa eta hondakinen sorreraren eta kudeaketaren eboluzio kronologikoa kontuan hartzen dira.

**HONDAKINEN SAILKAPENA**

Hasteko, hondakinen gaineko gaur egungo egoera azaltzen da. Hondakinen sailkapena egiten da; gainera, kontsumo eta hondakinen sorreraren arteko erlazioa eta sortzen dituzten ingurumen, gizarte eta ekonomia arazoak azaltzen ditu. Lau pertsonako familia gipuzkoar batek etxean sortzen duen zaborra ere irudikatzen da; eta haiek kontsumoan eta hondakinen sorreran duten eragina erreproduzitzen da.

Etorkizuneko ikuspegia ere egiten da; bertan, herritarrak ideiak ematera gonbidatuta daude. Izan ere, denok gara arazoaren zati bat; eta, ere berean, baita konponbidearena ere.



**ERAKUSKETA** Bergarako kultura etxean hilaren 19ra arte egongo da hondakinen gaineko erakusketa. ARANTZAZU EZKIBEL

ERAKUSKETA DEBAGOIENEAN

**> BERGARA**
Urtarrilaren 7tik 19ra. Kultura etxean. Astelehenetik egubakoitzera 18:00etatik 21:00etara.

**> OÑATI**
Urtarrilaren 22tik otsailaren 3ra. Kultura etxean. Astelehenetik domekara 18:30etik 20:30era.

**> ARRASATE**
Otsailaren 5etik martxoaren 2ra. Kulturaten. Martitzenetik domekara 17:30etik 20:30era.

**> ARETXABALETA**
Martxoaren 4tik 16ra. Kultura etxean. Oraindik zehazteko dago ze ordutegi izango duen.

**POLITIKA**

## Lekuko bat dago Portu eta Sarasola auzian

Atxiloketa ikusi eta ez zela bortitza izan esan du Bergarako epaitegian

**M.B.** > ARRASATE

Igor Portu eta Mattin Sarasola lesakarren atxiloketa ez zela bortitza izan jakinarazi du herritar batek Bergarako auzitegian, hainbat mediok jaso dutenez. Bi gazteen atxiloketaren lekuko izan zen herritar hori. Hala, adierazpenok hankaz gora jartzen dute Espainiako Barne Ministerioaren bertsioa.

Herritarrak dioenez, hilaren 6ko 10:00ak aldera, Arrasateko Maldivas deritzoten auzoko banku batean eserita zegoen, txakurrarekin. Halako batean bi gazte ikusi zituen menditik jaisten eta jarraian, Guardia Zibilaren bost ibilgailu eta mendizaleengana hurbildu ziren.

**ATXILOKETA UNEA**

Motxilak miatu zituzten eta lekukoari identifikatzeko eta txakurra eusteko eskatu zioten. Ondoren, gazteen Volkswagen Kadi auto gris bat miatu zuten. Herritarraren arabera, zelofanean batutako pakete bat atera zuten. Bada, ez du esaterik izan auto edo motxilatik atera zuten.Barrukoa ikustean gazteei eskuburdinak jarri eta autoan sartu zituzten. Berari nortasun agiria itzuli eta alde egiteko agindu ziotela gehitu du.

Atxiloketa "ez zutela kontrol batean egin, ez zela bortitza izan eta gazteek ez zutela erresistentziarik jarri" jakinarazi du.

LASAGABASTER
LASAGABASTER
www.lasagabaster.com
Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



**IBILBIDEA** Arrasateko Udalak alegazio berria egin du: Santa Barbara zeharkatu beharrean, irudiko Garibatik pasatzea. I.S

**AZPIEGITURAK** > TRANBIA

# Tranbiaz batzartu nahi dute erakundeek laster

Garraio Azpiegitura Sailak Arrasateko, Bergarako eta Aretxabaletako alkateekin batzartzeko asmoa du hileon; alkateek ere hala eskatu dute

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Debagoieneko tranbiaren proiektua berbagai da berriz ere azkenaldian. Izan ere, Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegitura Sailak interesa azaldu du tranbiak hasieran lotuko lituzkeen herrietako –Arrasate, Bergara eta Aretxabaleta– udal ordezkariekin batzartzeko. Hala ere, oraingoz, ez dago batzar hori egiteko datarik; are gehiago, Aretxabaletako alkate Inaxio Garrorekin ez da inor harremanetan jarri. Arrasateko Udala bera jarri da Jaurlaritzarekin kontaktuan, eta urtarrilean barrena batzeko geratu dira; Bergarako Udalaren informazioa ere horraino heltzen da.

Batzar horietan, batik bat, udal horiek jarritako alegazioek ze erantzun duten landuko dute; horixe da, behinik behin, Debagoieneko alkateen nahia. Izan ere, Arrasateren kasuan, Ino Galparsoro alkateari alegazio jakin baten gainean erantzungo ziotela agindu zion Eusko Jaurlaritzak; hain zuzen, hasieran, ibilbidea Zarugalde kaletik zihoan; auzotarren alegazioen aurrean, Garraio Azpiegiturak Santa Barbara parkea zeharkatzea proposatu zuen, eta, horri erantzunez, Arrasateko Udalak "alternatiba arrazoizkoagoa" proposatu zuen, alegia, Garibai kaletik pasa zedila tranbia. "Jaurlaritzako teknikariak proposamen hori aztertzekotan geratu ziren", dio Galparsorok.

Bergaran, orain ia urtebete jarritako alegazioak ere erantzun gabe daude, Udalak eta herritarrek aurkeztutakoak; bada, erantzun hori jasotzea espero du Bergarako Udalak.

**PROIEKTUAREN ALDE**

Zerbaitetan, behintzat, bat datoz Debagoieneko Udalak eta Eusko Jaurlaritza: tranbiari bultzada eman nahi diotela denek.

Ino Galparsoro Arrasateko alkateak esan duenez, "Eusko Jaurlaritzak esan du ez zegoela eperik finkatuta, baina guk uste dugu denbora gehiegi pasatu dela, eta badela garaia lanak hasteko". Ildo berean, Agurne Barruso Bergarako alkateak esan duenez, "Bergarako Udal bezala, tranbiaren alde gaude, herrien arteko harremanetarako ona izango delako; baina udalekin eta herritarrekin adostu beharko du Eusko Jaurlaritzak zein den trazaturik egokiena".

Bere egunean, Eusko Jaurlaritzak epe zehatzik finkatu ez zuen arren –horren haritik esan du Mirari Arruabarrena Garraio Azpiegitura zuzendariak "ez dagoela atzerapenik"–, hasieran zabaldu zen lanak 2007an hasiko zirela, eta 2010. urterako bukatu.

**kontsumoa**



Gauez lan egiten dutenek atseden egokia hartu behar dute. GOIENKARIA

## Gauez lan egitea: diru gehiago irabazi bai, baina osasun makalagoa

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Gauez lan egiten dutenek %30 gehiago irabaz dezakete, baina osasunean eta eguneroko bizitzan ondorio larriak jasaten dituzte. Azken 30 urteetan, gaueko lan merkatuak gora egin du, gizarteak gaur egun dituen beharrak asetzeko asmoz. Baina gaueko lan egoera hori mantentzeko jende askok egin behar du lan gauetan, eta pertsona horiek osasun aldetik eta familia orekari dagokionez gorabeherak jasaten dituzte. Horregatik, diru gehiago irabazteak ez du beti konpentsatzen. Betidanik gauetan lan egiten duten langileek oporraldiekin lotutako errebindikazioak eskatu dituzte. Hauek dira gauez lan egiten dutenek jarraitu behar dituzten gomendio batzuk: lo egin eta atseden hartu, bi egunez jarraian lan egitea ekidin, lan kopurua era egokian banatzea eta kirola egitea nekea ekiditeko.



## Etxetik kanpoko jatorduetan 204 euro gastatzen dira

Hamarretik sei dira etxetik kanpora jaten dutenak. Arrazoia lanera itzultzeko denbora falta da. FUCIk (erabiltzaile eta kontsumitzaile independenteen federazioa) egindako ikerketen arabera, Estatuko biztanle bakoitzak batez beste 204 euro gastatzen ditu.



## Autoa erosteko gastua %2,2 igo da batez beste

Estatuan batez beste 21.390 euro gastatu dira auto berri bat erosten. Pasa den urtean baino %2,2 gehiago da hori. Diruaren balioa egonkor dagoen arren, autoen merkatua indarra galtzen ari da, batez ere norberarentzat egiten den auto erosketan.

GOBE
ETXE-ALDAKETAK
Etxe-aldaketa osoak
Altzariak eta materiala igotzeko karga-jasogailu alokairua gidariarekin.
Enpresa eta partikularrentzat
Tel.: 695 71 05 61
www.gorabera.com

## Arrasaten atxilotutako bi lesakarren aldeko manifestazioa egin zuten martitzenean

Joan den domekan Arrasaten atxilotutako bi lesakarren egoera salatzeko manifestazioa egin zuten martitzenean. Seber Altube plazan manifestua irakurri ondoren, herriko kaleak zeharkatu zituen manifestazioak, eta hainbat herritarrek hartu zuten parte bertan. Domekan atxilotu zituzten Igor Portu eta Mattin Salaburu, eta, haien egoera salatzeko, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deituta egin zuten manifestazioa Arrasaten. *Torturarekin amaitu behar dugu, aski da* leloa zeraman pankartaren atzean egin zuten manifestazioa herriko kaleetan zehar.



TXOMIN MADINA

**AUTOBIDEA** > 2008RAKO BUKATUTA

# AP-1 autobidea irekitzeko epeak beteko direla diote arduradunek

## Eskoriatzako lur-jausiak eragindako kalte ekonomikoak ez ditu Diputazioak ordainduko

## Aralarrek eskatu du Batzar Nagusietan lanak ikusteko bisitaldia egitea eta ardurak zehaztea

**MIREIA BIKUÑA** > DEBAGOIENA

Gipuzkoako Diputazioko Azpiegituretarako diputatu Eneko Goiak AP-1 autobidearen inguruko hainbat azalpen eman zituen, astelehenean egindako prentsaurrekoan; tartean, Eibar-Gasteiz autobidea irekitzeko emandako azken epea, 2008ko abenduan alegia, "bete egingo" dela esan zuen.

Eneko Goiaren hitzetan, "abenduaren 5ean Zarimutzeko tunelean gertatutako lur-jausiak ez du autobidea irekitzeko epea luzatuko". Hortaz, urte amaierarako, AP-1 autobideko azken zatiak zabalduko dituztela aurreratu zuen.

**LUR-JAUSIAREN GASTUAK**

Era berean, Eneko Goiak adierazi zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak ez dituela bere gain hartuko Zarimutz auzoan gertatutako lur-jausiak sortutako gastu ekonomikoak. "Abenduaren 5eko lur-jausia lanean diharduen UTE Ferrovial y Construcciones Adolfo Sobrino enpresaren hutsune baten ondorioz gertatu zen", azaldu zuen Azpiegituretarako diputatuak, "hasierako proiektuan aurreikusita zegoena baino erradio txikiagoko tunela egin zuteneta".

Lur-jausia izan baino egun batzuk lehenago, autobideko lanaren zuzendaritza duen Euroestudios enpresak tunelaren lanetan akatsak zeudela ikusi zuen. Hala, akats haiek konpontzeko lanak lur-jausia gertatu baino egun bat lehenago hasi ziren.

**ARALARREN ESKAERA**

Gai horren harira, Aralarko Batzar Nagusietako eledun Rebeka Uberak orain arte gertatutakoaren "ardurak zehaztu" behar direla jakinarazi du. Halaber, inplikatuta dauden guztiekin "interlokuzio eskasa" egon dela salatu du. Horregatik guztiagatik, bigarren aldiz, "obraren nondik norakoak zuzenean ikusteko" irteera eskatu du Aralarrek, "Udaleko, Bidegiko, Foru Aldundiko eta kaltetuen ordezkari banarekin".



**ZARIMUTZEKO TUNELA** Abenduaren 5ean eman zen lur-jausia. GOIENKARIA

MERKEALDI
honetan
prezio ñimiñoak
Boulevardean
el Boulevard
de Vitoria-Gasteiz
Urtarrilaren 7tik
otsailaren 29ra

**EKONOMIA**

# Euskadiko Kutxa %19,7 hasi da 2007an

## Guztira 185 milioi euroko irabazi dituzte eta 17 bulego ireki

**J.Z.** > BERGARA

2007. urtea oparoa izan da Euskadiko Kutxarentzat: 185 milioi euroko irabaziak izan ditu MCCko aurrezki kutxa nagusiak. 2006. urtean baino %19,7 gehiago hazi zen iaz. Zerga aurreko emaitzak honakoak izan dira: 208,9 milioi euroko irabaziak, 2006. urtean baino %18,7 handiagoak. Gainera, 17 sukurtsal zabaldu ditu amaitu berri den urtean.

**KREDITUEN ZENBATEKOA HAZI**

Emandako kredituen zenbatekoa 14.982 milioi euro izan da, iaz baino %16 handiagoa. Azken urteetan etxeko ekonomien hipoteka-maileguek eskari handia izan badute ere, 2007an hipoteka-maileguak %16 hazi dira. Aipatzekoa da Hedapen Sarearen bilakaera, hazkundeari %37ko ekarpena egin baitio.

Gainerako hazkundearen oinarri kreditu pertsonalak dira, %6ko hazkundearekin, eta baita enpresei emandako kredituak, maileguak, *leasing*-a eta merkataritza-kredituak ere, %15eko hazkundearekin. Euskadiko Kutxaren berankortasun ratioari dagokionez, osasuntsu dago, ratio hori %0,93 izan baita, eta eraginkortasun ratioa berriz, %38,14. Kudeatutako negozioaren bolumena, berriz, 30.877 milioi eurokoa izan da, 2006an baino %14,2 handiagoa.

**POLITIKA** > EAE-ANV

# Ilegalizazio arriskuaren harira, EAEk lanean jarraituko duela esan du

## Komunikabideetan indarra hartu du EAE ilegalizatu egingo dutela, baina alderdi horretako ordezkariek "normal" jarduten segituko dutela esan dute

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE

EAE-ANVko Arrasateko alkate Ino Galparsorok esan du bere alderdiko ordezkarien asmoa "normal lanean jarraitzea" dela; hori adierazi du egunotan sortu diren EAEren legez kanporatzeko aukeren harira. Hala, Alderdi Popularrak martitzenean eskatu zuen Espainiako Kongresuan EAE legez kanpo uztea. Galparsorok esan duenez, "karguak pertsonalak direnez, alderdia legez kanpo jarrita ere, ezin dizkigute kendu". Zalantzan jarri zuen, legez kanporatze prozesua hasten bada ere, martxoko hauteskundeetarako eginda egotea.

Alderdia legez kanpo uzteko hainbat bide egon daitezke. Hala, zentsura mozioa egon daiteke; kasu horretan, beste alderdi guztiak ados jarri eta EAE kanporatzea eska dezakete. Bestalde, Galparsorok berak esan zuenez, "funtziogabetzea kautelazko neurri bezala eskatuko dutela dirudi, lehen egin zuten moduan; horrela, EAE ezingo litzateke hauteskundeetara aurkeztu".

Martitzenean gertatu zena, hau da, alderdi batek Espainiako Kongresuan ilegalizazioa eskatzea, izango litzateke prozesua martxan jartzeko bide azkarrena; baina, horretarako, kongresuaren gehiengoak adostu beharko luke prozesua hastea, eta hala eskatu Espainiako Gobernuko presidente Jose Luis Rodriguez Zapaterori. Hala ere, denborak aurrera egin ahala, gero eta aukera gutxiago ditu bide horrek; izan ere, astelehenean emango da Espainiako Gorteak desegiteko lehen pausoa.

Beste aukera batzuk daude, baina: hala, Baltasar Garzon epaileak bere kabuz har dezake alderdiaren jarduera etetea, eta Auzitegi Gorenak ere has dezake prozesua, bere kabuz edo Espainiako Fiskaltzak hala eskatuta.

**NAZIO EKITALDIA, BIHAR**

Oraingoz, EAE-ANVk bere ohiko jarduerarekin dihardu. Hala, biharko, zapatua, nazio ekitaldia deitu du Iruñeko Anaitasuna kiroldegian, 17:30ean. Han, martxoko hauteskundeetarako aurkezteko asmoa berretsi eta ordurako prestatu duen eskaintza aurkeztuko du. Ekitaldira "abertzale eta ezkertiar guztiei" joateko dei egin die EAEk.

## gure artekoak

**FIAT 500** > Hilabete honetan bertan merkaturatu du FIAT etxeak 500 berria; hain zuzen ere, FIAT 500 autoa sortu zeneko 50. urteurrenean. Gainera, 2008. urteko auto izendatu dute FIAT 500.

**Carlos Ruiz** > Kanpanzar kotzesionariko arduraduna

# "Merkatuko segurtasun sistema guztiak ditu autoak"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

Aurkezpena iazko azaroaren 22an egin bazen ere, autoa aurtengo urtarrilean merkaturatu dute: "Fiat 500 lehenengo aldiz merkaturatu zeneko 50. urteurrena aprobetxatu dugu modelo berria aurkezteko", adierazi du Carlos Ruizek, Kanpanzar etxeko arduradunak.

Autoaren neurriari dagokionez, lehengoaren neurri bera du oraingoak. Diseinu aldetik, berriz, aldaketa txiki batzuk ditu, "baina lehengo Fiat 500 autoaren sena mantendu egiten da", azaldu du Ruizek. Kanpanzar etxeko arduradunaren ustetan, diseinua ikaragarri polita da: "Bai barrukoa eta baita kanpokoa ere".



Carlos Ruiz, Fiat 500 auto berriarekin. A.E.

**ALDAKETA HANDIENA, MOTORRA**

Aldaketa handiena motorrean izan du Fiat berriak; oraingo modeloak aurrealdean dauka motorra eta, era berean, aurreko gurpiletan dauka indarra. Abiadurari dagokionez, oraingo modelo berriak bost abiadurako kaxa dauka. Gainera, abiadura-kaxa automatikoa edo eskuzkoa izateko aukera eskaintzen du modelo berriak.

Motorraren aukerari dagokionez, hiru motor aukera daude: gasolinazko bi (1.2 69 ZP eta 1.4 100 ZP) eta dieselezko bakarra (1.3 75 ZP). Segurtasunari dagokionez, sistema osoa dauka: "Gaur egun merkatuan dauden segurtasun neurri guztiak ditu autoak: ABS sistema, SP eta sei airbag, besteak beste".

**FIAT 500**
**1.4 100 ZP**

| | |
|---|---|
| Prezioa | 14.500 euro |
| Luzera | 3,54 metro |
| Zabalera | 1,62 metro |
| Maletategia | 185 litro[1] |
| Kontsumoa | 5,1 litro /100 km[2] |
| Abiadura | 182 km/h[3] |
| Otik 100era | 12,9 seg. |
| CO2 isurketak | 119 g/km |

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

**INGURUNEA ERRESPETATU**

Bestalde, gaur egun ingurumena errespetatzeko beharrezkoak diren neurriak hartu ditu Fiat etxeak. Fiat 500 modelo berriak $CO_2$ emisioak murriztu ditu.

Azkenik, etxeko bigarren auto bezala aurreikusten da Fiat 500 modelo berria; gainera, gazteei zuzendutako autoa da.

## etxeko leihotik



**Aitziber Aranburuzabala** > Goienako Kultura arduraduna

# Mekanika kontuetan ideia zipitzik ez!

Aurreko baten, gradu gutxi egiten zuen gau batean, autoan nindoala, izotz garaian gaudela ohartu nintzen. Orduan, burura etorri zitzaidan, aste batzuk zirela, erredakzioan lankide batek egin zuen galdera: "Autoari zelako ura botatzen diozue? Destilatua?". Idazten nenbilen erreportajea lehenbailehen bukatu guran, ez nion erantzun, baina besteek erantzuten zutena entzun nahi nuen, nik neuk ez neukan-eta erantzun argirik.

Entzuten nuenaren arabera, menpetasun handia dugun autoaz ezer gutxi dakigula konturatzeak arduratu egin ninduen. Nik behintzat ezer ez, eta txarrena da garrantzirik ematen ez diodala; ondorioz, behar gutxiago dudan beste gauza batzuetarako jakin-min handiagoa dut.

**"Menpetasun handia dugun autoaz ezer ere ez jakiteak arduratzen nau"**

Igartzen da bai autoa tailerrera eramateko dirua dugun gizarte batean bizi naizela! Arrazoiarekin esaten da goseak jakin-mina pizten duela. Autoarena adibide soil bat besterik ez da, egunero ditugu-eta antzerako beste adibide praktiko asko.

Txartela gutxiago erabili eta eskuak gehiago erabiltzearen alde egin nahiko nuke!

**> Zuk zeuk egin!**
**Madrilen nork bere autoa konpontzeko tailerra zabaldu dute. Euro gutxigatik, konponketa-gela alokatu eta teknikariak lagunduta egiten duzu lana. Gurean etorkizunik izango luke?**

**> Beherapenak** **askoren poltsikoaren oxigenoa direla irakurri nuen aurreko batean. Oxigenoa baino gehiago beharko dugu, baina, urte berriak ekarri duen prezioen igoerari aurre egiteko!**

## begi-bistan



**Gabonetako hondarrak (Oñati) 2008/01/07**

**Argazkia:** Mireia Bikuña.
**Testua:** Mireia Bikuña.

Errege eguneko biharamunean ateratako argazkian ikusten da papera eta beira jasotzeko edukiontziak gainezka zeudela. Izan ere, opariekin normalean baino gehiago betetzen dira.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera:
goienkaria@goiena.com

## izen propioak



**Luis Laskurain**
MARGOLARIA

Otsailean Manhattaneko Ezair galerian erakusketa egin aurretik, Bergarako margolariak Oñatin zabaldu du erakusketa. Guztira, 30 olio lan jarri ditu ikusgai kultura etxeko erakusketa gelan. Laskurainen erakusketa zabaldik egongo da urtarrilaren 20ra arte.



**Txema Gisasola**
EUSKALITEKO PRES.

MCCko Etxeko Arloaren presidenteorde eta Fagor Etxetresna Elektrikoen saileko zuzendari Txema Gisasola izango da Euskalit Fundazioko presidente berria.

Euskaliteko patronatuaren lehendakaritza hiru urtean behin berritzen da.



**Luis Duran**
KOMIKIGILEA

Oñatiko komikigileak argitaratu berri duen *Aljebra* komikia sinatzen egon zen urtarrilaren 3an Oñatiko Ibarrondo liburu dendan. Duranek Ultzegin editorialarekin argitaratu du euskarazko komikia; eta itzulpen lanak Antxon Ugarte oñatiarrak egin ditu.

Juan Madariaga historialari eta irakasle oñatiarrak saiakera berria kaleratu berri du: *Historia social de la muerte en Euskal Herria*. Lana gaztelaniaz idatzita dago eta heriotzaren kultura aztertzen du, XVII. eta XIX. mende artean. Gai horren gaineko ikerketa ugari egin ditu Nafarroako Unibertsitate Publikoko eta Bergarako UNEDeko irakasleak.

**Juan Madariaga** > Historialaria eta irakaslea

# "Heriotzari garrantzia ematen diogu eta neurri batean beldurra ere badiogu"

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

**Lan berria argitaratu du Juan Madariagak. XVII. eta XIX. mende artean heriotzaren gainean Euskal Herrian zeuden ohiturak eta errituak ikertu ditu. Ikuspuntu historikoaz gain, ekonomikoa eta soziala ere landu ditu saiakeran.**



Juan Madariaga historialari eta irakaslea, saiakera berria esku artean duela.

ARANTZAZU EZKIBEL.

**Zertan datza orain kaleratu duzun *Historia social de la muerte en Euskal Herria*?**

Ikerketa bat da, bizidunek heriotzari zer-nolako garrantzia ematen dioten aztertzen duena. Ehunka ikerketa antropologiko eta etnografiko daude horren gainean. Bada, historikoki oso ikerketa gutxi daude. Helburua zen ikuspuntu ekonomikotik eta sozialetik lantzea heriotza.

**Ez da lehenengo aldia heriotza aztertzen duzuna. Oñatiko ohiturak ere landu izan dituzu...**

Hala da. Doktoretza-tesia egiteko Oñatiko bailara aukera nuen eredu gisa. Oso herri paradigmatikoa da Euskal Herrian. Posible da eskala txikian bailara hori aztertzea eta emaitzak esparru zabalerako izatea.

**Ezberdintasunik sumatu duzu oñatiarren eta euskaldunen artean?**

Euskal Herrian bi mundu diferente daude kulturalki: iparra eta hegoa. Gasteizen, Arabako Lautadan eta Lizarraldean egongo litzateke muga. Iparraldean lotura estua dago ehorzketa eta etxe artean, baina hegoaldean lotura hori ez da horren argi ikusten. Oñati ipar kultura horretan sartuta dago, baita Debagoiena ere. Izen batzuk baino ez dira aldatzen bailarako herrietan.

**XVII. eta XIX. mendeak aztertu dituzu. Zergatik?**

Eredu kulturalak normalean oso poliki aldatzen dira. Beraz, epe luzea hartzea interesatzen zitzaidan, aldaketak ikusi ahal izateko. XVII. eta XVIII. mendeetan eredu barroko eta kolektiboa nagusitzen zen. Azken mende horren bukaeran aldatzen hasi zen hori eta XIX. mendean zeharo aldatu zen eredua. Pertsonal, indibidual, pragmatiko eta burgesago bilakatu zen.

**Asko aldatu da ordutik hona heriotzaren kultura?**

Azken 20 urteetan sekulako aldaketa gertatu da gurean. Goitik behera aldatu da heriotzaren kultura. Batetik, hildakoak etxetik irteten dira. Lehen, dena egiten zen etxe inguruan. Egun, ospitalean hiltzen gara eta zuzenean tanatoriora eramaten da gorpua, etxetik pasa barik. Bestetik, herri errituak desagertu dira. Azkenik, azken 20 urteetan, gorpua lurperatzetik erretzera pasa da. Horrek esan gura du irizpide erlijiosoak ahuldu egin direla, Elizak ez dueta ondo ikusten erretzea. Mutur batetik bestera pasa gara.

**Ikuspuntu ekonomikoa landu duzu lanean...**

Heriotza beti izan da oso garestia. Lehen, gaur egun baino garestiagoa. Etxe batean hildako bat egotean, familia hori gastatzera presionatua zegoen. Elizkizunetan, ofrendetan, ondra bazkarietan diru asko joaten zen; azken horiek luxuzkoak izaten ziren eta askotan 300 pertsonatik gora biltzen ziren. Euskal Herriko Eliza nahikoa txiroa zen, eta horrela dirua ateratzen zuen. Gastua zenbat eta handiagoa izan, orduan eta hobeto Elizarendako.

OÑATI EREDU

**"Oñatiko bailara hartu nuen eredu heriotzaren kultura aztertzeko; oso paradigmatikoa da"**

AUZIAK

**"Lehen, parrokia eta komentu artean auziak egoten ziren; merkeagoak ziren azken horietan elizkizunak"**

ALDAKETA

**"Azken 20 urteetan sekulako aldaketa gertatu da, goitik behera aldatu da heriotzaren kultura"**

**Elizaren barruan interes kontrajarriak zeudela ondorioztatu duzu...**

Bai, hala da. Komentu eta parrokien artean auziak egoten ziren. Komentuetan elizkizunak merkeagoak izaten ziren, eta, beraz, jende asko saiatzen zen horiek komentu batean egiten, eliztarra bazen ere. Horrek parrokiei galerak ekartzen zizkien eta auziak eragiten zituen.

**Horren harira, Debagoienean badago kasu aipagarriren bat?**

Bai. Kasu esanguratsuena Oñatikoa da gurean. Bidaurreta komentua eta San Migel parrokia arteko auziak XVI. mendean hasi eta XVIII. mendera arte iraun zuen. Akordio baten bidez konpontzen baziren ere, handik gutxira eztabaidan hasten ziren berriro. Interes handiko gaiak ziren eta merezi zuen auzietan hastea, etekinak handiak zirenta. Ibarrean izan dira hainbat auzi puntual, eta Oñatikoa luzeena eta biziena izan da.

**Emakumearen papera ere aztertu duzu. Zer ondorioztatu duzu?**

Paper nagusia duela Euskal Herrian. Ondra ofizialez elizgizonak arduratzen ziren; hortaz, emakumeak ez zuen zeresanik. Baina herri errituetan emakumeak garrantzi handia zuen. Etxean emakumerik ez bazegoen, Elizak bat bidaltzen zuen.

**Amaitzeko, gaur egun heriotzari garrantzi handiegia ematen diogula uste al duzu?**

Beti eman izan zaio garrantzia heriotzari. Kultura tradizionalean naturaltasunez onartzen zen, saihestezina zen-eta. Gaur egun heriotza ezkutatu egiten da, ez da politikoki zuzena. Horrek esan gura du garrantzia ematen diogula eta neurri batean beldurra ere badiogula. Orain ahazten saiatzen gara, edozein unetan irits daitekeela jakin badakigu ere. Hori ez da ona edo txarra. Ez da epaiketa moral bat egin behar horrekin, egiaztapen bat baino ez da.



zabalik

Manu Arregi

# Citizen Kane

Hamasei bat urte izango nituen *Ciudadano Kane* pelikula telebistan ikusi nuenean. Telebista kate gutxiago izan arren, gaur egun baino errazagoa zen kalitatezko film klasiko batekin topo egitea. Harrituta utzi ninduen pelikulak. Orson Wellsek magnate editorial baten bizitza kontatzen du film honetan, William Hearst pertsonaia errealaren bizian oinarrituta, antza denez. *Inquier* egunkariaren zuzendari bezala hasten da Kane jauna oso asmo onekin, baina korrupzio eta manipulazio okerrenetan erortzen da laster. "Eskerrak gaur egun horrelakorik ez dagoela", pentsatuko nuen nik. Inuxente.

Onartuta dugu komunikabide bakoitzak gauzak bere "estilora" kontatzen dituela. Orain dela aste batzuk taberna batean egunkari bat hartu eta Carme Chaconi kritika zorrotz bat irakurri nuen. "Iepa! Ez dut ba *El País* hartu?", galdetu nion nire buruari. "Ez da posible. *El País* PSOE kritikatzen!". Orri batzuk aurrerago ulertu nuen zergatia. Futbolaren gerra zela eta, Prisa taldearen "abixu" bat zen. "Zerbait" egin gure alde, bestela egurra daukazue. Non geratzen da kazetarien etika? Hemen ez delako inor libratzen. Edozein komunikabide hartu eta beti daude "batzuk" beti asmatzen dutenak –ze zortea–, beste guztiak hankasartzetik hanka-sartzera dabiltzan bitartean, gixajoak.

> **"Garbi dago behar bezala informatuta egoteko iturri bat baino gehiago izan behar dugula"**
>
> **"Gazteagoa nintzenean prentsa librea dela uste nuen. Garbi dago ezetz"**

Garbi dago behar bezala informatuta egoteko iturri bat baino gehiago izan behar dugula. Eta Tierno Galvanen aholkua jarraitu behar dela. Oiloak edaten duten bezala irakurri behar dela zioen. Noizean behin geldialditxo bat eginez, tragoari pasatzen uzteko.

Gazteagoa nintzenean prentsa librea posible zela uste nuen. Garbi dago ezetz, botere ekonomiko eta politikoek ez baitute uzten. Gauzak horrela, ez zen gaizki egongo komunikabideek tele-esatari baten agur esateko era moldatu honekin amaiera ematea beti: "Horrela ziren gauzak eta horrela manipulatu dizkizuegu".

Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak), Aitziber Aranburuzabala (G2a), Xabi Urtzelai (Kirola), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritxu Barruso, Jasone Zabala, Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldegi **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Fausto Berazadi **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza — Gipuzkoako Foru Aldundia — Arrasateko Udala — Bergarako Udala — Oñatiko Udala

Aretxabaletako Udala — Eskoriatzako Udala — Antzuolako Udala — Aramaioko Udala — Elgetako Udala — Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

herritarrak galdezka

## HAURRENDAKO JOLASPARKEKO BEROGAILUA

**Bergarako irakurle batek deitu du eta honako galdera egin digu: Gabonetako jolasparkean berogailua jartzekoak ziren, baina hiru egunetatik bakarrean besterik ez da egon. Zer dela eta?**

Udaleko Kultura Zerbitzuan aurreratu dutenez, arazo teknikoak egon dira, eta, hori dela eta, Gabonetako jolasparkeak iraun duen hiru egunetatik azkenean baino ez da egon berogailua. Hori horrela izanik, Udaleko arduradunek barkamenak eskatu nahi dizkiete herritarrei sortutako eragozpenengatik.

## PIRRITX ETA PORROTX LASTER BERGARAN

**Irakurle batek hauxe esan digu: Entzun dut Pirritx eta Porrotx pailazoak laster Bergaran izango direla. Hori horrela den jakin nahiko nuke.**

Udaleko Kultura Zerbitzuan galdetu dugu eta han esan digute baietz, Pirritx eta Porrotx pailazo ezagunak Bergaran izango direla otsailaren 2an, Inauterizapatuan, hain justu ere.

Euskal Herriko pailazorik maitatuenek bi emanaldi egingo dituzte: bata 16:30ean eta bestea 18:30ean, biak ala biak Udal Pilotalekuan.

Kultura Zerbitzuan gehitu dutenez, sarrerak jarriko dituzte salgai urtarrilaren 22an, 23an eta 24an, Bergarako Udal Pilotalekuko leihatilan, 17:00-20:30 ordutegian. Pertsona bakoitzak gehienez sei sarrera eskuratu ahal izango ditu. Sarrera bakoitzaren prezioa 4 euro izango da.

Horrekin batera Kultura Zerbitzutik azpimarratu dute sarrera guztiak aurrez salduz gero egunean bertan ez direla leihatilan salduko.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

## TELEFONO ZENBAKI ETA ORDUTEGI ALDAKETA

**Arrasateko irakurle batek hauxe galdetu digu: Aurrerantzean Biztanleen Arreta Zerbitzura eguerdian ere joan ahal izango gara?**

Bada, bai. Urte berriarekin batera ordutegi berria estreinatu du BAZek. Hauxe da ordutegia: astelehenetik egubakoitzera, 08:30-19:00 –etenik gabeko ordutegia, hortaz– eta zapatuetan, 09:30-13:30.

Bestelako aldaketak ere izan dira Arrasateko udal zerbitzuetan. Hain justu, Garibai etxeko telefono zenbakiak aldatu egin dituzte. Zenbaki berriak hauek dira: Gazteentzako Informazio Bulegoa, 943 25 20 65; Sexologia Zerbitzua, 943 25 20 66 eta faxa, 943 25 20 55; eta Udaleko telefonogunea, 943 25 20.

marrazkiz

Alex Ugalde




blog

## Zeure errua

Elena Laka
www.goiena.net/blogak/elena

Ya le dije: no me provoques, que si te pego y te mato, y voy a la cárcel, será por tu culpa".

Jaietako barealdiaren ondoren, Errege-biharamona, epaitegian guardiako asistentziak egiten, eskua ukondorainoko lokatzetan sartzea bezala izan zen. Goizean emakume bati esanda entzundako esaldi hori, burura etorri zitzaidan gaueko berrietan Igor Porturena entzun nuenean.

## Jipoi alaia eta tsantsa

Markos Zapiain
www.eibar.org/blogak/zapiain

Boladan dago aspaldion harritu eta eskandalizatu plantak egitea gaurko nerabeen jipoiak direla eta. Hori kopeta gurea. Arazoa erlatibizatzeko gure gaztaroaz oroitzea aski ez balitz, hor dugu giza historia osoa, erlijio guztien sorrera, literatura… Horietan guztietan jarduera nagusietako bat lintxamendua izan da. René Girarden ustez lintxamendua da edozein gizarteren funtsa eta oinarria, eta edozein erlijiorena.

Ezagutzen ditugun izkribu politikorik zaharrenek etengabe adierazten dituzte honelakoak: "Gazteak begirunea galtzen ari dira, betiko balioez trufatzen dira, ohitura txukunak galbidean daude, ez dago helduenganako errespeturik…" Peter Sloterdijk-ek oroitarazi duenez, Antzinako Egipton etengabe salatzen zuten morala usteltzen ari zela, orobat mintzatzeko modu jatorra eta oro har hizkuntza. Era berean,

plazara

Elurra txakurtegiko arduraduna da Axen Garitano eta bertatik bertara ezagutzen du abandonatutako txakurren arazoa. Beheko lerrootan, txakurra eskuratu aurretik ondo hausnartu beharreko kontua dela dio, bai egiten ari garen horretan, baita izango dituen ondorioetan ere. Garitanoren esanetan, abandonuaren kontra dagoen kanpainarik onena txakurren erosketa arduratsua da.

Axen Garitano *

# Ama, aita, txakurra eduki nahi dut!

Geroago eta ohikoagoa da gure artean ikustea txakurrak, katuak edo bestelako maskotak dituzten familiak. Modan dago eta moda guztiak bezala bere gehiegikeriak eta bitxikeriak ditu: herritarrak pitoi sugeekin, kaimanekin, tarantulekin...

Baina gaur berba egin nahi dut arruntenaz, ohikoenaz, eta arazo bilakatu den horretaz: txakurrak konpainia animalia gisa.

Gabonetan areagotu egiten da animalion erosketa; hazleek ere negozioa ikusten dute data horietan eta ordurako prestatu egiten dituzte kumaldiak kumeak izateko.

Edozein arrazatako txakurkumea hain da ederra eta sinpatikoa, animalia-dendara hurbiltzen den inork ezin dio eutsi haren xarmari, nahiz eta begirada bat botatzera bakarrik joan. Gure barrenean baldin badaramagu halakoren bat: "Beti nahi izan dut bat izatea" edo "zuk zaintzen baduzu hartuko dugu" edo "txikitan izandako baten antza du"; azkenean, txakurra aldean duzula aterako zara dendatik; baita txanpuarekin, pentsu zakuarekin, bitaminekin, kumarekin, eskuilarekin eta parafernalia guztiarekin.

Txakurra erosi aurretik ondo hausnartu behar da egiten ari garen horretan eta izango dituen ondorioetan. Txakurrek egunerokо beharrak dituzte. Ez dago oporrik haien zainketan, ezin dira zainketok *itxi* taberna edo denda bat izango balira bezala: kalera atera behar dira egunero, eguzkia edo euria egin; nekatuta egon ala ez, lanegun eta jaiegun.

Txakurren zainketak hainbat gastu ditu eta horiek dira txakurra erosten dugun unetik hartzen ditugun konpromisoak. Identifikazio mikrotxipa jarri behar diogu, parasitoak hil behar dizkiogu, txertatu, berriz txertatu, maiztasunez albaitariarenera eroan eta izualdi bat baino gehiago pasatu haren osasuna dela eta.

Hausnarketa horiek egin eta gero oraindik txakurra izateko gogoz bagaude, komeni da espezialista bati galdetzea zein txakur arraza den pertsona bakoitzarendako egokiena. Izan ere, kontuan izan behar ditugu hiru gauza: arraza bakoitzak bere ezaugarriak dituela –tamaina, izaera, agresibitatea, ile luze edo motza, umeekiko harremana...– txakurrarendako ditugun bizi baldintzak –pisu batean bizi garen, baserri batean...– eta eroslearen ezaugarriak.



MIKEL ARROIABE

**"Ondo hausnartu eta gero oraindik txakurra izateko gogoz bagaude, komeni da espezialista bati galdetzea zein arraza dagokigun"**

Ez da txantxetan hartzeko kontua; benetako liskarrak izaten dira gure txakurkumea handi egiten denean. Gertatzen da txakurra handitzen denean erabaki egiten duela, eta erabakitzen du nor den bere nagusia, nori egin kasu, eta askotan txakurrak ez du haren nagusitzat hartzen dirua jarri zuen pertsona, ezta egunero jaten ematen diona ere. Askotan aukeratzen du etxean gutxien egoten den pertsona edo ume txikiak. Eta horrek min egiten dio eta harritu egiten du haren sasi-nagusi harroa.

Hausnarketak eginda izan ala ez, txakurkumea etxera eramaten dugunean hasten da arazorik handiena, teknologiaren aurrerapenek ere konpondu ezin duten arazoa: txakurkumeak hazi egiten dira.

Azaldutako gauza guztiak egunero ikusten ditut nire lanean. Egunero batzen ditut Bergarako Elurra txakurtegian abandonatutako txakurrak. Zaindu eta mantendu egiten ditut, bai, horixe baita txakur ugariren amaiera; txakur gazteak, gehienak, gainera, urtebetera iristen ez direnak.

Denok dakigu badirela animaliak zaintzeko eta jabe arau hausleak zigortzeko legeak, baina egia dena da ondorioak ordaintzen dituena txakurra dela. Izan ere, zaintzen dituen lege horrek berak dio lagatako txakurrak hilabeteko epean inork batzen edo adoptatzen ez baditu akabatu egin behar direla. Puntu horretan hausteko legea dela uste dut, eta esan eta egin egiten dut. Animaliengananako maitasuna bezalako uste sendoarekin lan egiten denean, badira bete behar ez diren lege eta arauak.

Erosketa arduratsua da kanpainarik onena txakurren abandonuaren kontra. Bestalde, animatu nahi ditut txakurra eskuratzekotan daudenak adoptatzeko aukera aztertzera, eta Elurran dagoen bat hartzera. Mikrotxipa jartzea izan ezik, erabat doan aterako zaizue. Bueno, doan ez, zuek izango zarete eta irabaziko duzuenak etxera eroango dituzuen maitasun kiloekin.

*Axen Garitano,
Elurra txakurtegiko arduraduna

zer deritzozu?

www.goiena.net

## Urtarrileko aldaparik igartzen duzu?

| | |
|---|---|
| BAI | %66,6 |
| EZ | %33,3 |

**> NIK OTSAILEAN**
Nik otsailean igartzen dut aldapa. Gabonak direla, beherapenak direla... urtarrilean oraindik ere dirua gastatzen dihardugu. Hala, otsailean igartzen dut nik aldapa latz hori.
**Amaia**

**> BAIIIIIIII!**
Eta gogorra, gainera. Gabonetan beti gastatzen dut gehiago, batez ere umeendako opariak erosten eta gero nabaritu egiten dut. Nola ez ba!.
**Ainara**

**> NIK EZ**
Ba nik ez dut ezer igartzen. Askok pentsatuko duzue sekulako aurpegia dudala, baina Gabonetako egun seinalatuetan amarenera joaten naiz, musu truk bazkaltzera eta afaltzera. Gastatzen dudan aparteko diru bakarra da opariak egiten, baina ez da horrenbesterako izaten. Hortaz, nik oraingoz, behintzat, ez dut aldaparik sumatzen. Oraindik seme-alabarik ez dudala ere esan behar dut.
**Imanol**

**DATORREN ASTEKOA:**
**Erosi edo egin egiten duzu Inauterietako mozorroa?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

hasierako taoismoaren hainbat testuk degradazioaren historia unibertsala dute hizpide. Juduen testu profetiko zahar askok ere gero eta okerrago gabiltzala gaztigatzen dute, eta endekatze honek ez duela irtenbiderik. Platon berdintsu. Dirudienez, aldatzen ez dena sentsazio horixe da, gazteek pikutara garamatzatela.

Gaur egungo gazteak ez dira gu baino bortitzagoak. Beren jipoiketen berri gehiago dugu batetik segapotoak eta internet dauzkagulako, eta bestetik gero eta biztanle gehiago garelako. Biztanleen ugaltzearen araberakoa da lintxamenduen eta lintxamenduen berrien ugaltzea.

Jipoi zoriontsua, zartako alaia, ez da fenomeno berria. Krudelkeria gizateria baino zaharragoa da. Berriki arte ezin izan dugu irudikatu ere egin, ankerkeriaren batek apaindu gabeko jairik. Festa eta ondo pasatze guztien derrigorrezko osagai izan da hildura. Hain zuzen, Ekuador inguruan bizi diren jibaro indiarrek, etsaien buruzagiaren burua ebaki eta jai giroan laranja baten tamaina hartzeraino murrizteari, "tsantsa" deritzote.

## Ezkontza zibiletan, kale

**Asier Azpilikueta**
www.berria.info/blogak/azpilikueta

Iruñean 2007an egin ziren 186 ezkontzetatik 8 bakarrik egin zituzten ele bitan (euskaraz eta gaztelaniaz), hau da, ezkontza guztien %4,3. Bertze guztiak, gaztelania ederrean izan ziren. Halakorik! Garenaren erdira ere ez gara ailegatzen! Iruñeko euskaldunak ez dira modu zibilean ezkontzen? Ez dira euskaraz ezkontzen? Ez dira ezkontzen?

koplak

Irati Agirreazaldegi

## Tortura, non dago muga?

Hizpide dugu tortura;
biktima Igor Portu da.
Minen ontzia berriro bueltan
heldu da portura.

Berdin Mattin Sarasola.
Non ote da eta nola?
Honen izenak izkutuan du
zaurien odola.

Bertsio ofiziala
eman dute berehala.
Uste al dute gu sinisteko
tontoak gerala?

Berba zuriz Rubalcaba
diona egia bada
margo ubelak noiznahi ikusten
"ohitu" behar gara.

Gordin mediku txostena.
Helduko al da azkena?
Frogarik eza da aitzakirik
frogagarriena.

Nahiko ez da salaketa.
Nahiko ez da ikerketa.
Tortura eta min sakonenak
gugan dirau eta.

# Desberdintasun sozialak areagotzen kooperatibetan

**Emilio Lekue, Antonia Domenech eta Mikel Olabe**
(Ahots Kooperatibista)
Bergara

Ez dugu asmorik kooperatibaren inguruan mugitzen diren sektore eta gizarte talde desberdinen arteko harreman eta osaketa zehatzari buruzko ikerketa soziologikorik egiteko. Hala ere, komenigarria da mundu kooperatibistan ematen den egoerari begiratua ematea eta ikustea zein den horren bilakaera. Jakin badakigu erronka zorrotza dela, baina merezi du.

Definizio batzuen arabera, gizarte klaseak dira gizarte ekoizpenean beraien artean desberdintzen diren gizarte taldeak; desberdintasun hau produkzio-bideen jabetza izatean ala ez izatean, edo lanak sortzen duen ondasunetik jasotzen duten diru-kopuruan datza. Hiru ardatz hauetan (kapitala edukitzea, jasotzen dituzten errentak edo diru-kopuruak eta erabakitzeko eskuduntza) desberdintasuna areagotzen ari da kooperatibetan.

Desberdintasun hauek kontuan harturik hiru sektore desberdindu ditzakegu: lehena, bazkideena; bigarrena, azpikontratuak eta behin-behinekoak; hirugarrena, kooperatibek euren internalizazioan sortu dituzten enpresetako langileak.

Bazkideen artean denok ez dugu zeregin bera betetzen. Kontuan hautu behar dugu zuzendaritzak eta honen inguruan mugitzen direnek botere eta eskuduntza handia dutela erabakitzeko garaian, nahiz eta hauen soldatak besteekin alderatuz handiegiak ez izan; erdi-mailako sektoreek bizi maila ona dute eta zuzendaritzaren koltxoia dira, eta jasaten duten esplotazio-maila behekoena baino xamurragoa da; beheko mailan aritzen den jendeari bereizten diona esplotazio itzela litzateke, hala nola zuzendaritzarekiko etengabeko oinperatzea, nahiz eta hau oso nabaria ez izan. Baina bada bazkide guztiak batzen duena: denek erabakiak hartzen dituztela, kapitala dutela eta emaitzak jasotzen dituztela.

Azpikontratuek eta behinbehinekoek esplotazio bizia pairatzen dute, ez dute erabakirik hartzen ezta kapitalik ukan. Behin-behinekoek ez dute ordezkaritzarik ezta negoziatzeko eskuduntzarik, eta emaitzen parte txiki bat baino ez dute kobratzen. Bazkideen azpitik kokatzen dira.

Kanpoan eraikitako enpresetako langileek hemengo behin-behinekoen soldatak baino eskasagoak dituzte, ez dute kapitalik eta kasu gehienetan ez dute emaitzetatik ezer jasotzen, eta zentralean hartzen diren erabakien zorien mende daude.

Denbora pasa ahala, bere ingurua eraldatu nahi zuen eta nahi duen kooperatibismoak berak gizarte klaseak eta mende diren gizarte taldeak sortzen ditu, zeinen lan baldintzak, soldatak eta erabakitzeko eskuduntzak bazkideenak baino kaskarragoak diren.

Gure ustetan aipatutako egoera honek erabakiak ahalik eta azkarren hartzea exijitzen du. Kooperatibak behinbehinekoak eta prekarioak diren langileen kopurua erabat murriztu behar du, eta bestaldetik, behin-behinekoei ordezkaritzarik aitortu eta berau ahalbidetu kooperatibarekin negoziatu ahal izateko besteen konturako langileak direlako. Gure enpresetan, internazionalizazioan, kooperatibizatu egin behar da, eta sozietarizazioa posible ez den tokietan langileen eskubideak errespetatuko dituen benetako kode etiko bat indarrean jarri. Dena den, zuzendaritzak suspertzen omen dituen parte hartzeko lau mailak eskaini behar dira: parte-hartzea kapitalean, emaitzetan, lanpostuan eta enpresaren gobernuan.

Desberdintasun areagotze honek ereduaren porrota eta hastapenei traizioa dakartza. Gizarte klasistetan sortu zen kooperatibismoak klaseen desagertzea aldarrikatzen zuen praktikarekin, klaseak existitzen ez ziren lantegiak eraikitzen zituen neurrian. Kapitala eta produkzioa alde batetik eta, bestaldetik, gizakiagoak eta parte-hartze eta autogestioan oinarritzen ziren sistemak indarrean sartzearekin bat eginez, gizarte klaseetan sustatzen zen gizartean ematen den esplotazioa zokoan uzten zuen. Egun, kooperatibetan ematen den geruzatze honekin gizarte klaseak barruraino sartzen ari zaizkigu (eta ez leihotik atetik baizik, zeharo zabaldu dugun atetik hain zuzen).

Arrasaten jaio zen fenomenoak sortzen dituen gizarte klase edo taldeen inguruko hausnarketa sakona egitera behartuta daude eta gaude, balio gutxiago eta printzipiorik gabeko kooperatibismo bat ontzat ez dugu eman nahi. Hausnartzera behartuta gaude, baita ere ekitera, denok ekin behar diogu.

# Ingurumenarekiko kontzientzia

**Miren Aretxaga eta Ane Fernandez** > Aramaio

Oihanak galtzen ari direla-eta, guk, Aramaioko San Martin eskolako 4. mailako Miren eta Anek, gutun honen bidez zera salatu nahi genuke: alde batetik, papera egiteko egurra behar denez, gure inguruko zuhaitz guztiak moztu egiten dituzte eta gutxika-gutxika basorik gabe gelditzen ari gara.

Arazo honen konponbidea ez da erraza, baina guk badugu irtenbide bat: paper gutxiago gastatu eta erabiltzen den guztia birziklatu.

Beste alde batetik, autobideak egiteko basoak murrizten ari dira. Beraz, guk dauden errepideak konpontzea eskatzea nahi genuke.

Gutun honen helburua da irakurle denak enteratzea arazoaz eta kontzientzia handiagoa edukitzea.

# Euskaldunak elebakarrak, ez horixe!

**Ane Barruso**
Bergara

Lerro hauen bidez, GOIENKARIAren 312. zenbakian, gutunen sailean, Natalia Yaminak euskarari buruz idatzitakoari erantzun nahiko nioke.

Bada bere idatzian oso inportantea den galdera bat: zer da garrantzitsuagoa, komunikatzeko erabiltzen dugun hizkuntza ala komunikazioa bera? Egia da komunikatzen jakitea garrantzitsua dela eta hezkuntza munduan murgilduta bizi garenok badakigu horixe dela Euskal Curriculumak proposatzen duena, EAEk onartutako curriculumak dioena eta europar markoak ezartzen duena ere. Gainera, gurea bezalako herri batentzat oso garrantzitsua da komunikazioa, bere eskubideen aldarrikapenean funtsezkoa baita ideiak ondo adieraztea. Nik sarri esan ohi diet nire ikasle nerabeei: "Nola lortuko duzue jaietan berandu arte kalean egotea, gurasoen aurrean argudiatzen ez badakizue?". Oso garrantzitsua da baita gaur egun bizi dugun komunikazio eta informazioaren aro honetan komunikazio eta informazioaren kudeaketan trebatzea. Baina zer erabiliko dugu komunikatzeko? Hizkuntza, hau baita komunikaziorako tresna. Eta zein hizkuntza erabiliko dugu Euskal Herrian komunikatzeko? Euskara. Herri bakoitzak bere hizkuntza erabiliko du komunikatzeko. Horrek ez du esan nahi, ordea, euskaldun elebakarrak izan nahi dugunik, ezta gutxiagorik ere; alderantziz: gure hizkuntza, euskara, ardatz harturik, herritar eleanitzak lortu nahi ditugu, euskaraz jasotako komunikazio gaitasunak beste hizkuntzetara transferituko dituztenak, alegia. Komunikazio gaitasunak euskaraz landu behar ditugu (portugaldarrek portugesez jasoko dituzten legez) gero, beste hizkuntzetan erabiltzeko: gaztelania, frantsesa, ingelesa, alemana nahiz txinoa.

Egia da baita, Nataliak dioen bezala, Euskal Herriak asko jasan behar izan duela hain zaharra den hizkuntza mantentzearren, bai, baina ez da hori Euskal Herrian euskaraz hitz egiteko daukagun arrazoi bakarra. Euskara ez da baserritar trajea bezala: baserritar trajea janzten dugu eta Santa Ageda bezperan, nahiz Gabonetan, kalera ateratzen gara ohitura delako, lehen horrela egiten zelako, jantzi hori eta ohitura hori galdu nahi ez ditugulako, gure historia eta kulturaren adierazle direlako. Euskaraz hitz egitearen arrazoia harantzago doa, baina: euskaraz hitz egiten dugu Euskal Herria nazio bat delako, gure nazioa delako, eta nazio horren hizkuntza euskara delako, eta ez dago besterik, hain sinplea bezain korapilotsua. Ez dugu euskal elebakarrak izan nahi, gure hizkuntza nazionala erabili nahi dugu, besterik ez.

# Eskerrik asko, Txatxilipurdi

**Kontxi Ruiz de Zarate, Marije Arrizabalaga eta Amaia Mujika**
Bergara

13 urteko alabak ditugu eta guztiz eskertutik gaude Txatxilipurdik eskaintzen dien aukerarekin. Gazte-txokoetan egiten dituzten ekintza erakargarriak eta begiraleekin duten harreman ona azpimarratu nahi genituzke.

Urte berrian ere animuak bidali nahi dizkizuegu eta indar berdintsuekin jarrai dezazuela espero dugu.
Mila esker, gazte-txokoak bideratzen dituzuen guztioi, guraso talde baten izenean.

# AHTrik ez?

**Felix Hernandez**
Arrasate

2007ko abenduaren 15ean kaleagerraldia egin zen Arrasaten AHTren kontra. Jende asko bildu ginen eta argi geratu zen AHTren alde jendea ez zegoela.

Aukera paregabea izan zuen Arrasateko alkateak, manifestazioa bukatu ondoren eginiko agerraldian, herri kontsulta egitea proposatzeko, Aramaion edo Elorrion egin zuten bezala.

Gauza zaila da ulertzea nola beste herrietan erabiltzen den lelo bakarrak, *Herri galdeketa*, hemen Arrasaten baliorik ez izatea. Arrasatearrok eskubidea dugu AHTri buruz dugun iritzia emateko eta gure udal agintariei herri galdeketa Arrasaten exijitzeko.

Manifestazioan "txikitzaileak txikitu" ohiukatzen zen (bide batez esan behar dut lelo horrekin ez nagoela ados), gaur egun Udalatx mendia txikitzen ari dira; meategi bat egiteko asmoak aurrera jarraitzen du.

Orain dela urte pare bat meategi hori ixteko mobilizazioa burutu zen, baina gaur egun ahaztuta dago.

Udalatx koittaua! Alde batetik, zulatu eta bestetik zulatu, zein da zure etorkizuna? Zuk ez duzu etorkizunik!

# Gabonetan jolasean

**Amaia Arantzabal**
Bergara

Gabonetan Arrasaten egon nintzen umeekin Musakolako kiroldegian. Txikilandian. Txatxilipurdik antolatutako Gabonetako aisialdi eskaintza oso aberatsa, dinamikoa eta dibertigarria iruditu zitzaidan. Arratsalde batean egon ginen eta hainbeste gauza zegoen, ezen ez baitzuten denak probatzeko astirik eduki umeek. Baina primeran igaro zuten 16:00etatik 20:00etara eta opari eta guzti itzuli ziren etxera. Zorionak eman nahi dizkiot Txatxilipurdiri horren ondo antolatzearren eta Arrasateko Udalari egindako apustuagatik. Urteak dira, gainera. Bergarakoan ere egon ginen, baina ez zuen bestearekin zerikusirik. Datorren urtean hobeto? Ea, bada.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**
**Telefonoa:** 943 25 05 05
**Faxa:** 943 25 05 12
**Posta elektronikoa:** goienkaria@goiena.com


Eskaintza honek urtarrilaren 10etik 26ra balio du
2.alea
SALNEURRI ERDIAN
DODOT
ETAPAS PLUS Activity
Pixoihala, DODOT PLUS ACTIVITY, 4-10 kg edo 9-15 kg edo 13-18 kg
Ale 1 erosita
14 €
2. alea
7€
EROSKI
zurekin




| J. Carlos Guerra 1 | Ibargarai 16 | C/ Nueva 15 - GROS | Bidebarrieta 2 | Koldo Mitxelena, 7 | Mendibil M. G. | J.M. Barandiaran Enp. | San Frantzisko 23 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Tel. 943 79 29 95 | Tel. 943 76 15 75 | Tel. 943 32 66 49 | Tel. 943 20 05 22 | Tel. 943 51 78 11 | Tel. 943 63 99 01 | Tel. 943 88 99 88 | Tel. 943 69 84 70 |
| ARRASATE | BERGARA | DONOSTIA | EIBAR | ERRENTERIA | IRUN | ORDIZIA | TOLOSA |

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Hedabide guztietarako
telefono berria eta bakarra
943 25 05 05

Goitb Goiena Telebista
ASTELEHENEKO Goienkaria
Goienkaria
FM 107.7 ARRASATE IRRATIA
Goiena.net Debagoieneko Interneteko ataria



**> BERGARA**
San Antonio eta Martoko artean pasealekua egingo dute **> 24**



**> OÑATI**
Lur azpiko parkina martitzenean hasiko dira kobratzen **> 33**



**> ANTZUOLA**
Mairuaren Alardea duintzeko ideiak aurkeztu dituzte ikertzaileek **> 36**



**> LEINTZ GATZAGA**
Garraioa hobetu guran, autobus gehiago dabiltza herritik **> 39**

**OÑATI** > ELIZA

# Arantzazuren eta gizartearen aro berrira egokitu da 'Arantzazu'

**ALDIZKARIA**
'Arantzazu' aldizkari berritua aurkeztuko dute bihar, zapatua, Kursaalen

**BATEGITEA**
Orain arteko hiru aldizkari bateratu egin dituzte

**HOBETU**
Garaiei egokitutako eduki eta tratamendu gaurkotuak ditu



**BERRIA** Iñaki Beristain, *Arantzazu* aldizkariko zuzendaria, urtarrileko zenbaki berritua eskuetan duela. LEIRE KORTABARRIA

**LEIRE KORTABARRIA** > OÑATI
Arantzazuko Santutegiak bere burua berritu eta oraingo garaietara egokitu du azken urteotan, eta orain, gauza bera egin du hango frantziskotarrek editatzen duten aldizkariak, *Arantzazu*-k. Izan ere, 88. urtea duen honetan, 888. zenbakia, urtarrilekoa, berrituta etorri da, eta bihar, zapatua, aurkeztuko dute Iñaki Beristain zuzendariak eta Joseba Intxausti historialari eta kolaboratzaileak Donostian, Kursaalen.

**HIRU ALDIZKARI BATEN**
Orain arte, frantziskotarrek hiru aldizkari egin izan dituzte: *Arantzazu*, *SAP* –hasieran, *San Antonio de Padua*, azkenaldian familia gaietan espezialdua– eta *Misiones Franciscanas*. Bada, hirurak bateratu egin dituzte *Arantzazu* berrian, eta azken biotako gaiak aldizkari berrian ere agertuko dira.

Beristainek azaltzen dizkigu berritasun horren arrazoiak: "Batetik, gure harpidedunenganako komunikazioa hobetu gura dugu, edukiak eta tratamendua gaurkotu eta gazteengana eta gurako helduengana iritsi. Bestalde, urte askoan, fraideek etxerik etxe kobratu izan dute kuota, eta hori ez da gaur egunerako modu egokia; hortaz, harpidetza banku bidez kobratzen hasiko gara". Zuzendariak badaki lan handia dutela aurretik: "Orain arte, *Arantzazu*-k 10.000 harpidedun zituen eta *SAP*-ek, 12.000. Egokitze aldia izango dugu urte hasieran".

**BILA DABILTZANENDAKO**
Hitz gutxitan labur daiteke Arantzazu berriaren filosofia: "Bila dabilen pertsonendako frantziskotar aldizkaria da *Arantzazu*; bila ibiltze hori izango da aldizkariaren bizkarrezurra", esaten du Iñaki Beristainek. Bila ibiltze hori hainbat gaitan mamituko dute: bilatzea gogoetan, nork bere barruan, familian, santutegian, Euskal Herriko bakegintzan, elizan, munduan, misiogintzan, naturan... Gainera, bi sail berri izango ditu: batean, familiari eskainitakoan, norbaitek esperientzia bat partekatuko du, eta handik ikasgai edo balio bat aterako da; bigarrena misioei eskainitakoa da, eta misiolariengana ko harremana landuko du.

Urtarrileko zenbakia kalean da dagoeneko, eta Donostiako gotzain Juan Maria Uriarte ekarri dute azalera; gotzainari elkarrizketa zabala egin dio Iñaki Beristainek. Barruan, lehengo kolaboratzaileak aurkituko ditugu: Jose Antonio Pagola, Jesusen gaineko artikulu batekin; Joxe Mari Arregi, Asisko San Frantziskoren gainean idazten; Jonan Fernandez, bakegintzaren inguruko gogoeta batekin; Joseba Intxausti, euskal elizaren historia gogoratzen... eta berri batzuk, tartean, Garbiñe Uria kazetaria, Jesus Mari Muxika, Baketik zentroa, misiolari batzuk...

**HARPIDETZA**
Arantzazuko frantziskotarrak, orain, harpidedunekin harremanetan jarriko dira, eta harpidedun berriak egiteko kanpaina ere hasiko dute; 943 78 25 42 telefonoan eta *www.arantzazu.org* webgunean dago informazio gehiago. Urteko kuota 18 euro da.

# zerbitzuak

## GUARDIAKO FARMAZIAK

### ARRASATE

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 12 | Fernandez | Maisu Aranbarri, 1 | 943 79 22 26 |
| Domeka, 13 | Fernandez | Maisu Aranbarri, 1 | 943 79 22 26 |
| Astelehena, 14 | Irizar | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| Martitzena, 15 | Amezua | Santa Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| Eguaztena, 16 | Español | Arabako Etorbidea, 14 | 943 79 18 65 |
| Eguena, 17 | Ruiz | Nafarroa Etorbidea, 1 | 943 79 14 09 |
| Egubakoitza, 18 | Etxeberria | Zarugalde, 42 | 943 77 16 30 |

### BERGARA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 12 | Zabala | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| Domeka, 13 | Zabala | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| Astelehena, 14 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Martitzena, 15 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Eguaztena, 16 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Eguena, 17 | Urrutikoetxea | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Egubakoitza, 18 | Zabala | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |

### OÑATI

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 12 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Domeka, 13 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Astelehena, 14 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Martitzena, 15 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Eguaztena, 16 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Eguena, 17 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Egubakoitza, 18 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |

### ARETXABALETA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 12 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Domeka, 13 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Astelehena, 14 | Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 15 | Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 16 | Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 17 | Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 18 | Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |

## TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

### OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia)........943 46 11 11
DYA (Antzuola)........943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)........943 76 55 76
Suhiltzaileak........943 78 28 00
Ertzaintza........943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala........943 03 53 00
- Antzuola........943 76 62 23
- Aramaio........945 44 53 40
- Aretxabaleta........943 71 19 59
- Bergara........943 03 54 00
- Elgeta........943 03 54 00
- Eskoriatza........943 71 44 52
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola........943 76 62 46
- Arrasate........943 79 14 39
- Aretxabaleta........943 71 18 63
- Bergara........943 77 91 06
- Eskoriatza........943 71 44 07
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 78 04 11

### GARRAIOAK

PESA........902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate........943 79 12 22
- Aramaio........945 44 50 33
- Aretxabaleta........943 77 12 64
- Bergara........943 79 12 22
- Eskoriatza........943 71 40 59
- Oñati........943 78 03 65

### DEBAGOIENA

Mankomunitatea........943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)........943 78 15 12
Nekazaritza ganbera........943 76 10 15
Zerga Bulegoa........943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate........943 77 11 43
- Bergara........943 76 44 42
- Oñati........943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio........945 44 53 35
- Arrasate........943 77 16 77
- Aretxabaleta........943 71 26 28
- Bergara........943 76 56 41
- Elgeta........943 76 82 84
- Eskoriatza........943 71 53 28
- Oñati........943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola........943 76 60 65
- Aramaio........945 44 53 74
- Arrasate........943 77 01 05
- Aretxabaleta........943 71 10 27
- Bergara........943 77 91 58
- Eskoriatza........943 71 46 88
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 78 03 53

Udalak
- Antzuola........943 76 62 46
- Aramaio........945 44 50 16
- Arrasate........943 79 09 00
- Aretxabaleta........943 71 18 62
- Bergara........943 77 91 00
- Elgeta........943 76 80 22
- Eskoriatza........943 71 44 07
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 78 04 11

## URBANOAK

### ARRASATE

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

### BERGARA

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

### ARAMAIOKO AUTOBUSA

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |

| Gasteiz | Aramaio | Arrasate |
|---|---|---|
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

# eguraldia

## DEBAGOIENEAN



### Zapatua, 12

Haizeak ipar-mendebaletik joko du lehenengo eta aldatzen joango da arratsaldean. Euria egin dezake, batez ere goizean; gero, atertzera joko du.



### Domeka, 13

Tenperaturak igotzeko joera izango du, eta ateri egongo da egun osoan. Fronte hotzaren azken apurrak joanda, egun polita geratuko da.

## EUSKAL HERRIAN

Asteburua fronte hotzaren hondarrekin hasiko da. Zapatuan eguraldiak hobera egingo du. Hala ere, goizaldean euri apur bat espero behar dugu eta zaparrada trumoitsuak botatzeko arriskua mantendu guztian. Domekan, tenperaturak gora egingo du, eta giro atsegina egongo da.



## TENPERATURAK

**MINIMOA** Egubakoitza, 4 — **2 ºC**

**MAXIMOA** Martitzena, 8 — **16 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m$^2$) — **2,4 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| **Eguaztena, 2** | 12 ºC | 5 ºC | 0 l/m$^2$ |
| **Eguena, 3** | 11 ºC | 5 ºC | 1,8 l/m$^2$ |
| **Egubakoitza, 4** | 12 ºC | 2 ºC | 1,2 l/m$^2$ |
| **Zapatua, 5** | 15 ºC | 4 ºC | 10,1 l/m$^2$ |
| **Domeka, 6** | 16 ºC | 9 ºC | 0,2 l/m$^2$ |
| **Astelehena, 7** | 12 ºC | 8 ºC | 0,8 l/m$^2$ |
| **Martitzena, 8** | 16 ºC | 8 ºC | 2,6 l/m$^2$ |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

## ILARGIA URTARRILEAN



| Ilbehera | Ilberri | Ilgora | Ilbete |
|---|---|---|---|
| 1 | 8 | 16 | 22 |

# oharrak eta deialdiak

BERGARA
**> 1956an jaiotakoek bazkaria egingo dute**
1956an jaiotakoek batera bazkaltzeko aukera dute urtarrilaren 26an, zapatua, Zabala jatetxean. Hantxe eman behar da izena (943 76 20 07), urtarrilaren 19a baino lehen.

ARETXABALET
**> 'Gorputzaren musikak' tailerra egingo dute**
*Gorputzaren musikak* delako tailerra antolatu du Loramendi elkarteak urtarrilaren 31rako. Musikaren laguntzarekin, sentitzeko, pentsatzeko... espazioa irekitzen iraikatsiko dute. Izenematea, Loramendin (943 77 09 70 edo *loramendi@topagunea.com*).

ARAMAIO
**> Herri batzarra egingo du bihar EAE-ANVk**
Herri batzarra deitu du EAE-ANVk biharko, zapatua, kultura etxean, 10:00etan. Espainiako Parlamenturako hauteskundeak eta udal kontuak landuko dituzte.

OÑATI
**> Interneten arriskuen gaineko hitzaldia**
*Interneten arriskuak eta haurren babesa* delako hitzaldia egingo du eguaztenean, hilak 16, Jorge Flores aditual Txantxiku ikastolan, 18:30ean. Berbaldia gaztelaniaz izango da.

ARRASATE
**> Bi ikastaro antolatu ditu Ekin elkarteak**
Eskulan eta orratzlan ikastaroak antolatu ditu Ekin emakume elkarteak. Izena emateko, deitu 943 79 83 70 telefono zenbakira.

BERGARA
**> Umeen jolasak eta kantuak ikasteko aukera**
Umeen jolasak, kantuak eta ipuinak landuko dituzte ikastaroan, euskaraz, zapatu goizetan. Izenematea, Udal Euskara Zerbitzuan (943 77 91 66).

OÑATI
**> Gurasoendako ekintzak Elkar Hezin**
Eguaztenean, hilak 16, *Fedean hazi bereizia* hitzaldia egingo dute DBHko guraso eta irakasleendako, Santa Marinan, 18:30ean, eta eguenean, *Nola landu autoestimua familian?* delakoa, HH eta LHkoendako, Arantzazuko Amaren egoitzan, 18:30ean.

ARRASATE
**> Yoga ikastaroa antolatu berri dute**
Yoga ikastaroan izena emateko aukera dago. Izenematea: 635 71 06 16 (Maite) edo 943 78 31 26 (Ana).

ARRASATE
**> Ludotekan lan egiteko hezitzaile bila**
Txatxilipurdi elkarteak hezitzaileak behar ditu Arrasateko ludotekan aste barruan lan egiteko. Interesa dutenek 943 79 54 46 telefonora deitu edo *haurrak@ txatxilipurdi.com* helbidera mezua bidal dezakete.

BERGARA
**> EAJren Gabonetako zozketaren irabazlea**
EAJren Gabonetako zozketaren zenbaki saritua 140 izan da.

ARETXABALETA
**> Euskarazko webguneen gaineko ikastaroa**
Euskarazko webguneak ezagutzeko eta erabiltzeko ikastaroa antolatu du Loramendik hilaren 15, 16 eta 22rako. Izenematea astelehenera arte da.

ESKORIATZA
**> KZguneko begiralea hilaren 11n etorriko da**
KZguneko dinamizatzailea gaur, egubakoitza, egongo da gelan, 11:00etatik 13:00etara bitartean. Ikastaroren bat egin gura duenak hara joan besterik ez dauka.

BERGARA
**> Euskara batzordeak egutegia kaleratu du**
Euskara batzordeak 2008ko egutegia kaleratu du: hormarako egutegi handia eta eskura edukitzeko txikia. Inork jaso ez badu eta nahi badu, Udaltzaingoan eska dezake.

BERGARA
**> Zeramika ikastaroa antolatu dute**
Zeramika ikastaroa antolatu dute otsailerako, astean bi egunean, lau ordu. Izena emateko, deitu 943 20 65 01 telefono zenbakira.

ARRASATE
**> 'ViaMichelin-ekin bidaiatu' ikastaroa**
*ViaMichelin-ekin bidaiatu* delako Interneteko ikastaroa emango dute gaur, egubakoitza, KZguneko gelan, 10:00etatik 11:00etara. Bestalde, IT Txartela ateratzeko azterketa egongo da martitzenean, hilaren 15ean, 11:00etatik 13:00etara.

ARRASATE
**> Ludoteka ibiltariaren lehenengo saioa bihar, zapatua, egingo du Txatxilipurdik**
Txatxilipurdi aisialdi elkarteak bihar, zapatua, zabalduko du berriz ludoteka ibiltaria. Oraingoan, San Andres auzoan izango dira, Bedoñabe herri eskolan, 11:00etatik 13:30era bitartean. Han egongo da hilaren 19an eta 26an eta otsailaren 2an; gero, Musakolara eta Garagartzara joango da.

**943 25 05 05**
**goienkaria@goiena.com**

kale inkesta

# Kiroldegia berrituko dute aurten; zer deritzozu?



**Roberto Fraile**
Langilea
Aretxabaleta

Berriztatzea oso ondo dago, nahiko premia ikusten dut-eta. Nik asko erabiltzen dut kiroldegia, eta zelai eta pista berriak egitea oso ondo iruditzen zait, batez ere kiroldegi barruko instalazioak.



**Oihane Agirre**
Langilea
Aretxabaleta

Beharrezkoa du berrikuntza bat. Urte dezente dira nik erabili ez dudana, baina orain, ume txikiekin, konturatzen naiz beharra badagoela. Batez ere, igerilekuak berriztatzeko beharra dago.



**Amparo Ampudia**
Erretiratua
Aretxabaleta

Ondo iruditzen zait, oso txiki gelditu delako, batez ere igerilekua, baina orokorrean dena berriztatu beharra dagoela uste dut. Gainera, nik asko erabiltzen dut, bai igerilekua eta baita gimnasioa ere.



**Patxi Arbonies**
Erretiratua
Aretxabaleta

Ondo iruditzen zait berrikuntza egitea, zahartuta baitago. Eta nik eskatzen dudana da kanpoan egin behar dituzten pistak babestuak izatea, hemen euri asko egiten du-eta.



**Lorea Bolinaga**
Langilea
Aretxabaleta

Beharrezkoa ikusten dut, bai kiroldegia handitzea eta baita berritzea ere. Beste gauza bat izango da esandakoa beteko duten; guztia amaitzean ikusi beharko da, baina beharra badago.

txistuak




GOIENKARIA

# Usondo parkeko iturria margotuta

Aste honetan bergarar batek ondorengo argazkia bidali digu. Hark esan digunaren arabera eta argazkian ikusten denez, aspalditik dago Bergarako Usondo parkeko iturria goitik behera margotuta, eta inor ez da hura garbitzeaz arduratzen. Iturriari aurpegia garbitzea dagokionari, irakurle horrek eskatzen dio halaxe egin dezala.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

## 233

2000. urteaz geroztik biztanleriak nabarmen egin du behera Gipuzkoan, eta baita Debagoienean ere. Hala, Arrasatetik 196 lagun joan dira beste herri batera bizi izatera; Bergaratik, 30; eta Leintz Gatzagatik, zazpi. Guztira, 233.

usteak uste

**Monika Belastegi**

# Urteko lehenengo umeak

Urtea hastearekin batera horren ohikoa den albistea ikusi nuen ETBko albistegian: Euskal Herrian jaiotako lehenengo umeak.

Ez ditut herrialde guztietan jaiotako umeak buruan, baina bai EAEn jaiotako lehenengoak eta guztiak etorkinen seme-alabak ziren. Bizkaian Ainara Quinteros jaio zen –EAEko lehena–; guraso boliviarren ume ederra. Bulgariatik etorritako bikotearen seme Alejandro Stoyamov-fokonov izan zen Gipuzkoan jaiotako lehena eta Araban, berriz, Kolonbiatik etorritako amak Marisol alaba izan zuen.

Azaldutakoa esanguratsua da, oso. Euskal gizartea –Espainian ere antzera gertatzen ari da– nabarmen eraldatzen ari dela ezin ukatu. Geroago eta etorkin gehiago dago gure artean. Gure bailara ere horren oso adibide argia da: Mankomunitateak egindako azterketa baten arabera 2005ean 2.500 etorkin zeuden erroldatuta gurean. Eta, profilaren arabera, gehienak seme-alabak izateko adinean daude. Gure seme-alabek jatorri askotako umeekin partekatzen dituzte eskola orduak. Kultura aniztasuna aberasgarria gertatuko zaie batzuei eta bestei, modurik naturalenean, gainera. Eta euskaldunak itxiak garela?

5 galdera...

# Amaia Gomez

Kizkur ile-apaindegikoa
Bergara

**1. Jendeak asko gastatzen du ile-apaindegian? Urtean zehar noiz joateko ohitura du jendeak gehien ile-apaindegira?**

Jendeak asko gastatzen du ile-apaindegian. Batez ere data berezietan, udan eta baita orain pasa berri diren Gabon jaietan ere. Gainera, aipatutako egunetan jende guztia batera etortzen da gurera. Izan ere, luxuzko artikulua izan arren, jendea asko etortzen da.

**2. Gabon zahar gauean eta Erregetan nabaritzen duzue jendea dotoreago egoteko ile-apaindegira joaten dela?**

Bai, nabaritzen da, batez ere Eguberri egunean, Gabon zahar gauean eta Erregetan. Ilea mozteaz gain, eskaintzen ditugun beste zerbitzu batzuetara ere etortzen da jendea: eskuen tratamendura eta edertze tratamenduetara. Bestalde, oso modan jarri da tratamenduen opari-bonuak oparitzea: aurpegi-tratamenduak eta pedikura, esaterako.

**3. Zein da azken urte honetan gehien eraman den orrazkera emakumetan eta gizonetan?**

Nesketan arrakasta handien izan duena Victoria Beckhamen adatsa izan da, eta gizonetan, berriz, ez da egon ezer berezirik, nahiz eta duela bi urte hain modan jarri zen kalpar altua aurten ere eskatu diguten.

**4. Ilea sendo eta osasuntsu mantentzeko zer egin behar da?**

Etxean ilea egoki zaintzea oso garrantzitsua da. Batez ere xanpu eta ile-egokitzaile egokia erabiltzea.

**5. Ilea mozteaz gain, beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen dizkiezue bezeroei, ezta?**

Bai, hala da. Ile-apaindegiaz gain, estetika-zentroa ere badaukagu gurean, eta, besteak beste, gorputz eta aurpegi tratamenduak eskaintzen ditugu, baita esku eta oinen zainketa tratamenduak ere. Eta makillajea ere eskaintzen dugu.



GOIENKARIA
2008ko urtarrilaren 11


HERRITARRAK Oinezkoak, Arrasateko kale batean. U.M.

**GIZARTEA** > ERROLDA

# Azken urtebetean ia 200 bizilagun galdu ditu Arrasateko udalerriak

Erroldan agertzen da Arrasaten 22.116 lagun bizi direla, baina ustea da gehiago direla, arrasatear asko bigarren herri batean erroldatuta dagoelako

UBANE MADERA > ARRASATE
Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratutako azken datuen arabera, oro har, zazpi urteotan, Gipuzkoak aldaketa izan du biztanle kopuruan: 2000n baino 15.000 biztanle gehiago bizi dira.

Baina igoera ez da herri guztietan gertatu. Hain justu ere, Arrasate da estatistika horren barruan salbuespenetako bat: 2006arekin alderatuta, 196 bizilagun gutxiago dago.

**EKONOMIA**
Arrasateko Udalean egin dute egoeraren gaineko hasierako azterketa, eta hainbat arrazoi aurkitu dituzte bizilagunen jaitsiera esplikatzeko. Ino Galparsoro alkateak aditzera emandakoaren arabera, "azken urteotako arrazoi berak" dira, eta horietako gehienak ekonomia kontuekin daude lotuta: "Arrasaten jende dezente dago bigarren etxebizitza erosten duena, eta desgrabazio fiskalak direla medio, etxe hori erosi duten lekuan erroldatzen dira".

Etxebizitzekin lotuta, baina, beste muturrean dauden bizilagunak ere badira, alkatearen ustez: "Inguruan edo ez oso urruti egon daitezke etxebizitza batzuk ez horren garestiak, eta beste batzuk horregatik joaten dira kanpora".

Baina, etxebizitza arrazoiez gainera, badira beste batzuk Arrasatetik alde egiteko: ikasketak, erretiroa eta lana, adibidez: "Bere garaian beste herri batzuetatik lanera etorritakoak, erretiratzen diren heinean, jaioterrira bueltatu edo, behintzat, etxebizitza han dutenez, han erroldatzen dira batzuk. Eta gazte batzuk, kanpoan ikasten dutelako eta bekak edo dirulaguntzak direla medio, baita ere kanpoan erroldatzen dira. Eta badago laugarren multzo bat-edo: atzerritarrak. Hona etorri, beste leku batera joan… lanaren arabera ibiltzen dira".

**TENDENTZIA "KEZKAGARRIA"**
Datuok esku artean, bizilagun kopuruaren jaitsiera "kezkagarria" den arren, errelitatearen benetako isla ez dela uste du alkateak: "Tendentzia moduan, kezkagarria da, baina pentsatzen dut ez duela islatzen errealitatea. Hemen agertzen bada Arrasaten 22.116 pertsona bizi garela, nik uste dut gehiago bizi garela. Baina erroldaren tendentzia beherantz joateak kezkatu egiten gaitu. Ez da gure bokazioa geroz eta biztanle gutxiagoko herria izatea".

Edozelan ere, urteotan ez dute lortu beheranzko tendentzia horri buelta ematea. Alkatearen ustez, "lagunduko luke norbera lanean eta bizi edo denbora luzeen pasatzen duen lekuan erroldatzeak, ez balu ekarriko diru galerarik eta horregatik kanpoan erroldatu beharrik ez balitz egongo".

**HEZKUNTZA** > ARIZMENDI IKASTOLA

## Animazio soziokulturalaren gaineko ikastaroa egingo dute urtarril eta otsailean

16 urtetik gorako bizilagunei dago zuzenduta, eta, oro har, pertsonekin lan egiteko gogoa dutenei

U.M. > ARRASATE
Pertsonekin lan egiteko gogoa dutenei zuzendutako ikastaroa antolatu du Arizmendi ikastolako Lanbide Heziketak; honela deskribatu dute ekimena: "Hirugarren adina, gaixo psikikoak zein erakundeetako taldeen denbora librea planifikatu, antolatu eta dinamizatzeko tresnak eta abileziak landu nahi dituen edozeini zuzendua dago".

Ikastaroa Arizmendiko San Viator Handi gunean egingo dute urtarrilaren 14an, 16an, 21ean eta 23an, eta otsailaren 11n, 13an eta 18an. Informazio gehiago, telefono honetan: 943 79 20 25.

**UMEAK** > LUDOTEKA IBILTARIA

## Txatxilipurdiren ludoteka ibiltaria Garagartza auzora ere iritsiko da aurten

Bihar, zapatua, abiaraziko du Txatxilipurdi elkarteak ludoteka ibiltaria; Bedoñabe eskolan da hitzordua

U.M. > ARRASATE
Ludotekarik ez duten auzoetako neska-mutikoei zuzendutako ekimena da Txatxilipurdi elkarteak antolatuko ludoteka ibiltaria. Hala azaldu du Maite San Vicentek, Txatxilipurdiko Haurren saileko arduradunak: "Hilabete batez, betiere, harremanetarako hizkuntza euskara izanik, balio hezitzaileetan oinarritutako ludotekaz gozatzeko aukera ematea". Hori guztia jolas, jostailu eta beste hainbat ekimenen bitartez betetzen dute.

**DATOZEN HITZORDUAK**
Bada, Txatxilipurdik jakinarazi du bihar, zapatua, abiaraziko duela ludoteka ibiltaria. Aurtengo jarduna San Andres auzoko Bedoñabe Herri Eskolan estreinatuko dute. Hain justu ere, Bedoñaben izango da oraingo zapatuaz geroztik, zapaturo, otsailaren 2ra arte.

Jarraian, San Andrestik Musakolara eta handik Garagartzara egingo du ekimen horrek. Hala, azken auzo horretara, ludoteka ibiltaria lehen aldiz iritsiko da aurten. Oro har, Txatxilipurdiren helburua da Arrasateko ahalik eta auzo gehienetara eramatea ludoteka zerbitzua.


JOLASEAN Ume bat ludoteka ibiltarian jolasean, iaz. TXATXILIPURDI

**EMAKUME TXOKOA** > EGITARAUA

## Lau ikastaro berri izango dira Emakume Txokoan

Asteburu honetan banatuko dute urtarriletik martxora bitarteko egitaraua

U.M. > ARRASATE
Emakume Txokoa berritasunekin dator martxora bitartean. Oraingo astean aurkeztu du egitaraua eta lau ikastaro berri iragarri ditu: pilates (astelehenak, 16:00-18:00, Antonia Nogueiras irakaslea); euskal dantzak (eguaztenak, 18:30-20:00, Lore Gazteak); Zahartzen Ikastea (martitzenak, 18:00-20:00 Pepa Bojo psikologo eta sexologoa); eta emakume etorkinendako lege aholkuen gaineko ikastaroa (otsailak 19 eta 26 eta martxoak 4 eta 11, 16:00-18:00) landuko dituzte. Bestalde, barreterapia ikastaroa ere egingo dute, egubakoitzetan, eta irakasle berria izango dute: Beatriz Egizabal. Halaber, irakasle aldaketa horrekin, ikastaroaren hizkuntza ere aldatuko dute, eta aurrerantzean euskaraz izango da.

Izena emateko epea urtarrilaren 14an zabalduko dute, 24ra arte. Hasi, urtarrilaren 28an hasi eta ekainaren 13an bukatuko dira. Hori bai, jarraipeneko ikastaroak (yoga, tai txia…) urtarrilaren 21ean hasiko dira.

Ikastaroez gainera, hilero izango da bestelako ekimenen bat. Adibidez, urtarrilean deitu dute Martxoaren 8arekin lotutako kartel lehiaketa.

**EKONOMIA** > UDAL AURREKONTUA

# Zerrajera, Abaroa eta Iturbide, 2008ko aurrekontuko 'izar'

Udal gobernuak (EAE-ANV eta EB-Zutik) aurrekontu zirriborroa aurkeztu du

Oposizioko alderdiek gaur, egubakoitza, dute azkeneko eguna proposamenak egiteko



**ITURBIDE** Garibai etorbidean dagoen Iturbide egoitza berritzen jarraituko dute; halaxe jaso dute 2008ko aurrekontuan. GOIENKARIA

**UBANE MADERA**> ARRASATE

Azken hilabeteotan, buru-belarri dabil Eusko Abertzale Ekintza eta Ezker Batua-Zutik koalizioak osatutako udal gobernua 2008ko jardunaldirako aurrekontua lantzen.

Horren arabera, eta udal iturriek aditzera eman dutenez, oro har, 43,4 milioiko aurrekontua aurkeztu du gobernuak 2008rako. Hortik 41,1 milioi euro izango dira udal jardunerako; 2.400.000 euro pasatxo, Iturbide egoitzaren jardunerako; eta beste 1.750.000 euro inguru, Aukearen jardunerako.

Inbertsioen atalari dagokionez, berriz, 14,4 milioi euro bideratu gura dituzte, orain arteko aurrekontuan (2006koan, iaz 2006koa luzatu zuten-eta) baino %31 gehiago. Hori da ildo orokorrari dagokiona. Baina xehetasun batzuk ere aurreratu dituzte. Hala, inbertsiorik handienak hiru izango dira: Zerrajerako lurren urbanizazioa, Abaroa berria eta Iturbide egoitza berritzea.

Horrez gainera, aurreikusi dute, baita ere, diru-kopuru jakin bat bideratzea azken urteotan sarri berbagai izan diren hainbat ekimenetarako: Elmako erakina berritzeko, Musika Etxe berria egiteko, Museo Industriala, udal artxibo berria egiteko eta eta Grupo San Juan eta Zaldispe urbanizatzeko.

Aurrekontuen zirriborroan aipatzen dituzten bestelako egitasmoen artean, berriz, nabarmentzeko modukoa da, baita ere, Udaletxeko Herritarren Parte-Hartzerako Alorra sortzeko bidea zabalduko dutela 2008ko aurrekontuaren bitartez. Hau da, herritarren partaidetza bultzatzeko bidea landu gura du udal gobernuak. Aurtengo aurrekontutik, 50.000 euro bideratu gura ditu hori gauzatu ahal izateko.

**URTARRILEAN ERABAKI BEHAR**

Edozelan ere, momentuz, azaldutako guztia zirriborroa besterik ez da. Aurrekontu porposamen hori osoko bilkurak onartu behar du derrigor, aurrekontuek aurrera egin ahal izateko. Urtarrilean, hil honetan, egingo dute bilkura hori.

Baina hori egin aurretik, gobernuak oposizioari aurkeztu dio zirriborroa; abenduaren 18an egin zuen hori. Alderdiek gaur (egubakoitza) arte izan dute guztia aztertu eta gura izanez gero proposamenak egiteko astia.

DATUA

**43,4**
**MILIOI EURO**

Horixe da udal gobernuak landutako aurrekontu proposamena; aurrekontu osotik 14,4 milioi euro gura dituzte inbertsioetarako

## Zenbait egitasmo, kopurutan

| | KOPURUA EUROTAN |
|---|---|
| Udal jardunerako | 41,1 milioi |
| Zerrajerako lurrak urbanizatzeko | 2'1 milioi |
| Abaroa berria | 1,6 milioi |
| Iturbide egoitza | 750.000 |
| Herritarren Parte Hartze Alorra | 50.000 |

ITURRIA: ARRASATEKO UDALA

**ELKARTASUNA**

# Ankurreko umezurtz etxea, berbagai

Indiako umezurtz etxe horren gainekoak azaltzeko hitzaldiak izango dira

**U.M.** > ARRASATE

Arrasateko gobernuz kanpoko Harreman erakundeak urteak daramatza Ankurren (Bombay, India) dagoen umezurtz etxe batekin lanean, hara laguntza ekonomikoa bideratzen.

Bada, umezurtz etxe horren gainean jardungo dute Arrasaten eta Aramaion datorren astean.

Horretarako, hizlari berezi bat ekarriko du Harremanek: 35 urtez laguntza humanitarioa egiten dabilen Primi Vela Goikoetxea moja.

Santa Anako Karitateko kongregazioko kidea da hura eta, besteak beste, azken urteotan, Ankurreko umezurtz etxeko zuzendaria da.

**ESKOLETAN ERE BAI**

Primi Velak astelehenean, urtarrilaren 14an, egingo du lehenengo hitzaldia. Kulturaten egin dute hitzordua, 19:00etan. Ankurreko umezurtz-etxearen gainean berba egiteaz gainera, umeen bazterkeriaren gainean eta globalizazioak Indian izan duen eraginaren gainean ere jardungo du moja horrek.

Horrez gainera, Harremanekin kolaboratzen duten ikastetxeetan (Arrasateko Arizmendi ikastolan eta Aramaioko San Martin Herri Eskolan) ere egingo ditu hitzaldiak Indian bizi den mojak, datorren astean.

URONDO
Elektrizitatea

* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

**LITERATURA** > SOLASALDIAK

# Bibliotekaren neguko literatura solasaldiak hastear daude

Antolatzaileak gustura dira udazkeneko solasaldiek izan duten harrerarekin

A. ARANBURUZABALA > ARRASATE
Urrian hasi ziren Arrasateko Udal Bibliotekak antolatzen dituen literatura solasaldiak. Hiruna liburu irakurri eta aztertu dituzte gaztelaniaz eta euskaraz diren hileroko hitzorduetan. Antolatzaileak gustura dira orain artekoek izan duten harrerarekin, parte-hartzaileen kopuruari eta mamiari dagokienez.

**NEGUKOAK HASTEAR**
Ekaina bitarteko iraupena izango duten solasaldien bigarren txanpa hastear dago. Orain arte moduan, Rikardo Arregik gidatuko ditu gaztelaniazkoak, eta Iban Zalduak, euskarazkoak.

Urtarrilaren amaieran aztertuko dituzte, bada, urteko lehenengo bi liburuak: gaztelaniazko taldean, Stefan Zweig idazlearen *La impaciencia del corazón,* eta euskarazkoan, berriz, Mark Haddon-en *Txakurrari gauean gertatutako istripu bitxia.* Otsailerako, ostera, Apuleyoren *El asno de oro* aukeratu dute gaztelaniazko taldearentzako, eta Arantxa Urretabizkaiaren *Koaderno gorria,* euskarazko taldearentzako. Urretabizkaia solasaldian izan dadin saiatuko direla adierazi dute antolatzaileek.

*Diario de una buena vecina* eta *1984* liburuek osatuko dute neguko solasaldietako programa.

**TALDEAK ITXITA**
Ikasturte hasieran, izan zen aipatutako solasaldietan parte hartzeko izenematea; beraz, dagoeneko taldeak itxita daudela adierazi dute antolatzaileek. Hala ere, norbaitek parte hartzeko interesa izanez gero, informazio gehiagoren bila bibliotekara hurbiltzeko gonbidapena egin dute.

60 lagunetik gora daude gaztelaniazko solasaldietan; hori dela-eta, bi taldetan banatuta daude. Euskarazkoan, berriz, 25 lagunek hartzen dute parte.

LANDUKO DITUZTEN LIBURUAK

**> EUSKARAZKO SOLASALDIAK**
**Urtarrilak 29.**
*Txakurrari gauean gertatutako istripu bitxia*
Mark Haddon.
**Otsailak 26.**
*Koaderno gorria*
Arantxa Urretabizkaia.
**Apirilak 1.**
*1984*
George Orwell.

**> GAZTELANIAZKO SOLASALDIAK**
**Urtarrilak 30 eta 31.**
*La impaciencia del corazón*
Stefan Zweig.
**Otsailak 19 eta 26.**
*El asno de oro*
Apuleyo.
**Apirilak 1 eta 8.**
*Diario de una buena vecina*
Doris M.Lessing.



AZKEN EMANALDIA Doke antzerki taldeak abenduaren 29an Aramaion egin zuen emanaldia. EKAIN VELEZ DE MENDIZABAL

**ANTZERKIA** > BALORAZIOA

# Doke antzerki taldea, gustura egindakoarekin

Guztira, bederatzi emanaldi egin dituzte, izan ere, 2006. urtean egindako hiru emanaldiak motz geratuta, 2007an beste sei egin dituzte

A. ARANBURUZABALA> ARRASATE
Bigarren urtez aritu da Arrasateko Doke antzerki taldea XVIII. mendeko Pedro Ignacio de Barrutiaren *Actto para la Noche Buena* obra Euskal Herriko agertokietan antzezten. Abenduaren 29an, emozioz utzi zuten Aramaioko agertokia.

Taldea gustura da lanak izan duen harrerarekin, egindako ahaleginek aurreikusi gabeko arakasta eman diete-eta.

**TALDE AMATEURRA**
Doke antzerki taldeko lehendakari Maria Asun Pagoagaren hitzetan, "taldearendako erronka handia izan da Barrutiaren lana antzeztea: baliabide urriak genituen, antzerkigintzan esperientzia laburra; antzezlanak, zailtasunak asko..." Adituek egindako kritika eta komunikabideetan izandako oihartzuna oinarri hartuta, ahaleginak merezi izan duela erakutsi die.

Guztira, bederatzi emanaldi egin dituzte; besteak beste, Iruñeko Nafarroako Antzerki Eskolaren antzokian eta Donostiako Antzoki Zaharreko emanaldiak aipatu ditu Pagoagak: "Oso publiko ezberdinaren aurrean antzeztu dugu lana, eta horregatik oso gustura gaude; izan ere, Barrutiaren lana gizarteratu egin dugu eta, era berean, XVIII. mendeko obra bat gaurkotzea lortu dugu". Antzokiez gain, telebistan eta sarean ere erakutsi dute obra.

Hurrengo lana zein izango den guztiz zehazteke duten arren, eta entsegu lokal egokirik ez badute ere, asmo berri ugari dituztela adierazi du Pagoagak.

**INAUTERIAK** > LEHIAKETA

# Urtarrilaren 17an amaitzen da Inauterietako kartelak aurkezteko epea

Lanak informatika euskarrian edo paperean aurkeztuko dira BAZen, egilearen datuak dituen gutun-azal itxiarekin batera

A. ARANBURUZABALA > ARRASATE
Inauterietako kartela aukeratzeko lehiaketarako lanak urtarrilaren 17ko 19:00ak baino lehen aurkeztu behar dira Biztanleen Arreta Zerbitzuan. Lanak bi modutan aurkezteko aukera izango da: informatika euskarrian (pen drivean edo CDan) edo DIN-A3 tamainako paperean inprimatuta. Era berean, egilearen nortasuna azaldu gabe eta atzealdean lelo bat duela aurkeztu behar dira kartelak. Horrekin batera, gutun-azal itxi batean lelo bera eta egilearen datuak adierazi beharko dira. Edozein pertsonak du lehiaketan parte hartzeko aukera.

**KARTELAREN EZAUGARRIAK**
Kartelen neurriak 50x70 zentimetrokoa izan behar du eta nahitaez bertikala izan behar du. Kartelak egiteko teknika librea da, baina, era berean, hainbat ezaugarri jaso behar ditu: batetik, jai horren ezaugarriren bat eta, bestetik, *2008 inauteriak Arrasate* testua.

Behin lanak jaso eta epaimahaiak aztertu ondoren, irabazleak 400 euroko saria jasoko du. Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da, eta saririk ez emateko aukera izango dute.

Saritzen den lana Udalaren esku geratuko da eta hura kaleratzeko eskubidea izango du. Antolatzaileek egoki ikusiz gero, aurkeztutako kartelekin erakusketa egingo dute. Saritu gabe geratu diren lanak, erakusketa eginez gero, azkeneko egunetik 30 eguneko epean jaso ahal izango dira.

Lehiaketarako oinarriak eskuratu nahi dituenak *www.arrasate-mondragon.org* helbidean du aukera.

ad Ibabe
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

ITURRIETA
sagardotegia
Arraga auzoa - ARAMAIO - Tel.: 945 44 53 85 • 605-70 64 51
Eguenetik domekara zabalik
(beste egunetan enkarguz)



Urtarrilaren 19 zapatua, 19.30ean,
trikitilari, txalapartari eta bertsolariek alaitutako jai giroan 2008ko sagardotegi denboraldiari hasiera emango diogu.

Urteko lehen txotxa AHT GELDITU! elkarlaneko kide diren
Asier Agirreren eta Mila Elortzaren (Aramaixo eta Angiozarko alkateak) eskutik izango da.

AZKEN DENBORALDIA!

Afariak 21.00etatik aurrera.

*Gonbidatuta zaude!*

Sagardotegi menuak • Menu bereziak • Karta espezialitateak: Arraina eta okela txingarretan erreta

Zure proiektuak diseinatu eta eraikitzen ditugu.
Fatxadak eta teilatuak.

GOERA
eraikuntzak S.L.
barne-berritzeak
gremioen koordinazioa
igeltserotza • enkofratuak
Udalpe kalea 12, behea • 20500 ARRASATE
Telefono eta faxa: 943 03 87 64 • Telefono mugikorra: 615 75 11 47
e-posta: construccionesgoera@gmail.com

**MENDIA**

## Besaidek gertu ditu urtarrileko irteerak

**X.U.** > ARRASATE

Besaide Mendi Elkarteak bi irteera antolatu ditu urtarrilerako. Oraingoa zapatuan Trabakuatik Arratera egingo dute oinez, Urkotik eta Kalamuatik igarota. Eta, urtarrilaren 19ko eta 20 asteburuko mendiko eski irteera antolatu dute.

**IKASTAROA IZANGO DA**

Asteburu horretarako antolatu duten irteera mendiko eskiko ikastaroa egiteko izango da. Hala, Portalet etaAstun inguruan egingo dute ikastaroa, eta urtarrilaren 14a eta 15a dira izena emateko egunak (19:30etik 20:30era). Beharrezkoa da federatua egotea.

> ZIKLOTURISMOA

### Abian da zikloturisten lizentziak berritzeko kanpaina

Urtero moduan, Debagoiena Zikloturista Taldeak abian jarri du 2008rako lizentziak berritzeko eta lizentzia berriak egiteko kanpaina. Horretarako, interesatuek klubak duen egoitzara joan baino ez dute: Ignazio Zuloaga 1, behea, Arrasate. Urtarrileko zapatu guztietan izango dira han, 11:00etatik 13:00etara.

**SASKIBALOIA** > LEHENENGO MAILA

# Ointxeko jarraitzaileek hitzordu bikoitza izango dute zapatu arratsaldean Iturripen

18:00etan lehen mailako Mondragon Unibertsitateak Tabirako Baqueren aurrean estreinatuko du urtea; lehenago, kadeteek jokatuko dute

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Ointxe! klubeko jarraitzaileek hitzordu bikoitza izango dute bihar arratsaldean. Aurreratu moduan, talde nagusiak Tabirako talde bizkaitarra hartuko du 18:00etan.

Lehenago (16:00), kadete mailakoek Euskal Ligara igotzeko bideari ekingo diote. Hala, klubeko gaztetxoek finalerdietako joaneko partidua jokatuko dute Iturripen, Azpeitiko Caldereria Zaher taldearen kontra. Ligan, azpeitiarrak gehiago izan ziren (67-69), baina ordutik zuri-moreak asko indartu dira –9 partidu irabazi dituzte jarraian–. Kanporaketa Azpeitian erabakiko da, horrenbestez, ezinbestekoa da bihar aldeko emaitza eskuratzea.



**ALARTZIA** MUko jokalaria Cafes Aitonako kontrarioaren aurrean, abenduan. J.A.

**URTEA ONDO HASTEA HELBURU**

Joan den urtea horren ondo amaitu zuen Mondragon Unibertsitateak, bestalde, 18:00etan jokatuko du Tabirakoren kontra. Joaneko partiduan, bi talde horiek lehia borrokatua izan zuten. Tentsio handiz jokatutako norgehiagoka izan zen, beroa, gogor jokatutakoa. Orduan, nahiz eta markagailuan atzetik hasi MUk partidua irabazi zuen (77-89), eta bizkaitarrak errebantxa gogoz etorriko dira, seguru.

Iñaki Merinoren mutilek, baina, amaitu moduan gura dute urtea hasi, ahalik eta hutsegite gutxien eginda. Izan ere, oraingo emaitzek zeresan handia izango dute EBAra igotzeko hurrengo ligaxkan. Ez ahaztu, baina, biharko kontrarioa ligako gogorrenetakoa dela, bigarren daudela sailkatuta, alegia.

## futbitoa zaldibar

**PARTIDUAK**

| Urtarrilak 12, zapatua | Epaileak |
|---|---|
| **10:00** Lasagabaster-Total Disaster | **Equs** |
| **11:00** Bar Kokots-Equs | **Total Disaster** |
| **12:00** McAwen Dauen-AT Celaya | **Cipris** |
| **13:00** Cipris-Ekaitz Taberna | **McAwen Da.** |
| **16:00** Dribling-HLB 108 | **Iturriotz** |
| **17:00** Iturriotz Tab.-Kalapatxak | **Dublin** |
| **18:00** Aboka.-Dublin Irish Pub | **Kalapatxak** |

| Urtarrilak 13, domeka | Epaileak |
|---|---|
| **11:00** Saukelu Abian-Cicatrus | **Iluntz** |
| **12:00** Iriztu Tab.-Iluntz | **Cicatrus** |
| **13:00** Betrayer-THC | **Iriztu Taberna** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | McAwen Dauen | 18 | 6 |
| **2.** | Betrayer | 13 | 6 |
| **3.** | Dribling | 12 | 6 |
| **4.** | Cipris | 12 | 6 |
| **5.** | Ekaitz Taberna | 12 | 6 |
| **6.** | Iriztu Taberna | 11 | 6 |
| **7.** | Dublin Irish Pub | 10 | 6 |
| **8.** | Kalapatxak | 10 | 6 |
| **9.** | Lasagabaster | 9 | 6 |
| **10.** | Saukelu Abian | 9 | 6 |
| **11.** | THC | 9 | 6 |
| **12.** | HLB 108 | 9 | 6 |
| **13.** | Iturriotz Taberna | 7 | 6 |
| **14.** | AT Celaya | 6 | 6 |
| **15.** | Equs | 6 | 6 |
| **16.** | Cicatrus | 6 | 6 |
| **17.** | Abokajarro | 6 | 6 |
| **18.** | Bar Kokots | 6 | 6 |
| **19.** | Iluntz | 5 | 6 |
| **20.** | Total Disaster | 0 | 6 |

### Asteburuan estreinatuko du Zaldibarrek 2008a

Zaldibarko Txapelketak atsedenaldi ederra izan du Gabonetan, eta ikusi egin beharko da taldeek zenbateraino igartzen duten geldialdia. Norgehiagoka bat proposatzearren, zapatuan 13:00etan Ciprisek eta Ekaitz Tabernak jokatuko dutena; 12na puntu dituzte bi talde horiek.

Kukuxumusu
Fenchurch
Beste Bat
Paul Frank
Nirname
2 urtetik aurrerako neurriak.
4U for you
Ordutegia: 10:00-13:00 eta 16:45-20:00.
Astelehenetik larunbatera. Astelehen goizean itxita.
Zerkaosteta 15 • Arrasate • tel.: 943 797693



Nire bidaia hura

Aitor Izarzugaza
Kuban egon zen eztei bidaian > 2007ko uztailean

# "Habanako eta inguruko herrietako jendearen bizipozak txunditu gintuen"

**JASONE ZABALA** > ARRASATE

**Ekainean ezkondu ziren Aitor Izarzugaza eta Igone Basterra arrasatearrak, eta eztei bidaia Kubara egin zuten. Gainera, Aitor Izarzugazaren arreba Kuban egona zen aurrez, eta oso ondo hitz egin zien lurralde hartaz.**

Uztaileko lehen egunetan joan ziren hara 15 egun pasatzera. Egun oso bat behar izan zuten heltzeko, eta, heldu eta berehala, aireportuan bertan, poliziek kontrol zorrotzak egin zizkieten: "Goitik behera begira jarri zitzaizkigun, eta halaxe eman genuen denbora bat", dio Izarzugazak.

Lehenengo bost egunak Habana hiriburuan egin zituzten, eta kaleak eta inguruak bisitatu zituzten. Habanako paisaiak zelai gutxi dauka, eta guztia oso apurtuta dago, Izarzugazaren arabera: "Gezurra badirudi ere, etxe apurtu horietan jendea bizi da". Jatekoari dagokionez, orokorrean, jana ona da: "Goxoena parrillan egindako arraina eta otarraina dira, baina bertan ohikoena *moros y cristianos* deituriko jana da, arroza frijoleekin". "Habanan dagoen plaza, Fidelek hitzaldiak egiten dituena, asko gustatu zitzaigun". Bitxia iruditu zitzaien beste gauza bat autoak izan ziren, orokorrean oso zaharrak zirelako, baina zeharo harrituta geratu ziren "Pesa eta Bizkaibus enpresetako autobus zahar-zaharrak ikusita, hantxe baitzebiltzan jendez beteta".

**HERRIETAKO JENDEA, ATSEGINA**

Habanako kaleetan zehar jende asko dabil. Izarzugazak eta Basterrak hainbat arropa eraman zituzten hangoen artean banatzeko: "Pentsatu genuen beharra izango zutela, eta arropa pila bat eraman genuen, baina Habanan arropa utzi bagenuen ere, egon ginen inguruko herrietan gehiago utzi genuen, beharra ere handiagoa ikusi genuelako. Habanako jendeak dirua eskatzeko ohitura du, inguruko beste herrietan ez bezala".

Habanan egoteaz bat, inguruko beste herri batzuk ere bisitatu zituzten, besteak beste, Viñales eta Pinar del Rio; han, paisaia, Habanan ez bezala, nahiko berdea da, nahiz eta eguraldia hezetasun handikoa eta oso beroa den: "Nahiz eta eguna lainotuta egon, hezetasuna hain zen handia, egun guztia izerditan gindoazen", aipatu digu bikoteak.

Paisaia aldetik ere, ikusgarri eta bitxia iruditu zitzaien Habana hiriburutik Viñales bidean dagoen *triponas* izeneko palmondo mota bat: "Erdiko zurtoina tripa bat balitz bezala zabaltzen zaielako deitzen zaie horrela".


Aitor Izarzugaza eta Igone Basterra.

**"Nahiz eta eguna lainotuta egon, hezetasuna hain zen handia, egun guztia izerditan geunden"**

**"Varadero hotelez beteta dago, herritxoak balira bezala daude antolatuta; turistentzat dago antolatuta"**

Habana eta inguruko herriak ikusi ondoren, Varaderora joan ziren. Hantxe, azken zazpi egunak eman zituzten: "Varadero hotelez beteta dago, herritxoak balira bezala daude antolatuta. Turistentzat dago prestatuta, eta bertakoak direnak hondartzan baldin badaude, adibidez, ezin dira hondarrean zehar ibili, ur ertzean egon behar dute, turistak ez molestatzeko. Hain zuzen, bertakoek duten seguritate sistema bat da hori". Hizkuntza aldetik ez zuen arazorik izan bikoteak, espainolez oso ondo moldatu zirelako, nahiz eta bertakoek ingelesez ere badakiten.

Edozelan ere, Aitor Izarzugazak eta Igone Basterrak handik ekarri duten oroitzapen onena jendea izan da, eta, "inongo dudarik gabe", berriz ere bisitan joango lirateke.



**HABANA** Aitor Izarzugazak eta Igone Basterrak Habanako kaleetan zehar ateratako argazki bat.

bere ustez


Nerea Makazaga

## Publizitatea eta hedabide berriak

Publizitateak kontsumoaren gizartean duen garrantzia aski ezaguna da. Beharrezkoa da iragarleentzat produktu zein marken jaiotze, bizi iraupen eta garapenerako, baina baita komunikabideen finantziazioa bermatzeko ere.

Telebista bidezko publizitateak biztanleen %88,8ra iristeko gaitasuna eskaintzen badu ere, euskarri eraginkorragoen beharrak beste bide berri batzuen bilaketara eramaten jarraitzen gaitu, mezu pertsonalago eta zuzenagoak igorri ahal izateko.Plataforma ezberdinen apustuan, telefono mugikorrak ate bat ireki du.

**"Dohaineko deskargak informazio globalizatua bultzatzen du"**

Pertsonako 1,78 mugikor daukagun une honetan, operadoreek telefono deietan soilik oinarritu den negozioa hedatu eta publizitate merkatura jauzi egin nahi izan dute. Dagoeneko mugikor operadoreak hasi dira "mobile marketing"-az arduratuko diren lantaldeak sortzen, babesean oinarritutako eduki formulak eskaintzen edota formatu berrietarako pilotuak bideratzen.

Dohaineko deskargak informazio globalizatua bultzatzen du. Ausartuko ote da inor bide honetatik gure kultura lokalaren babeslea izaten?




UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

UGARTE
Industria hornidurak
San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943 -71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak
Erakusketa berria
Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

**HIRIGINTZA** > HIRI EREMUAK BIZIBERRITZEKO LANAK

# Pasealekua egingo dute San Antonio eta Martoko artean, erreka ondotik

Aparkalekuak ere egokituko dituzte pasealekuan barrena; Gipuzkoako Foru Aldundiak lanok egiteko 249.000 euro inguru jarriko ditu

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Zumelaga jatetxe parean hasi eta Martokora arteko –Martoko auzoko lehen etxeetaraino– pasealekua egingo dute; guztira, 200 metro inguru. Kamiñeruen orubean eraikitzen dihardute n etxebiziтzen ingurua urbanizatu egin behar dela eta, ingurune guztia txukuntzea erabaki du Udalak. Hala, dirulaguntza eskatu zion Aldundiari, eta baiezkoa jaso du.

Pasealekua errekaren kontra joango da, eta hormigoi inprimatuzko zoladura jarriko diote; gainera, atseden tokiak eta berdeguneak izango ditu. Hau da, eserlekuak jarriko dituzte, pergolak eta baita kale-argi berriak ere. Oinezkoendako gune atsegina izatea nahi dute.



**ERREKA KONTRA** Errepidetik errekarainoko tartean egingo dituzte aparkalekuak eta pasealeku berria. A.A.

Gunearen egokitzapenak tratamendu mistoa izango du; hau da, oinezkoendako pasealekua izateaz gain, aparkalekuak ere egokituko dituzte. Aparkalekuok errepidearen ondoan egingo dituzte, pasealekuaren paralelo, autoak linean aparkatzeko moduan.

**ALDUNDIAREN LAGUNTZA**

Udal iturriek azaldu dutenez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako departamentuak 249.583,36 euroko laguntza eman du, eta diru hori jarri du, hain justu, hiri eta landa eremuak berreskuratzeko eta lehengoratzeko jarraitzen duen politikaren baitan. Asmo horrekin, hain zuzen, Arantza Tapia diputatuak hitzarmena sinatuko du Agurne Barruso alkatearekin epe laburrean.

Dagoeneko lanon aurreproiektua eginda dagoela aurreratu dute udal iturriek, eta proiektua laster jasoko dutela. Horrekin batera, gehitu dute proiektuak zehaztuko duela lanen aurrekontu osoa zein izango den. Hala, litekeena da Udalak diru kopuru bat jarri behar izatea.

**2008AN BUKATUTA**

Udalak aurreratu duenez, 2008 urtearen barruan bukatuta egon beharko dira lanak. Hasiera data zehaztu barik dagoen arren, 4-5 hil iraungo dutela ere esan dute.

**HIRIGINTZA** > SEGURTASUNA

# Mugertza kaleko aparkalekuan segurtasun hesia jarriko dute

Aparkalekua erreka kontran dago, eta bien artean ez dago inongo segurtasun neurririk; hala, auzokoak inoiz norbait jausteko beldur dira

**M.B.** > BERGARA

Mugertzako aparkalekuan segurtasun hesia jarriko du Udalak. Bada denbora auzotarrek segurtasun hesi hori eskatzen dihardutena, eta, duela gutxi, auzotarren beste kexu bat jaso dute Udalean, gunearen segurtasun urria dela eta. Izan ere, aparkalekua erreka kontra dago, eta altuera txikiko maila bat besterik ez dago bien artean. Hala, udal gobernu berriak hesia jartzea erabaki du, autoa han aparkatzen dutenen segurtasuna bermatzeko. 56 metroko hesia jarriko dute eta 30.000 euro inguruko aurrekontua du. Lanon baldintzak esleitu bezain laster jarriko dute hesia, otsail aldera.

Horren harira, aparkalekuko zorua konpontzea eta Mugertza Ibain-Ondorekin lotuko duen oinezkoendako zubia egitea ere eskatu dute auzotarrek. Agurne Barruso alkateak esan du horrek proiektu landuagoa eskatzen duela, baita aurrekontu sendoagoa ere. Hortaz, gaia aztertuko dutela adierazi du.



**MUGERTZA** Autoak erreka kontran aparkatzen dira, eta ez dago hesirik. M.B.


POL-POL
Taberna
943 76 07 78. Bergara

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

KONDE
PANADEROKUA

Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

JAUJA
KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

**HIRIGINTZA** > IBARGARAI

# Astelehenean hasiko dira Arrizuri parkean dagoen adreilu gorriko etxebizitza botatzen

Bizpahiru egun baino ez dituzte behar izango, eta ez du zirkulazioan eragingo



**BOTA ETA GERO** Eraitsi eta gero parkea ixten bukatuko dute. M.B.

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Astelehenean, hilaren 14an, hasiko dira Arrizuri parkean dagoen adreilu gorriko etxea –Arregitarren etxea deritzona– eraisteko lanak.

Udaleko iturrien arabera, bizpahiru egunean botako dute, eta beste horrenbeste beharko dute guztia garbitzeko. Bota eta gero, Arrizuri parkea ixteko lanak bukatuko dituzte –Ramon Maria Lili kalera ematen duen aldean horma bukatuko dute– eta, horrekin batera, hamar bat aparkaleku gehiago egokituko dituzte. Hala, bukatutzat emango dituzte 20. areako urbanizazio lanak.

**PARKEA EGOKITZEKO LANAK**

Arrizuri parkea egokitzeko lanei dagokienez, Agurne Barruso alkateak esan du, berritzeko asmoa duten arren, oraindik proiektua lantzen dihardutela, baina garbi dutela ez dutela aurrera egingo aurreko agintaldiko Udal Gobernuak egindako proiektuarekin: "Florentziako Kartaren irizpideak jarraituko ditugu, parkearen izaera bere horretan mantenduz".




GOIENKARIA

## Mariskadetako irabazleak

Gabonetan egin diren zozketen artean, bi mariskada zozkatu dituzte. Ezker abertzaleak abenduaren 24an egin zuen zozketa, eta saria eskuratu zuen Arrasateko Maitanek, 1.693 zenbakiarekin. Bestalde, abenduaren 31n, Bai Euskal Herriari taldeak ere marisko otarre itzela zozkatu zuen. Zenbaki saritua 1.585 izan zen, eta otarre ederra Joseba Pratek eroan zuen. Irudian, Prat (ezkerretik bigarrena), koadrilako bi lagunekin eta Bai Euskal Herriari taldeko kide batekin.

**AZPIEGITURAK** > KULTURA ARETOAK

# Irailean irekiko dute Zabalotegi, formatu txikiko ikuskizunetarako areto izaerarekin

Urrian hasi zituzten areto zaharra egokitzeko lanak eta, udal arduradunen esanetan, "martxa onean doaz"



**BARRUTIK** Ikusten denez, aretoak lehengo egitura mantenduko du. M.B.

**M.B.** > BERGARA

Bi hilabete eta erdi dira Zabalotegiko aretoa egokitzeko lanak hasi zituztela eta, udal arduradunen esanetan, "martxa onean doaz". Dagoeneko saneamendu berria egin dute, eta baita barruko paretа zaharrak bota eta berriak altxatu ere: "Orain, igeltserotza lanei ekingo diete; pladurrarekin hastekoak dira", esan du Udaleko Obra eta Zerbitzuetako arduradun Xabier Berridik. Urrian hasi zituzten lanak eta, orain arteko abiadurari eutsiz gero, ekainerako amaituta egongo direla uste dute, aurrez ikusita zuten moduan.

Formatu txikiko ikuskizunetarako aretoa izango da –kontzertu txikiak, antzerkia, ipuin kontalariak, zinema ikuskizunak...– eta 120 bat lagunendako lekua izango du. Bestalde, erabakitzeke dago oraindik zinema proiekzioak edo DVD formatukoak egingo dituzten; baita aulkiak egonkorrak izango diren ala ez; dena den, litekeena da kendu eta ipintzekoak izatea, aretoari eman nahi zaion askotariko erabilera kontuan izanda.

> GABONETAKO JOLASPARKEA

### Jolasparkeko berogailuarekin izandako arazoak direla-eta, barkamenak eskatu dituzte

Udaleko Kultura sailak bidalitako oharrean, barkamenak eskatu nahi ditu Gabonetako jolasparkean sortutako eragozpenegatik. Labegaraietan jarri duten jolasparkean berogailua jartzekoak ziren aurten. Hala eta guztiz ere, hiru egunetatik, azkenekoan baino ez du funtzionatu. Udaleko iturrien arabera, "arazo teknikoak" izan dira kausa.

> ELKARTASUNA

### Sahararen aldeko loteriaren zenbakiak itzultze saria jaso du, eta dagoeneko kobra daiteke

Sahararen subiranotasunaren aldeko Bubisher elkarteak aditzera eman du Gabonetarako egin zuten Loteria Nazionalaren 73.441 zenbakiak itzultze saria jaso duela. Hala, kobratu nahi duena Euskadiko Kutxak Fraiskozurin duen egoitzatik pasa daiteke.

Horrez gain, Bubisher elkarteak eskerrak eman nahi dizkie saharar herriaren alde laguntzen jardun duten eta dihardutenherritar guztiei.









KALEJIRA Lehenengo aldia izango da Aratuste-zapatuan kalejira egingo dutena. GOIENKARIA

**ARATUSTEAK** > EKINTZAK

# Aratusteetarako kalejira antolatu du Udalak, giroa pizteko asmoz

Kultura Zerbitzuak mozorro kalejira antolatu du otsailaren 2rako, eta 19:30ean hasiko da; hain zuzen ere, mozorro onena sarituko dute

**JASONE ZABALA**> BERGARA
Aratusteak dagoeneko gertu ditugu: otsailaren 2an, zapatuan, hain zuzen ere. Eta herriko giroa pizteko asmoz, kalejira antolatu du egun horretarako Udaleko Kultura zerbitzuak.

Nagusi eta txiki, mozorroak erakutsi ahal izango dituzte guztiek herriko kaleetan zehar, orain dela urte batzuk askok egiten zuten moduan. Eta, giroa alaitzeko, Añorga aldetik etorritako The Txortain's txaranga elektronikoaren musika soinuak izango dira kalejira horretan zehar. Desfilea 19:30ean hasiko da, eta kalejira erdiko kaleetan zehar ibiliko da.

Izan ere, Aratusteek azken urteetan indarra galdu dute herri askotan, eta baita Bergaran ere. Gaur egun, eta azken urteetan, Aratuste-martitzenean mozorrotu da jende gehien, baina zapatuan mozorrotzeko ohitura hori galdu egin da. Bada, hori berreskuratzeko asmoz antolatu dute ekitaldia.

**TRADIZIOA BERRESKURATU**
Bergarako Kultura teknikari Maider Osak esan digunaren arabera, "urtetik urtera, mozorrotzeko ohitura galdu egin da herrian, eta, Tolosan egiten den antzera, mozorrotzeko ilusio hori pizteko asmoz egiten dugu deialdia". Gainera, esan behar da zapatuan ohikoa dela jende asko hurbiltzea gurera, giro ederra egoten da-eta. Horregatik antolatu du Bergarako Kultura Zerbitzuak ekitaldia.

Horrez gainera, eta urtero egiten den moduan, aurten ere Bedelkarrek, Bergarako dendarien elkarteak, saria emango dio kalejiran parte hartzen duen mozorro onenari, bai talde edo bakarkakoari, eta bide batez jaiak ondoen animatzen dituenari. Irabazleak 160 euro jasoko ditu, Bergarako taberna edo jatetxeren batean gastatzeko.

**PAILAZOAK** > EMANALDIA

# Domekan, pailazoen ikuskizuna pilotalekuan

Udal Pilotalekuan izango da ikuskizuna, domekan, 18:00etan, eta sarrera doan da

**JASONE ZABALA** > BERGARA
Domekan, etzi, Poxpolo, Mokolo eta Konpainia pailazo taldeak emanaldia egingo du Udal Pilotalekuan, 18:00etan. Sarrera doan izango da, eta ordubete iraungo du.

Taldea Tolosa aldeko zortzi gaztek osatzen dute, euren ikuskizunak *Run-run* izena dauka, eta bi zatitan banatzen da: alde batetik, umeentzako bi saio izango dira: lehenengoan, zortzi pailazoak museo baten barrena sartuko dira, eta bertako zaintzailearekin hainbat gorabehera izango dituzte. Bigarrenean, herriko argiketari batekin hainbat abentura bizi izango dituzte.

**BIGARREN ZATIA, GURASOEKIN**
Gurasoek ere parte hartu ahal izango dute ikuskizunaren bigarren zatian. Askotariko esketxak eginez eta abesti eta magiarekin ere gozatuko dute.



PAILAZOAK Domekan izango dira Bergaran. POXPOLO, MOKOLO ETA KONPAINIA

> IKASTAROA

### Bihar jarriko da martxan umeen jolasak eta kantuak ikasi eta ipuinak lantzeko ikastaroa

Bergarako Udaleko Euskara batzordeak umeen jolasak eta kantuak ikasteko eta ipuin kontaketa lantzeko saioak antolatu ditu. Talde bat osatu dute, euskarazkoa, eta zapatu goizetan izango da ikastaroa. Ikastaro horrek 14 ordu izango ditu, eta bihar izango du hasiera, 10:00etatik 12:00etara arte. Saioak Udal Euskaltegian (Zabalotegi kalea, 13) emango dira.

> ZINEMA

### Gaztetxean antolatu duten zineklubeko oraingo filmaren izenburua 'Leolo' da

Bergaran dagoen zinema emanaldien hutsunea betetzeko asmoz, domeka arratsaldeetan gaztetxean filmak emango dituzte. Bi hilean behin kartel bat kaleratuko dute emango diren filmekin. Urtarril eta otsailean emango dituzten filmetan, haurtzarotik zahartzarora arteko bizi aro desberdinei buruzko ikuspegiak azalduko dituzte. Emanaldiak 18:00etan izango dira. Etziko (domeka) filmaren izena *Leolo* da.

GOIERRI
AUTO GIDARIEN ESKOLA
Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu
Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala
Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

BEHEKO
TABERNA
Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

((112))
SOS DEIAK

# ABY KEM

## DANBAKA LEHIAKETAKO II. EDIZIOKO IRABAZLEA

## DISKO BERRIA ZURE ESKU




CDa: **10 euro**

Asteleheneko Goienkariako harpideduna bazara: **8 euro**

**Eskaera egiteko deitu:** 943 25 05 05 telefonora.
**Ordutegia:** 9:30-13:30 eta 15:00-18:30 edo bidali **e-posta:** *idazkaritza@goiena.com* helbidera.

Nahi baduzu, 3 euroren truke, etxera eramango dizugu.

FUTBOLA

# Bergara, berriro etxetik kanpora

**X.U.** > BERGARA

Oriokoren zelaitik puntu bat ekarrita, Bergarak etxetik kanpora jokatu beharko du oraingo asteburuan ere. Hiru puntuen bila Oiartzunera egingo dute bidaia Manu Diazen mutilek.

**BTLS, OSO ONDO**

BTLSko gizonezkoen eta emakumezkoen taldeak neurria ematen ari dira. Gizonezkoak, matematikoki, dagoeneko sailkatuta daude igoera faserako eta emakumezkoak dagoeneko igoera fasean daude murgilduta. Horren harira, nesken taldeak hitzordu garrantzitsua izango du domekan, Zarautzen.

> SASKIBALOIA

## Donostian jokatuko du Candyk, bihar, 20:00etan

Bergarako senior mailako saskibaloi taldeak bihar arratsaldean jokatuko du 13. jardunaldian. Donostian, Coaatg taldea izango dute zain. Hala, azaroaren 11 ezkero Bergarako taldeak ez du partidurik irabazi. Orduan, mahoneroek tarte txikiarekin hartu zuten mendean Kevian Sport taldea.

> ZIKLOTURISMOA

## Abian da zikloturisten lizentziak berritzeko kanpaina

Bergarako Zikloturista Taldeak abian jarri du 2008ko lizentziak berritzeko kanpaina. Horretarako, Kutxako 21010070810006752612 kontu korrontean 92 euro sartu eta ordainagiria I-2 edo Igartua bizikleta dendetan entregatu behar da. Otsailaren 29a da lizentziak berritzeko azken eguna.



**TITIN BERGARAN** 2005ean. Orduan Titinek, Martinez de Eulatek, Martinez de Irujok eta Apeztetxeak jokatu zuten. J.A.

**PILOTA** > BERGARAKO UDAL PILOTALEKUA

# 2008rako ez dago pilota jaialdirik aurreikusita

Azken bi urteotan Aspek eta Bergarako Udalak hitzarmena izan dute, baina aurten ez; Erregetako jaialdia ere ez dute Bergaran egin

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Puntako pilota jaialdi barik geratu da Bergarako Udal Pilotalekua. Gozoki barik geratu dira Bergarako –eta ibarreko– pilotazale asko, txapelketa nagusietako partiduak ez dituztelako herriko pilotalekuan ikusten –nahiz eta amateur mailan Gipuzkoako pilotaleku erabilitakoenetako bat den–.

Are eta gehiago, dagoeneko ohitura zen Erregetan Aspek Bergaran pilota jaialdia antolatzea, baina Eibarko enpresak Astelena pilotalekuan antolatu zuen hori: "Ez dute hitza bete", adierazi du azken bi urteotan Asperekin hitzarmena adostu zuen Vitoriano Gallastegik: "Herritar moduan oso haserre nago, Patxi Mutiloak eta biok adostu egin genuelako Erregetako jaialdiak Bergaran jokatuko zituztela, eta Aspek ez du bere hitza bete". Adostasun hura publiko egin zuten, baina ez zuten kontraturik sinatu, eta asmo onak haizeak eramaten dituela geratu da, beste behin, bistan.

**300 PARTIDU**

1998an sortu zuten Aspe pilota enpresa, eta ordutik hona enpresa horrek antolatutako 300 partidu jokatu dituzte Bergaran –130 jaialdi inguru–. Hala, Asperekin baino lehenago Asegarcerekin izan zuen Bergarako Udalak hitzarmena, bi urtez.

Hitzarmenak, baina, urte batetik bestera oso aldakorrak izan dira, kirol horrek izan duen eboluzioaren antzera. Hasieran, Udalak berak dirua jasotzen zuen enpresaren eskutik, pilotalekua jaialdi baterako alokatzearren –jaialdiko lehengo 200.000 pezeta–. 2006an Aspek eta Udalak egin zuten hitzarmenean, berriz, Udalak 18.000 euro eman zizkion Asperi, 15 jaialdiren truke –ordurako udalek dirua jaso beharrean ordaindu egiten zuten–.

Urte hartan Aspek 15 jaialdi bakarrik ez, guztira 30 antolatu zituen Bergaran –gainontzekoengatik Udalak ez zuen dirurik ordaindu–. Eta, 2007an ere beste 15 jaialditarako hitzarmena sinatu zuten, eta orduan ere Udalak ez zuen ezer ordaindu –iaz 18 jaialdi egin zituzten guztira–. Kontua da 2007ko erdialdean Astelena pilotalekua ireki zutenetik Bergaran ez dutela jaialdirik antolatu, eta 2008rako ere ez dagoela pilota jaialdirik aurreikusita.

**"BATZARRA EGITEKO GERTU"**

Aspeko ordezkariak, baina, prest agertu dira Bergarako Udalarekin hitzarmen bat adosteko: "Udaleko ordezkariekin egon gura dugu. Batzarra egin eta aurtengo urterako jaialdi kopuru bat zehazteko", adierazi du prentsa arduradun Ibon Arakistainek.

## labegaraieta

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| CM Errotagain-Carboneros | **6-2** |
| Deportivo Oriente-K.Piperrak | **4-12** |
| Niu Tim-Irubide | **3-0** |
| Tiki-Taka-Hamaika Jintxi | **3-6** |
| Los Blus-El Mapet | **3-0** |
| Irish Pub-Belengua | **Atzeratua** |

**PARTIDUAK**

| **Urtarrilak 12, zapatua, barruan** | **Epaileak** |
|---|---|
| **16:00** Tiki-Taka-El Mapet | **Niu Tim** |
| **17:00** Niu Tim-Belengua | **El Mapet** |

| **Urtarrilak 13, domeka, barruan** | **Epaileak** |
|---|---|
| **16:00** CM Errotagain-Irubide | **Irish Pub** |
| **17:00** Irish Pub-Carboneros | **Irubide** |
| **18:00** Irish Pub-Belengua | **Hamaika Jintxi** |
| **19:00** Deportivo Ori.-Hamaika | **K.Piperrak** |
| **20:00** Los Blus-K.Piperrak | **Deportivo Orie.** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | CM Errotagain | 24 | 9 |
| **2.** | Komando Piperrak | 21 | 9 |
| **3.** | Irish Pub | 19 | 9 |
| **4.** | Los Blus | 19 | 9 |
| **5.** | Carboneros | 18 | 9 |
| **6.** | Niu Tim | 15 | 9 |
| **7.** | Tiki-Taka | 13 | 9 |
| **8.** | Belengua | 11 | 9 |
| **9.** | Hamaika Jintxi | 4 | 9 |
| **10.** | Irubide | 3 | 9 |
| **11.** | El Mapet | 0 | 9 |
| **12.** | Deportivo Oriente | 0 | 9 |

### Antolatzaileek zorrotz hasi dute urtea, hainbat abisu emanda

Txapelketak behar den moduan jarrai dezan, antolatzaileek zorrotz hasi dute urtea. Gogorarazi dutenez, txapelketan izena emateko jokalari bakoitzak NAren fotokopia aurkeztu behar zuen. Hala, badirudi oraindik jokalari asko daudela hori bete ez dutenak, eta antolatzaileek gogorarazi gura dute urtarrilaren 31 dela fotokopia horiek entregatzeko azken eguna. Hori egiten ez duen jokalariak ez du txapelketan jarraituko.

Horrekin batera, 2007ko azken jardunaldian Irubide eta El Mapet taldeak ez ziren partidua jokatzera aurkeztu. Hori dela-eta, bi talde horiek hiru puntu gutxiago dituzte eta horrelakorik berriro gertatzen bada txapelketatik kanpo geratuko dira.

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.
Era guztietako lanak / Moketa eta sintasola / Iztuku esponjatua
Paper pintatuak / Harea zorrotada / Iztuku faltsua
Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia
Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

Mujika
gozotegia
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

mingainari tiraka

**Joseba Lamariano** > Ogizuneko okina

# "Batzuek urte osoan egiten dute erroskoa"

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

**Joseba Lamariano antzuolarra da, baina Bergaran egiten du lan, Ogizun okindegikoa baita. Joan den astean, ohi baino lan handiagoa izan zuen, Errege Eguneko errosko piloa egin behar izan zituen-eta. Eguneroko lana ere ez da makala, eta horretaz guztiaz hitz egin dugu harekin.**



**Ogia egitea duzu ogibide. Familiatik datorkizu hori?**

Bai. Etxean, errotan, okindegia geneukan, eta ni ere okin egin nintzen. Sukaldari ere izandakoa naiz, urte askoan, baina, tira, orain okindegia daukagu.

**Okin izateak zer du hortzikatzeko gogorrena?**

Ordutegia: 01:00etan jaikitzen naiz, eta bazkalostean oheratu. Guk arratsaldez egiten dugu lo. Bestela, ez da lan txarra.

**Gustura zabiltza, hortaz?**

Bai, bai; eskulana da, eta entretenigarria ere bada. Gainera, lantalde handia gara: lantegian hiru ibiltzen gara; gero, bi banatzaile etortzen dira; dendan beste hiru bat lagun, gutxienez, ibiltzen dira…

**Errege Eguna izan zen joan den domekan. Zenbat errosko egin zenituen?**

Hirurehun bat bai, gehiago izan ez baziren. Neuk ez, baina okin batzuek urte osoan egiten dute erroskoa.

**Eta jateko, ze ogi mota gustatzen zaizu?**

Txapata jaten dut gustura.

**Orain, askok argaldu egin nahi dute, eta batzuek ogia kenduko dute…**

Aitak esaten zuen ogi asko jaten zen sasoian sekula baino lodi gutxiago egoten zela. Ogiak ez du gizentzen.

**Ume askok litxarreriak jaten dituzte meriendatzeko… Zer diozu?**

Ogitartekoa dela onena. Dena den, okindegian eginiko gozokiek ez dute horrenbesteko koipefik, ez dute askorik gizentzen.

argazki zaharra



## 1963. urteko kintoak

Irudikoak 1963. urteko kintoak dira. Argazkia San Pedro parrokiako sarreran aterata dago. Hauek dira bertan agertzen direnak, behetik gora eta ezkerretik eskumara: lehenengo ilaran, Doroteo Paris, ezezaguna, Vicente Gartzia, Julian Etxeberria, Jose M. Ugarte, Antonio Agirrebeña, Jesus Ansola eta Jesus Ziarsolo. Bigarren ilaran: Nikomedes Larrañaga, Juan Olasolo, Jesus Urbina, Fernando Markina, Jabier Mendizabal, Emilio Gutierrez, Ruperto Vicente eta Urisabel. Hirugarren ilaran: Luis Elortza, Barrera, Manuel Gauna, Felix Dominguez, Juan C. Mendizabal, Fernando Landa, Jesus G. de Segura eta Diego Tena. Laugarren ilaran: Juan M. Ruiz de Egino, Felix Jimenez, Pablo Viciola, Felix Biain, Iñaki Ostoloza, Enrike Ramirez de Alda eta Matias Mendez. Bosgarren ilaran:Jabier Lizarralde, Jose R. Muxika, Jabier Beistegi, Xabier Amenabar, Alejandro Arroyo, ezezaguna, Jesus Maria Larrañaga, Dionisio Zubizarreta, Jabier Gabilondo eta Marcos Gabilondo.

**Argazkia:** Enrike Ramirez de Alda. **Testua:** Jasone Zabala **Urtea:**1963. urtea.

bere ustez



Andres Osa

## 'Kalaka', Zapatero eta Rajoy

Batzuetan hitz gutxi behar izaten dira egia borobilak bezain gordinak plazaratzeko. Aurreko batean, ETBko *Kalaka* saioa izan zen horren lekuko. Neuk zuzenean ez nuen ikusi; izan ere, utzita dut ikusteari, beti pertsonaia berberak eta jardun berbera, bariazio txikiak tarteko, salbuespenak salbuespen.

Hauteskundeak gainean direla eta, horretaz mintzatzeko aukera izan zuten. Halako batean, Marcos filosofoak nori botatu, Zapaterori edo Rajoyri erabakitzeko proba jarri zuen. Biak zezen-plaza batean sartu eta Gorka Lupiañez durangarrari, atxilotu eta egin ziotena egin ondoren onik ateratzen zenari boto guztiak ematea.

**"Mila hitzaldi baino balio handiagoa izan zuen filosofoaren ateraldi horrek"**

A zelako panorama patetikoa sortu zen solaskideen artean, zuzendaria barne. Mila hitzaldik baino balio handiagoa izan zuen filosofoaren ateraldi horrek, izan ere, bizitzatik bertatik jasotako gertakari beldurgarria izan zen, bestalde ez berria, mahai gainean jarri baitzuen.

Ezker Abertzalearekin hitz egiteari uko egin, eta hilero torturatzaileen nagusiekin zertan biltzen da hemengo jendea? Noizbait argituko digute. Ez dago inongo lotsarik.

C. GARATE
%30eko deskontua
GAI GUZTIETAN
tokiz aldatzeagatik
Bidekurutzeta z/g • BERGARA

GAZTELU
BURDINKI DENDA
Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

Akelarre






Gortinak eta estoreak josteko tailerra

Ordainketa 12 hilabetetan interes barik!

Aurrekontuak konpromiso barik!

Logela eta egongeletarako gortinak
DOAN lantzen ditugu.

3.000 oihal baino gehiago zure eskura!

Mantentze-lan integrala
(etxerik etxe jasotzea, garbitzea, lisatzea eta jartzea)

Errekabarren 1 • Aretxabaleta • Tel.: 943 53 33 40

ZAHARRAK BERRI SAIOA

Aste honetan:

zaharRak BERRI



NOIZ: urtarrilak 16 eta 17

NOR: Ana Mari Kortabarria
eta Jose Mari Larrañaga

GAIA: Erretzearen debekua.

Zure intereseko **elkarrizketak, erreportajeak** eta **tertuliak** batzen dituen programa berria daukazu **GOITBn**

EGUAZTENETAN 20:15ean
EGUENETAN 13:15ean

Kutxako Urrezko Zerbitzuko kide bazara,
SARIAK IRABAZTEKO AUKERA!
Deitu programan zehar 943 00 08 34 telefonora

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

Babeslea: kutxa URREZKO ZERBITZUA

**EUSKARA** > LORAMENDI

# Ikastaro asko egingo dituzte Loramendin udaberrira bitartean

Euskarazko webguneak ezagutzeko ikastaroa eta Aratusteetan zelan makillatu irakatsiko dute urtarrilean

**M.A**> ARETXABALETA
Loramendi euskara elkarteak udaberrira bitartean antolatu dituen ekitaldien egitaraua kaleratu du. Ikastaroak dira nagusi.

**LAU IKASTARO**
Euskarazko webgune interesgarriak ezagutzeko ikastaroa egingo dute hilaren 15ean, 16an, 22an eta 23an. KZguneko arduradun Aitor Madrid izango dute irakasle, eta eskolak Markole auzoko KZgunean egingo dituzte. Debalde da izenematea eta epea astelehenean, hilak 14, itxiko dute.

Urtarrilaren 24an, ostera, Aratusteetan zelan makillatu irakatsiko dute Gemes edertze aretoko kideek, 18:00etatik 20:00etara. Eta hilaren 28an, Kolonbiako sukaldaritza ezagutzeko aukera izango da, Muru Alde elkartean. Bukatzeko, hilaren 31n, *Gorputzaren musikak* izeneko tailerra egingo dute musikoterapian aditu batekin eta psikologo batekin. Izena Loramendin eman behar da astelehenean hasi eta 24ra bitartean, eta bazkideek 5 euro eta gainerakoek 8 euro ordaindu beharko dute.

Otsailean, ostera, fimo ikastaroa, ardo-dastatzea eta reflexoterapia egingo dituzte.

**IKUS-ENTZUNEZKOAK**
Bestalde, hurrengo egubakoitzean, hilak 18, helduendako ipuin kontaketa eskainiko du Antton Irustak Gurea tabernan, 19:00etan.

Otsailaren 15ean, *Kanika zuri-beltzak* antzezlana egingo du Goaz taldeak, eta otsailaren 21ean, *Apaizac obeto* ikus-entzunezkoa eskainiko du Jon Maiak.



M.A.

**ARATUSTEAK** Koadrilak mozorrotuta iazko Aratuste-domekan.

**LEHIAKETA**

# Aratusteak iragartzeko kartel lehiaketa deitu dute

Urtarrilaren 18an bukatuko da lanak aurkezteko epea, eta irabazleak 300 euro jasoko ditu

**M.A.** > ARETXABALETA
Otsailaren 3an ospatuko ditugun Aratusteak iragartzeko, kartel lehiaketa deitu du Udalak. Edonork parte har dezake eta hilaren 18rako eroan behar dira kultura etxera edo udaletxera. Kartela 50x70 zentimetrokoa izango da eta disketean eroanez gero, DIN A-3koa, eta honako leloa izango du: *Aratusteak, Aretxabaleta 2008*. Gainera, Aratusteetako egitaraua txertatzeko lekua izan behar du. Irabazleak 300 euro jasoko ditu.

**ARATUSTEEI ONGIETORRIA**
Urtarrilaren 26an, zapatua, Aratusteei ongietorria egiteko eguna antolatzen dabiltza koadrilak eta Udala. Azken kontuak lotutakoan jakinaraziko dute.

Aratuste-domekan, IV. Tabernen Arteko Dekorazio Lehiaketa egingo du Loramendi Euskara Elkarteak.

**Karmele Igartua** > Irakaslea

# "Orbainek utzitako arrastoetan geldituta sortu da 'Hitzak orbainetan' poesia bilduma"

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
**Kurtzebarri eskolako irakaslea da eta poesiak idazteko ohitura du. Euskaltzaindiak eta BBK-k antolatutako Felipe Arrese Beitia saria irabazi zuen abenduan, *Hitzak orbainetan* poesia lanagatik.**



Karmele Igartua, *Hitzak orbainetan* lanaren kopia bat esku artean duela. M.A.

***Hitzak orbainetan*; zelakoa da saria irabazi duen lana?**
Ez dira poema solteak, bilduma bat baizik. Orbainek uzten duten arrastoetan gelditu, pentsatu eta hitzetara ekarritakoak dira. Aldi berean, orbain horiek gordetzen duten memoria dago.

**Zelan lotu dituzu poemak?**
Zazpi atal ditu eta, bakoitzaren hasieran, hiztegitik ateratako definizio bat egin dut. Definizio horrek poema bat bestearekin lotzen du. Bestetik, atal bakoitzaren izenburuak *Hitzak orbainetan* izenburuarekin zerikusia dauka.

**Lehiaketan pentsatuta idatzi zenuen ala aurretik eginda zeneukan lana?**
Aurretik lan handi bat neukan eginda, eta lehiaketarako egin nuena izan zen egituratu eta muga jarri. Konturatu nintzen *Hitzak orbainetan* izenburuak batzen zuela idatzita neukana, eta sailetan sartu eta osatu egin nuen. Gero zuzenketa lana etorri zen, garrantzitsua hori ere, eta denboran iraunkortasuna duen poesia aukeratu nuen.

**Ezustekoa izan zen saria eskuratzea?**
Bai. Oso pozik geratu nintzen aurkeztutako lanarekin, baina denbora aurrera zihoan eta ez nuen uste halakorik. Aurkeztutako lanari beste irtenbideren bat emateko zer egin pentsatzen hasita nengoen.

**Badakizu epaimahaikoek zer baloratu duten zure lanean?**
Saria jasotzen izan nintzenean, Euskaltzaindian, nire lanaren aurkezpena egin zuenak hiru hitz erabili zituen: gardentasuna, estetika eta edukia.

**"Batez ere poesia idazteko ohitura dut, narrazioa ere bai, baina beti du ukitu poetikoa"**

**"Lana ekainerako argitaratuko dutela uste dut, eta BBK arduratuko da horretaz"**

**Eta konforme zaude?**
Bai, konforme nago, eta gainera, gustuko dut epaile edo poesia munduan aditua denak hori ikustea nire lanean.

**Publikatu egingo dute lana?**
Bai, BBK arduratuko da horretaz. Pentsatzen dut laster jarriko direla nirekin harremanetan eta ekainerako argitaratuko dutela. Ez du izango zabalkunde handia, baina orain ez nau horrek arduratzen.

**Argi dago idazteko ohitura duzula, batez ere, poesia...**
Bai, narrazioa ere bai, baina beti du ukitu poetikoa. Eskola munduan, antzerkiak ere asko idatzi ditut ikasleekin egiteko, baina nire bidea poesia da.

**Beste inoiz parte hartu duzu lehiaketaren baten?**
Ez, lehenengoa izan da.

**Eta saria jaso duzu; hortaz, aurrera begira, bide horretatik jarraitzeko asmoarekin?**
Bai; sariak ziurtasuna eman dit eta jarraitzeko asmoa dut, nahiz eta ez jakin noraino iritsiko naizen. Hori bai, denbora behar da idazteko, eta idazten zabiltzan heinean, irakurri ere egin behar da; asko ikasten da beste batzuek idatzitakotik. Horregatik, beti dut poesia liburu bat mesanotxean.

Mobiliario Arenaza
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Iber
Loteria
Paper denda
Liburuak
Otalora 2. ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

**KIROLA** > GABONETAKO TXAPELKETAK

# Ume eta helduek jokatutako txapelketetan, giro bikaina

Arrasate, Bergara, Oñati eta Aretxabaletako futbol eskoletako 100 umetik gora elkartu zen

Helduen bederatzi taldek jardun zuten Amaral txapelketako 1.000 euroak lortzeko





**TALDEAK** Goian, Aretxabaletako futbol eskolako hainbat taldekide; eta behean, K23! taldekoak, garaikurra jasotzen. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Hainbat futbol txapelketa jokatu zituzten Ibarra futbol zelaian Gabon egunetan. Giro bikaina izan da guztietan, eta antolatzaileak, UDA eta Goiena Sport, pozik daude emaitzekin.

**FUTBOL ESKOLAK ABIAN**
Iaz arte Peña Zubi txapelketa jokatzen zuten Gabonetan. 22 urtean, hain zuzen, antolatu zuten aipatutako txapelketa, baina aurten, futbol eskolek hartu dute haren lekukoa: "Lehen aldiz antolatu da futbol eskolarteko txapelketa bat, eta oso pozik gaude; futbol eskolarendako bultzada handia izan da", dio UDAko presidente Jokin Antxiak.

Arrasate, Bergara, Oñati eta Aretxabaletako futbol eskoletan dabiltzan 1997 eta 1999 urte artean jaiotako neska-mutikoek jokatu zuten. Askorendako, lehen txapelketa izan zen, eta pozik jardun zuten: "Neska-mutikoen jarrera –aldageletan, epailearekin…– oso ona izan da; eta ikusleak ere gustura egon dira, animatzen eta laguntzen. Entrenatzaileek, orokorrean, ondo ulertu dute txapelketa, eta oreka bila ibili dira denek joka zezaten. Hori bai, talde batzuk selekzioak eginda etorri ziren, eta futbol eskolaren filosofia ez doa hortik", azaldu du Jokin Antxiak.

Aretxabaletarrei dagokienean, hiru taldek jokatu zuten. Horietako bi finalera iritsi ziren, baina biek galdu zuten arrasatearren aurka. Hala ere, talde guztiek jaso zituzten garaikurrak.

**1.000 EUROAK K23!-RENDAKO**
Helduek –16 urtetik gorakoek–, ostera, Amaral txapelketa jokatu zuten; bederatzi taldek, hain zuzen. Norgehiagoka gogorrak jokatu zituzten guztiek, izan ere, 1.000 euro baino gehiago zeuden jokoan. Hori horrela, ikusmin handia sortu zuten partiduek, eta ikusle asko hurreratu zen Ibarra futbol zelaira txapelketak iraundako zazpi egunetan. Finala K23! eta Spat taldeek jokatu zuten, eta hiruna egin zutenez, penaltiak jaurtita erabaki zen txapelduna. 1.000 euroak eta garaikurra K23! taldearendako izan ziren; 500 euro eta garaikurra, Spat-endako; eta 300, Orlyrendako. Bestalde, zortzigarren geratu zen Tiki Takari errebelazio taldearen saria eman zioten.

**KIROLA** > IGERILEKUA

# Igerilekua itxita egon da 17 egunean sabaia konpontzeko, baina dagoeneko zabaldu dute

Sabaia egoera eskasean zegoelako itxi zuten igerilekua, eta abenduaren 18tik urtarrilaren 4ra bitartean iraun dute konpontze lanek

**M.A.** > ARETXABALETA
Joan zen egubakoitzean, urtarrilak 4, zabaldu zuten kirol etxeko igerilekua. Abenduaren 18a ezkero zegoen itxita, sabaia egoera eskasean zuelako, eta konpondu ostean zabaldu dute. Hala ere, kirol etxea zabalik egon da eta gainerako jarduerak ez dituzte eten.

**HEZETASUNA ETA KLOROA**
Hezetasunaren eta igerilekuko urak duen kloroaren erruz zegoen sabaia egoera eskasean. Sabaiko hormigoi armatua herdoiltzen hasita zegoen, eta sabai aizuna, hau da, sabai sostengatzailearen azpitik dagoen sabaia eta klimatizazio hodiak, oso egoera eskasean zeuden. Hori guztia konpontzeko, hormigoiari tratamendu berezia eman diote, eta sabai aizuna eta klimatizazio hodiak kendu egin dituzte. Lanak behar bezala bukatzeko, sabaia margotu dute.

Asier Muxika Kirol zerbitzuko teknikariak aditzera eman digu ez dela sabaiarekin arazoak dituzten lehen aldia: "Lehen, sabai aizunaren zati batzuk berritu genituen, baina arazoa larriagoa zela konturatu ginenean etorri da gainerako guztia".

**PROIEKTUA, MARTXOAN**
Egunetik egunera, arazo gehiago dituzte kirol etxean, eta larriagoak, gainera. Zein egoeratan dagoen ikusi ahal izan zuen Iñaki Galdos Kirol diputatuak azaroan, eta kirol etxe berriaren premia handia dugula jakinarazi zioten zinegotzi eta Kirol eta Hirigintza teknikariek. Hala, behin betiko proiektua martxo inguruan onartu eta lanak lehenbailehen hasi gura dituzte. Hamar milioi euro inguruko aurrekontua izango dute.

**XAKEA**

# Xake eskolak hilaren 17tik aurrera

Eguenetan elkartuko dira, 17:30ean, eta 9 urtetik gorakoei egin diete deialdia

**M.A.** > ARETXABALETA
Xake eskolak egingo dituzte Aretxabaletan, urtarrilaren 17an hasita. Arlutz xake taldeko kide Aitor Alcaidek antolatu ditu eskolok, eta eguenetan egingo ditu, 17:30ean, Iralabarri plazako 6. atartean duten txokoan. Deialdia 9 eta 99 urte arteko guztiei zabaldu die Alcaidek.

**XAKEA EZAGUTARAZI**
Arlutz xake taldeak urte asko daramatza jokatzen, eta azkenak, Euskadiko txapelketako ohorezko mailan. Jokalari bikainak ditu, gainera: Fide maisua da Fran Miguel, eta Alcaide bera bigarren geratu zen Gipuzkoako xake txapelketan, abenduan.

Hala ere, xakea ez da batere ezaguna herrian, eta horren adibide da taldean lau kide bakarrik daudela. Horregatik, asmoa da poliki-poliki xakea ezagutaraztea aretxabaletarren artean eta jokatzeko gogoa sorraraztea. Eta horregatik, hain zuzen, San Migel jaietarako xake txapelketa antolatu zuten.




Deialdiaren kartela. ARLUTZ

> ESKIA

### Eski irteera egingo du Murrukixok aste bukaeran

Mendi eski irteera egingo du Murrukixo MEk aste bukaeran. Hasiberriendako antolatu du, eta materiala errentan hartzeko aukera daukate.

Bestalde, urtero antolatzen duen eski alpetarra egiteko irteera otsailaren 15ean eta 16an egingo du. Izena emateko, martitzenetan, 19:00etatik 20:00etara pasatu behar da Murrukixoren lokaletik.

ZERBITZUAK> APARKALEKU PUBLIKOAK

# Martitzenetik aurrera, lur azpiko parkingak ordaindu egin behar dira

Kalegoienean eta kiroldegian autoa uzteagatik lehen ordu erdia doan izango da; hortaz, 31. minututik aurrera ordaindu beharko da

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI
2007ko urriaren 25eko osoko bilkuran onartutako prezioak indarrean sartuko dira datorren astean. Hortaz, Kalegoieneko eta kiroldegiko lur azpiko aparkalekuak erabiltzeagatik ordaindu egin beharko da martitzenetik, urtarrilaren 15etik aurrera. Guztira, txandakako erabilerarako 172 marradun plaza daude.

**LEHEN ORDU ERDIA, DOAN**
San Migel jaietan zabaldu ziren herrian dauden lur azpiko bi aparkaleku publikoak, eta ordutik hona doanekoak izan dira. Bada, datorren astetik aurrera, lehen ordu erdiak doanekoa izaten jarraituko du; hortaz, 31. minututik aurrera ordaindu egin beharko da. Hala, udalbatzak onartutako tarifen arabera, 31. minututik aurrera, 0,0133 euro ordaindu beharko da. Autoa bost ordu baino gehiagotan utziz gero, minutuko prezioa garestitu egingo da, eta minutuko 0,0167 euro ordaindu beharko da.

**GAUETAN ERE BAI**
Gauetan bi aparkalekuak erabiltzeko aukera ere badago. Hain zuzen, gaueko bederatzietatik goizeko bederatzietara arte autoa uzteagatik, 50 euroko abonamenduak jarri dira herritarren eskura, eta parking publikoetan txartel barik aparkatzen duenari edo ordaindu barik joaten denari 50 euroko isuna jarriko zaio.

Bestalde, bi aparkalekuen funtzionamendua ona dela ziurtatzeko, segurtasun neurriak hartu dira. Hala, bi aparkalekuetako sarrera-irteera kontrolaz gain, beste hainbat neurri hartu dira: autoen matrikulak irakurtzeko sistema eta zaintza kamerak, besteak beste. Kalegoieneko eta kiroldegiko lur azpiko aparkalekuen segurtasuna Udaltzaingoaren ardura izango da aurrerantzean; hartarako, bi parkingak zuntz optikoaren bidez Udaltzaingoaren egoitzarekin lotu dira. Hala ere, sarrerako kontrolak huts egiten badu, txirrina egongo da bertan, larrialdietarako.



**MARRADUNAK** Bi parking publikoetako plazak marradunak dira. GOIENKARIA

## Kiroldegiko plaza itxien zozketa, urtarrilean

Udalak kiroldegiko lur azpiko aparkalekuan dituen hamahiru garaje itxietako bat eskuratzeko zozketan sei herritarren eskaerak jaso dira. Eskatzaileen zerrenda jendaurrean jarriko da hamar egunean, eta alegazioetarako tartea zabalduko da hamar egunez. Epea itxita alegaziorik aurkezten ez bada, zozketa egingo dute, seguruenez, urtarrilean. Udalak 50 urterako utziko ditu garajeok.

Hala ere, saldu barik geratzen diren garajeekin beste deialdi bat egingo du Udalak, eta aparkalekuak eskuratzeko bete beharreko baldintzak aldatu egingo dira, lagun gehiagori aukera ematearren.

## Gabonetako zozketako irabazleak, bisita gidatuan

Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziak eta Turismo Bulegoak elkarrekin antolatutako Gabonetako zozketan, 33 lagunek parte hartu zuten. Lehiaketan egindako galderari zuzen erantzun ziotenen artean, bi pertsonarendako 20 abonamendu eta Gabonetako hiru saski zozketatu zituzten.

Hala, irabazle guztiak urtarrilaren 5ean elkartu ziren bisita gidatua egiteko. Lehenengo, Arrikrutzen egon ziren, eta gero, Oñatiko ondare historikoa ezagutzeko aukera izan zuten.

Horren harira, Turismo Bulegoko arduradunak "pozik" agertu dira lehiaketak izan duen erantzunarekin, eta balorazio "positiboa" egin dute.


TURISMO BULEGOA

> MUSIKA
### Latzenen kontzertua bertan behera geratu da

"Agenda eta arrazoi teknikoak" argudiatuz, bertan behera geratu da Latzenek otsailaren 2an Oñatin eman beharreko kontzertua. Horregatik guztiagatik, taldeko kideek barkamena eskatu dute "sortutako eragozpenengatik".

Hala, Oñatin egin beharreko kontzertuaren ordez, Latzenek Eskoriatzan joko du otsailaren 9an. Oñatiko taldeari lagun egiten, Aby-Kem taldeak joko du. Era berean, Eskoriatzako emanaldia aprobetxatuko dute Infernuko Ateetan Tour biraren DVDa grabatzeko.

> ATERATZEA
### Gaur egingo dute urteko lehen odol-ateratzea

Oñatiko odol emaileen eskutik, gaur egingo dute urteko lehen odol-ateratzea. Hala, aldaketa barik, ateratzea Txantxiku ikastolan egingo dute, 18:00etatik 20:30era.

Halaber, herriko odol emaileen elkarteak gertu du urterako egutegia. Hain zuzen, 2008an hamaika ateratze egingo dituzte: uztail eta abuztuan izan ezik, gainontzeko hilabete guztietan. Otsaileko ateratzea 8an izango da.

> HITZALDIA
### Internetek duen arriskuari buruzko berbaldia, ikastolan

Gurasoendako antolatuta, *Interneten arriskua eta haurren babesa* izeneko hitzaldia iragarri du Txantxiku ikastolak urtarrilaren 16rako. Pantallas Amigas taldeko koordinatzaile Jorge Floresek egingo duen hitzaldia gaztelaniaz izango da eta, bereziki, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen gurasoendako da. Ikastolako aretoan izango da, 18:30ean hasiko da, eta bitartean haurtzaindegi zerbitzua egongo da.

> HITZALDIA
### Familian autoestimua lantzeko hitzaldia

Elkar Hezi ikastetxeak autoestimuaren gaineko hitzaldia iragarri du urtarrilaren 17rako. Jose Amiama psikopedagogoak egingo duen hitzaldia Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen gurasoendako da. *Nola landu autoestimua familian?* izeneko hitzaldia Arantzazuko Ama kaleko ikastetxeko liburutegian izango da, 18:30ean.



**UMEAK PROTAGONISTA** Herriko hainbat ikasle ibiliko dira lizarrak eta haritzak landatzen. Argazkian, iazko edizioko irudi bat. IBARRAUNDI MUSEOA

**INGURUMENA** > ZUHAITZ EGUNA

# Iaz jaiotako guztiengatik zuhaitz bana landatuko dute bihar

42 ume jaio ziren herrian 2007an; bakoitzarendako zuhaitz bana landatuko dute Aingeru Guardan

Guztira, 50 lizar eta 50 haritz landatuko dituzte gurasoek eta herriko ikasle talde batek

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Azken urteotan moduan, asteon, Ibarraundi museoak Zuhaitz Egunaren aldeko ekitaldiak egingo ditu herrian. Aurtengoa bihar, zapatua, egingo dute, goiz partean. Guztira, 50 lizar eta 50 haritz landatuko dituzte. Horien artean, baina, 2007an herrian jaiotako ume bakoitzeko zuhaitz bana landatu beharko dute.

2007an, 42 ume jaio ziren herrian, eta Ibarraundi museoko arduradunak horien guztien gurasoekin harremanetan jarri dira.

**UME BAKOITZEKO ZUHAITZ BANA**

Orokorrean, gurasoek oso ondo hartzen dute ekimena. Izan ere, bitxia da oso ume bakoitzaren izena duen zuhaitza landatzea; eta, hala, helburua da familiek eta herritarrek zuhaitzen eta landaretzaren gaineko ardura izatea.

Zapatuko hitzordua 11:00etan egin dute, Ibarraundi museoan, eta handik Aingeru Guardara joango dira. Antolatzaileek Luis Ezeiza eskolako Lehen Hezkuntzako eta Almen ikastolako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleak gonbidatu dituzte, baita jaioberrien gurasoak ere.

> ERRETIRATUAK

### Olazar erretiratuen elkarteak iazko balantzea egin zuen

Atzo, eguena, Olazar erretiratuen elkarteak batzar orokorra egin zuen kultura etxean, arratsaldean.

Hain zuzen ere, urtea ondo hasteko, iazko jardunaldian egindako ekintzak gainbegiratu zituzten, eta, horrez gain, 2007ko balantze ekonomikoa egin.

Batzar orokorra bukatu ostean, txokolate-jana izan zuten bertaratutakoek.

> BERBALDIA

### Eguenean, Afrikaren gaineko bideo ikuskizuna Inkernun

Eguenean, hilaren 17an, Kenya, Tanzania eta Ugandara egindako bidaia baten gaineko bideo emanaldia egingo dute Inkernu tabernan, 22:30ean. Ainitze Lucero izango da hizlaria.

Horrez gain, astelehenaz geroztik, ikusgai egongo da Afrikako hiru herrialde horien gaineko erakusketa taberna berean. Hilabete osoan egongo da ikusgai.

> ARGITALPENAK

### 'Eskoriatza iruditan' liburuaren 400 bat ale saldu dituzte

Udaleko Kultura sailak jakinarazi digu *Eskoriatza iruditan* liburuaren 400 bat ale saldu dituztela dagoeneko. Liburu hori herriaren gaineko ehun bat argazki zaharrez osatuta dago.

*Eskoriatza iruditan* eskuragai dago, 20 eurotan, Eskoriatzako honako lekuetan: Ibarraundi museoan, Dorleta paper-dendan eta Azkoaga tabako dendan.

**ETXEBIZITZA** > ALOKAIRUA

# Udalak Intxaurtxuetan dituen bi etxebizitza alokatuko ditu

Izenemate epea 10-15 egun barru zabalduko dute, eta interesatuek udaletxera jo beharko dute apuntatzera

**I.B.** > ESKORIATZA

Udalak erabaki du Intxaurtxueta auzoan dituen hiru etxebizitzetatik bi alokagai jartzea.

Etxebizitza horiek alokatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da Etxebiden izena emanda egotea eta etxebizitzarik ez edukitzea, besteak beste.

**UDALETXEAN IZENA EMAN**

Udalaren bi etxebizitza horiek Intxaurtxueta kaleko 26. zenbakian daude.

Interesatuek udaletxera jo beharko dute izena ematera. Laster, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dute erabaki hori. Hortaz, hemendik 10-15 egunera zabalduko du Udalak etxebizitza horiek alokatzeko izenematea.

**BIGARREN DEIALDIA**

Hain zuzen, Udalak etxebizitza horietako bat errentan jarri zuen beharra duten adineko herritarrendako, baina azkenean ez zuen inork hartu. Hori dela-eta erabaki dute errentan jartzea etxe biak.

Oraingoan, berriz, zozketa hori premia duten herritar guztiei zabaldu diete, eta ez adinekoei bakarrik.



**BI ETXEBIZITZA** Argazkian Intxaurtxuetako etxeak. IKER BARANDIARAN



**BERGARAKO LAUKOTEA** Musikari gazte bezain beteranoak dira. FLY SHIT

**MUSIKA** > FLY SHIT TALDEAREN KONTZERTUA EGUBAKOITZEAN

# Fly Shit hardcore taldearen kontzertua Inkernu tabernan

Bergarako taldeak hardcorearen kontzeptua nahiko zabaldu du, eta oso indartsu dago

I.B. > ESKORIATZA
Bergarako Fly Shit taldeak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, Inkernu tabernan, 22:30ean.

Fly Shit taldea 90eko hamarkadan jaio zen Bergaran. Musikari oso gazteek sortu zuten proiektua, RKL talde amerikarraren gerizpean. Hardcore azkarra gitarra doinu nabarmenarekin izan zen taldeak hasieran sortutako emaitza.

### HARDCOREAREN ERREFERENTE

Euren lehenengo lana Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin kaleratu zuten. Baina disko horrek ez zuen taldeak espero zuen zabalkunderik izan.

Taldea hainbat alditan geldi egon da, taldekide batzuk aldatu dituzte-eta. Azken urteotan, baina, Elortzak, Ostolazak, Setienek eta Heloyk osatzen dute.

### ZUZENEKO OSO INDARTSUAK

Orain dela bi urte, *Bizitza... baina nola bizi?* diskoa kaleratu zuten Isiltasuna Apurtzen eta Gratacels ekimenek elkarlanean. Lan horrek oso harrera ona izan du, bai Euskal Herrian eta baita Espainian ere.

Are gehiago, konposizio oso landuekin osatuta dago diskoa, eta hardcorearen kontzeptua zabaldu egin dute. Horrekin lotuta, kontzertu oso indartsuak ematen dituzte.

**EUSKARA** > NORMALIZAZIOA

# Kutxarekin harremanak euskaraz egiteko hitzarmena

Udalak eta Kutxak elkarren arteko harremanak euskaraz izango dituzte hemendik aurrera

I.B. > ESKORIATZA
Urteko azkeneko osoko bilkuran erabaki zuten Kutxak egindako eskaera onartzea. Hain zuzen ere, Udalaren eta Kutxaren arteko harremanak euskaraz egitea.

Izan ere, Udalak begi onez ikusi zuen Kutxaren eskaera; hala nola, euskararen normalizazioan beste pauso bat emateari ondo deritzo.

### EGOITZA NAGUSIA ETA HERRIKOA

Eskoriatzako Udalaren eta Kutxaren arteko harreman guztiak euskaraz egingo dituzte. Horren barruan daude Donostiako egoitza nagusia eta Eskoriatzakoa.

Horrekin lotuta, Kutxak eredu bat prestatuta dauka, eta laster helaraziko dio Udalari. EB-Berdeek izan ezik, guztiek onartu zuten eskaera. Juan Luis Merinok azaldu zuen ez zuela eztabaidatutako testuaren espainolezko itzulpenik jaso, eta horregatik ezin zuela alde bozkatu.

**INGURUMENA** > IKERKETA

# Herriko eraikin publikoen kontsumoa aztertzen dabiltza

Energiaren Euskal Erakundeak eta Udalak egindako hitzarmenaren ondorioz, eraikin publikoen kontsumoa aztertzen dabil EEE

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Energiaren Euskal Erakundeak eta Eskoriatzako Udalak abenduan egindako hitzarmena hasi da lehenengo fruituak ematen.

Hitzarmen horretan adostutakoaren arabera, EEE aztertzen dabil Eskoriatzako eraikin publikoetan eguzki plaka termikoak edo energia sortzekoak jartzeko zer aukera dauden. Hain zuzen ere, jakin gura dute honako eraikinetan bideragarriak diren edo ez: bibliotekan, pilotalekuan, Ibarraundi museoan, kiroldegian, kultura etxean, Luis Ezeiza eskolan eta udaletxean. Horrez gainera, zaharren egoitza ere kontuan hartuko dute.

### UDALAK DATUAK EMAN DIZKIO

EEEk azterketa hori egin ahal izateko, aipatutako eraikinen gaineko hainbat datu eman dizkio Udalak erakunde horri: hala nola, eraikin horien kilowatt gastua, fakturen kostua, kontratatutako potentzia, eraikin bakoitzak daukan metro koadro kopurua, eta abar. Eta, horrez gain, EEEk kontuan hartuko du eraikinok nora orientatuta dauden.

### ENERGIA HIDROELEKTRIKOA

Bestalde, EEEk eta Udalak erabaki dute energia hidroelektrikoa sortzeko aukerak gainbegiratzea. Horretarako, aintzat hartu gura dituzte orain dela 20 edo 30 urte herrian indarrean zeuden ur-jauziak.

Dena dela, Udalak jakinarazi digunez, zaila dirudi energia hidroelektrikoa sortzea. EEEk laster emango ditu aditzera azterketaren emaitzak.



**EGUZKI PLAKAK** Eguzki plakak jarrita daude kiroldegian, baina gehiago jarri gura dituzte. IKER BARANDIARAN



**bere ustez**



Jone Lete

## Urte berrian ezberdina izango ote?

Urte zaharrari agur eta berriari kaixo. Garai honetan gure buruari "hau egingo dut, bestea egingo dut" esaten diogu... Baina gehienetan gauzek lehenean jarraitzen dute. Bai norbanakoari dagozkionek baita gizartekoek ere.

Gizarteari begiratuz, pasa den urte hau nahiko iluna izan da. Urtean zehar arrazoi ezberdinengatik heriotza ugari izan dira.

Errepideetan hildakoak, baita lan istripuak direla medio hil direnak ere.

**"Emakumeak aske izateko eskubide guztia dauka eta egoera hauek salatu egin behar dira"**

Baina gehien kezkatzen nauena genero indarkeriagatik hil den emakume kopurua da.

Emakume naizen aldetik ulergaitza eta onartezina iruditzen zait XXI. mendean gisa honetako indarkeria egotea. Heriotzara iritsi gabe ere tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen arazoa gainditzeko zerbait egin behar dela iruditzen zait.

Arazoa gizarte osoarena da eta guztiok izan behar dugu kontziente. Sarritan esan izan da egoera hau salatzea zaila izaten dela, baina emakumeak aske izateko eskubide guztia dauka eta egoera hauek salatu egin behar dira. Arazoa gaixo dagoen gizartearena da; beraz, guztiona da erantzukizuna.



**MAIRUAREN ALARDEA** Ikerketa soziokulturala aurkeztu dute. GOIENKARIA

**JAIAK** > MAIRUAREN ALARDEA

# Alardeko mairuaren irudia duindu nahi dute

Mairuarendako zaldia, jantzi dotoreagoa, azalaren margoa aldatzea, euskaraz hitz egitea eta eskolta izatea proposatu ditu Eusko Ikaskuntzak

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Eusko Ikaskuntzak eta Antzuolako Udalak Mairuaren Alardearen inguruan elkarlanean egindako ikerketa soziokulturalaren emaitzak aurkeztu zituzten eguenean. Ekitaldian izan ziren Patxi Olabarria, Kultura zinegotzia; Teresa del Valle, Gipuzkoako Eusko Ikaskuntzako presidenteordea; Mairuaren Alardearen Kultur Elkarteko Jose Luis Kortabarria; eta Margaret Bullen eta Xabier Kerexeta, ikerlanaren arduradunak.

Margaret Bullen eta Xabier Kerexetak zuzendu duten lanaren helburua izan da alardearen lehena, oraina eta geroa definitzea. Horretarako, iragana ikertzeaz gain, herritarrei inkesta zabal eta sakonak egin dizkiete. Ondoren, jaia bideratzeko proposamenak egin dituzte.

**ALDAKETARAKO PROPOSAMENAK**

Xabier Kerexetak esan digunez, "Antzuolako alardea ez dago hasieran iruditu zitzaigun bezain gaizki. Herritarren aldetik ez dago jarrera negatiborik; pasiboa da, negatiboa baino gehiago".

Ikerketa egin ostean, argi ikusi dute alardea modernizatzeko, gaur egungo ikuspuntuetara egokitzeko beharra dagoela: "Gure proposamenetan ez dugu aurreikusten ezer kentzea orain dauden elementu koreografiko edo eszenografikoetatik, baina bai aldatzea. Batez ere, mairuaren irudia duindu egin beharko litzateke", dio Kerexetak.

Aldaketa hori egiteko, hainbat proposamen zehatz aurkeztu dituzte: "Mairua astotik zaldira pasatzea, kristauarekin parekatzeko; janzkera dotoreagoa ipintzea, purpura kolorekoa, erregetzarena; azalaren kolore iluna mantentzea, baina ez horren beltza eta zikina. Arropa zuria zikinduz, itxura eskasagoa ematen dio-eta; euskaraz hitz batzuk esatea; eta inguruko lau laguntzaileak bere eskoltakoak izatea".

Bestalde, diskurtsoaren edukia goxoagoa, leunagoa egitea ere proposatzen dute, eta antzezpena ere horren arabera egokitzea; eta koreografiari alaitasuna, bizitasuna ematea.

**BI LANTALDE**

Asmoek aurrera egin dezaten bi lantalde sortzea proposatu du Eusko Ikaskuntzak: historia lantzeko eta aldaketak historiari erreparatuta egiteko, bata; eta bestea, praktikan aldaketak nola egin erabakiko lukeena.

Xabier Kerexetaren esanetan, "oraindik erabakitzeke dago aldaketa guztiak batera ala progresiboki egin behar diren. Hori antzuolarren esku dago". Hortaz, ez dago aurreratzerik aurtengo jaietan Mairuaren Alardean berritasunik izango den ala ez.

> ELKARTASUNA

### Saharara bidaltzeko materiala jasoko du Anelkarrek

Saharen aldeko kanpainarekin bat eginez material bilketa ipini du abian Anelkarrek. Urtarrilaren 9tik 19ra bitartean arroza, lentejak, azukrea, atuna oliotan eta konpresak jasoko dituzte Herri Eskolan, Eroskin eta Kalebarrengo dendan. Horretarako, herritarren laguntza eskatu dute.

> UDALETXEA

### Herritarrendako bulego ordutegi berria dute udaletxean

Udaletxetik jakinarazi digute urte berrian sartzearekin batera bulego ordutegiak aldatu egin dituztela. Orain artean zenbait zerbitzu arratsaldez ere eskaini dituzte, baina aurrerantzean herritarrendako ordutegia 08:00etatik 14:00etara bitartekoa izango da.

> IKASTAROA

### Eskulan ikastaroa izango da martxora bitartean zapatuetan

Urtarrilaren 12anhasita, eskulan ikastaroa izango da, zapaturo, martxoaren 15era bitartean. Goizetan, 09:30etik 11:30era izango dira saioak Olaranen. Beirak margotzen, egurra apaintzen eta liburuak zaharkitzen ikasiko dute, besteak beste. 20 euro ordaindu behar dira parte hartzeko.

> ZOZKETA

### Askatasunaren zozketako zenbaki saritua 657 da

Arantzako landetxe batean bi lagunendako egonaldia jasoko du Askatasunaren zozketako 657 zenbaki sarituaren jabeak. Bestalde, Askatasunak eskerrak eman nahi dizkie laguntza eman duten enpresa, taberna eta dendei eta Olentzerotan parte hartu zuen jendeari.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
•
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga
Zoruen kutxilatu eta bernizatzea
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga
Apainketarako eta industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

bere ustez



Igor Arizmendiarrieta

## UrTe BeRrI On

URTE BERRI ON! Hainbeste errepikatu diren hitzak azken egun hauetan berriz dakartzat atal honetara, hizki handitan gainera. Izan ere, fenomeno bitxi bat gertatzen ari da azkenaldian telebistetan, zehazki telebistetako errotuluetan. Maiuskulak erabiltzeko moduak eman dit atentzioa oraingoan.

Ez dakit moda kontua den, baina duela aspaldit ik ikusi dut telebistetan izen propioak minuskulaz idazteko joera.

**"Ez dakit moda kontua den, baina (...) ikasi dut izen propioak maiuskulaz idatzi behar direla"**

Nik betidanik ikasi dut izen propioak maiuskulaz idatzi behar direla. Baina behin eta berriz agertzen da, telebistetako elkarrizketa eta abarretan, dagokion pertsonaren azpian bere izena minuskulaz. Adibide bezala ETBn *Kalaka*-n Ibarretxeri egin zioten azken elkarrizketan *juan jose ibarretxe* jartzen zuen pantailaren azpiko aldean.

Gerta liteke araua aldatu izana eta ni ezjakin bat izatea. Baina niri min egiten dit begietara. Neurri batean gure hizkuntza pobreagotzen gabiltzala dirudi. Bitartean SMS bezalako hitzak bai, hauek maiuskulaz eta argi eta garbi ikusten dira. Fijatu zaitezte!

((112))
SOS DEIAK



**AUZOLANIAN** Eguarbitza ere auzolanian garbitu zuten martxoan, baina gero eta jende gutxiago batzen da horrelakoetarako. J.A.

**BASERRITARRAK** > HOBI SEPTIKOAK

# Kobratzeko mehatxuak izan zuen eragina

13 lagun elkartu ziren abenduaren 15ean Beizu-Azulako bidea auzolanean garbitzeko, eta inor bidali ez zutenek 10 euro orduko ordaindu beharko dituzte

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Astelehenean, hilaren 7an, egin zuten urteko lehenengo batzarra baserritarren batzordeko kideek.

Beizu-Azulako bidea auzolanean garbitzeko deialdiak izandako erantzunaren balorazioa egin zuten, besteak beste, batzarrean. Lehenengo egunean, abenduaren 1ean, sei auzotar besterik ez ziren elkartu Beizu-Azulako bidea auzolanean garbitzeko. Udalak, orduan, inor bidali ezean, orduko 10 euro kobratuko zituela eman zuen jakitera, ordenantzako 23. artikulua oinarri hartuta.

Neurria eraginkorra izan da. Abenduaren 15eko saioan, 13 lagun elkartu ziren garbiketa lanak auzolanean egiteko. Udalak adierazi du auzolanera inor bidali ez zuten auzotarrei dagokion diru kopurua kobratzen hasiko direla datozen egunotan.

Bestetik, hobi septikoak garbitzeko Udalak egindako deialdiaren ondotik, Elgetako zortzi baserrik eman dute izena. Batzordean adostu da, orain, hiru aurrekontu eskatzea.

**PODOLOGO ZERBITZUA, 24AN**

Hilaren 24an izango da podologoaren kontsulta Elgetan. Interesatuek Nati Arrietari deitu behar diote: 943 76 80 77.

**FUTBOLA**

## Eibartarrak taldea aurrez aurre elgetarrek

Urtea garaipenarekin estreinatu zuten elgetakoek, Zestoari 1-3 irabazita

**L.Z.** > ELGETA

Denboraldi honetan, garesti daude garaipenak Elgetako taldearendako. Aipatzekoa da, horrenbestez, aurreko jardunaldian Zestoari egindako 3-1ekoa.

Asteburu honetan, Eibartarrak taldea izango dute aurrez aurre Elgetakoek. Partidua bihar, zapatua, jokatuko dute, 15:30ean, Unben. Lehenengo itzulian, 0-0 amaitu zen partidua. Txapelketa amaitzeko hiru besterik ez da gelditzen eta elgetarrak azkenaurreko postuan daude.

> INTXORTARA IGOERA

## Domekan egingo dute, 'Atzoko eta gaurko gudarien omenez'

Domekan, hilaren 13an, egingo dute urteroko igoera Intxortara. *Atzoko eta gaurko gudarien omenez* lelopean egingo dute eta antolatzaileek jakinarazi dute salda eta sagardoa banatuko dituztela Intxortan 11:00etan. Ondoren, Elorriora egingo dute. Poteoa eta bazkaria egingo dituzte bertan.

**BIDEAK** > LANAK

## Hobekuntzak egingo dituzte Arantzetako bidegurutzean

Larrabiltzearran, Diputazioak zenbait konponketa egitea ere onartu du

**L.Z.** > ELGETA

Elgetako hiru baserri bidetan hobekuntza lanak egiteko konpromisoa hartu du Diputazioak. Udal ordezkariek bilera bat baino gehiago egin dute Diputazioko teknikariekin, azkena, abenduaren 18an. Bertatik, Larrabiltzearrako bidean zenbait konponketa egiteko konpromisoa ekarri zuten.

Larrabiltzearrako auzotarrak ez zeuden gustura Diputazioak bidean egindako lanekin. Orain, auzoko sarreran eta baserrietarako sarreretan zenbait konponketa egiteko konpromisoa hartu du Diputazioak. Lan horiek laster hastekoak dituzten Karabietako bideko lanekin batera egingo dituztela esan du Aldundiak.

**ARANTZETAKO BIDEGURUTZEA**

Diputazioak, bestetik, Arantzeta auzora sartzeko bidegurutzean abiadura moteltzeko eskatuko duen seinale bat jartzeko konpromisoa hartu du.

Udal ordezkariei ez zaie nahikoa iruditzen, eta bihurgune horretan ikusmena handitzea nahi dute. Hala, aurretik egin zen moduan, lurra kentzeko eskaera egingo dute. Aurretik kendu zen. Gehiago kentzeko eskaera egingo diote orain Diputazioari.




ETOR SARASUA

## Genma Silvanen margoak Espaloian

Genma Silvan margolari zarauztarrak bere lanak jarri ditu asteon ikusgai Espaloia Kafe Antzokian. Hogei koadrotik gora zintzilikatu ditu eta, guztiek batera, *Sensaciones* izeneko erakusketa osatzen dute. Neoespresionismoa aipatzen du Silvanek lanak aurkezteko egin duen idatzian. Erakusketa hilaren 31ra arte egongo da ikusgai antzokian.

**UDALA** > AURREKONTUA

# 2008ko aurrekontuaren partida handiena Ogasun batzordearendako da

Oraingo urtean, 1.772.506 euroko aurrekontua izango du Aramaioko Udalak

Abenduaren 27an egindako osoko bilkuran onartu zuten 2008ko aurrekontua

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO
Aramaioko udalbatzak aho batez onartu zuen, abenduari zegokion osoko bilkuran, 2008rako aurkeztutako aurrekontu proposamena: 1.772.506,73 euro, hain zuzen ere.

Ohikoa den moduan, osoko bilkuran onartu ostean, jendaurrean ipini dute oraingo urteko aurrekontua, alegaziorik balego, haiek hartzeko. Hain justu ere, Arabako aldizkari ofizialean argitaratuta dago, eta 15 egun horietan ezustekorik ez balego, hurrengo osoko bilkuran behin betiko onartuko da aurrekontu proposamen hori.

**OGASUNERA, GEHIEN**
Ogasun batzordera bideratu dute aurten partida handiena (603.807,96 euro). Hortxe kontabilizatzen dituzte Udaleko langile gehienen soldatak, udaletxearen asegurua eta Udalean erabiltzen duten materiala, besteak beste.

Izan ere, azken urteetan Zerbitzuen sailera bideratu da diru gehien, baina kontua da aurten erabaki dutela Udaleko langile guztien soldatak Ogasun batzordearen barruan sartzea. Horrek eragin du Ogasunera bideratzea diru gehien, eta Zerbitzu batzordea bigarren postuan geratzea.

**KAPITULUKA**
Aurrekontua kapituluka aztertuz gero, inbertsioetarako erabiliko dituzte 329.626,39 euro, eta dirulaguntzetarako, berriz, 165.962,32 euro. Alkate, zinegotzi eta Udaleko langileen soldatetan, ez da aldaketarik egon: soldatok ordaintzeko, 305.607,58 euro erabiliko dituzte.

Udalak, bestetik, orain dela urte batzuk kultura etxea eta Oletan lanak egiteko eskatutako mailegua ordaintzen jarraituko du. 61.226,52 euro gastatuko ditu horretan eta aurreikuste du datorren urterako mailegua erabat likidatzea.

**INBERTSIOAK**
Hirigintza batzordeari dagokionez, garai bateko hiltegia zena birgaitzeko proiektura bideratuko dute diru gehien: 72.119,84 euro, hain zuzen ere. Bestetik, herrian zenbait errepide eta bide konponduko dituzte, Gureia auzoan eta Ibarrako kaleetan, besteak beste. Eta auzolanak egiteko, bestetik, 24.000 euroko inbertsioa egingo du Aramaioko Udalak.

Mendi batzordeak ere lan garrantzitsua egingo du Danborralden. Baso horretan egingo dituzten landaketetarako 94.111,16 euro erabiliko dituzte.

### Udal aurrekontua batzordeka

| | KOPURUA EUROTAN |
|---|---|
| Ogasun batzordea | 603.807,96 |
| Zerbitzu batzordea | 538.911,53 |
| Euskara eta Hezkuntza batzordea | 97.350,00 |
| Kultura batzordea | 165.364,09 |
| Mendi batzordea | 152.430,04 |
| Hirigintza batzordea | 200.843,11 |
| Ongizate batzordea | 13.800,00 |
| **GUZTIRA** | **1.772.506,73** |

ITURRIA: ARAMAIOKO UDALA

**KULTURA** > ARGAZKI ERAKUSKETA

# Herriko argazkilarien lanekin osatutako erakusketa Sastiñan

12 argazkilarik hartu dute parte, eta bakoitzak bi argazki aurkeztu ditu

Erakusketako argazki batzuk beste herri batzuetan ere aurkeztu nahi dituzte



IÑAKI NAFARRATE

**ARGAZKI ERAKUSKETA** Irudian, erakusketan parte hartu duen Iñaki Nafarrateren lana.

**A.B.** > ARAMAIO
Argazkilaritzarako zaletasun handia dago Aramaion, eta horren adierazle da Sastiñako ermitan antolatu berri duten erakusketa. Bertan daude ikusgai Aramaioko zenbait argazkilaritzazalek ateratako argazkiak.

Udaleko Kultura batzordeak herriko 12 argazkilari bildu zituen eta erakusketa hori egiteko proposamena egin zien. Bakoitzak, azken urteetan egindako lanen artean, bi argazki aukeratu behar izan ditu, erakusketan aurkezteko. Horrela, guztira 24 argazki daude ikusgai Sastiñan.

Hauexek dira erakusketan parte hartu duten argazkilariak: Alex Mendikute, Aitziber Aginagalde, Unai Kortabarria, Ekaitz Abarrategi, Nerea Galindez, Nuria Altuna, Itsaso Lopez de Bergara, Maite Pan, Faustino Gorostiza, Iñaki Nafarrate, Jose Lorenzo Delgado eta Antton Peña.

Kultura batzordeak adierazi du oso pozik dagoela lortutako emaitzarekin, eta erakusketa polita osatzea lortu dutela adierazi dute. Hori horrela, Udalak ez du baztertzen datorren urteetan ere antzeko erakusketa bat antolatzea. Modu horretan, herriko argazkilaritzazaleei euren lanak aurkezteko erraztasuna eman nahi diete.

Erakusketa urtarrilaren 2an zabaldu zuten, eta hilaren 13ra arte egongo da zabalik. Dena dela, asmoa da erakusketa beste herri batzuetara ere eramatea, osorik ez bada ere, argazki gehienekin. Argazkiak astelehenetik domekara egongo dira ikusgai.

Erakusketa, beraz, bihar, zapatua, ixten dute; gaur, 18:00etatik 19:00etara egongo da zabalik, eta bihar, 12:30etik 13:30era eta 18:30etik 19:30era.

> ORIXOL ELKARTEA

## Eskiatzera irteera egingo dute otsailaren 16 eta 17an

Urtero moduan, Orixol Mendi Elkartekoak hasi dira eskiatzera joateko irteera antolatzen, eta egunak ere zehaztu dituzte: otsailaren 16 eta 17rako antolatu dute irteera. Luz Ardiden, La Mongie edo Guret-era joango dira, eguraldiaren eta elur kopuruaren arabera.

Izena emateko epea zabalik dago otsailaren 8ra arte. Orixol elkarteko bazkideek 110 euro ordaindu beharko dituzte asteburua elurretan pasatzeko, eta gainontzekoek, 120 euro. Autobusa, hotela, zapatuko afaria eta domekako gosaria prezioaren barne egongo dira. Materialaren alokairua, berriz, norberak ordaindu beharko du.

> ZINEMA

## 'Karramarro uhartea' da aste honetako filma

Asteburuetako haurrendako zinema emanaldiek aurrera jarraitzen dute. Aste honetan, *Karramarro uhartea* ikusteko aukera izango dute Aramaioko gaztetxoek.

Cain itsasontziko kapitain Dimitriren abenturez gozatzeko aukera izango dute txikitxoek. Dimitrik Karramarro uharteko altxor magikoa aurkitzen lagunduko dion loro bat ezagutuko du. Bidaia horretan, Loreley neska-pirata gazte politak lagunduko dio.

**GARRAIOA** > AUTOBUS ZERBITZUA

# Garraio zerbitzua hobetze aldera, autobus gehiago pasatzen dira astelehena ezkero

Taxi-busaren zerbitzua hil honen erdian bukatuko da, eta ondorioz, autobus gehiago pasatuko dira herritik, zazpi, guztira; hala ere, Udalak gura du taxi-busa mantentzea




**AUTOBUSA** Gasteiztik datorren autobusa Gatzagara iristen, eguazten eguerdian. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA
Astelehen honetan, urtarrilak 7, hasita, zazpi autobus pasatzen dira herritik egunero. Udalak eta Garraio batzordeak zerbitzua handitzeko eskatu zioten Aldundiari, eta onartu egin du.

**TAXI-BUSARI AGUR**
Garraio zerbitzua handitu da, Eskoriatzara joan-etorrian ibiltzen den taxi-bus zerbitzua kendu egingo dute-eta. Halaxe azaldu digu Eusebio Villar alkateak: "Taxi-busaren arduradunak aditzera eman zigun utzi egingo zuela zerbitzua. Udal moduan, eskatu genion jarraitzeko, eta urtarril erdira arte jarraituko du, guri mesede egitearren".

Beraz, hil honen erditik aurrera, ez da taxi-busik ibiliko. Hala ere, oraindik ikusteko dago behin-behineko erabakia izango den edo behin betikoa: "Guk taxi-busak lanean jarrai dezala eskatu diogu Aldundiari, eta oraindik erantzuna jaso zain gaude", dio alkateak.

**INSTITUTURA, AUTOBUSEAN**
Astelehenaz geroztik, zazpi autobus pasatzen dira herritik, Gasteiztik irtenda Arrasatera doana bat eta Eibarrera bi, eta beste lau alderantziz, hau da, Gasteizera. Garraio batzordea pozik azaldu da zerbitzu berriarekin: "Aldundiko arduradunekin elkartu eta hamabost egun baino lehen zerbitzu berria martxan zegoen; hori, behintzat, eskertzekoa da". Hala ere, bai batzordeak, bai Udalak oraindik egiteko daukate balorazioa.

Zerbitzuaren hobekuntza igarriko dutenak Arrasateko institutura joaten diren gazteak dira. Orain arte, gurasoen automobiletan ibili behar izan dute, taxi-busak eskainitako baldintzak ez ziren-eta egokiak, baina, urte berriarekin, autobusean joan ahal izango dira: "Gazte horiendako, sei guztira, ordutegi egokia lortzen saiatu gara. Oraindik ez gara elkartu eurekin zerbitzuaren gaineko baloraziorik egiteko, eta ez dakit zela moldatu diren", adierazi du alkateak.

Bestalde, bai Udala bai Garraio batzordea garraio publikoa erabiltzearen alde azaldu dira, eta gatzagarrak autobusean ibiltzera gonbidatu gura dituzte.

**TXARTEL ESKAERARIK EZ**
Autobusean merkeago ibiltzeko txartel bateratua jarri zuen abian Aldundiak udazkenean. Hala ere, txartel hori eskuratzeko eskaerarik ezin da egin Gatzagan. Horretarako inguruko herrietara jo behar da: Eskoriatzan, Dorleta liburu dendara eta Aretxabaletan, Kioskora.

**AUTOBUSEN ORDUTEGIA**

**> LEINTZ GATZAGA-ARRASATE**
Astelehenetik egubakoitzera
07:55

**> LEINTZ GATZAGA-EIBAR**
Astelehenetik domekara
12:55
20:55

**> LEINTZ GATZAGA-GASTEIZ**
Astelehenetik egubakoitzera
09:20
15:45
19:45
21:50

**> LEINTZ GATZAGA-GASTEIZ**
Zapatuetan
11:45
15:45
19:45
21:50

**> LEINTZ GATZAGA-GASTEIZ**
Domeketan
09:45
15:45
19:45
21:45

**BIZTANLERIA** > IAZKO DATUAK

# Behera egin du Gatzagako biztanleriak azken datuen arabera; zazpi lagun gutxiago bizi dira

Eusebio Villar alkatea ez dator bat argitaratutako datuokin eta azken urteotan kopurua mantendu egin dela uste du

**M.A.** > LEINTZ GATZAGA
Gatzagako biztanle kopuruak behera egin du azken urtean. Debagoienean, hiru herri izan dira behera egin dutenak: Arrasate, Bergara eta Leintz Gatzaga. Hala diote oraintsu argitaratutako datuek, eta Gatzagan zazpi lagun gutxiago bizi dira, horien arabera.

Eusebio Villar alkatea, ostera, ez dator bat datuokin. "Kopurua mantendu egin dela azken urteotan uste dut, 250 biztanleren bueltan, edo hori baino gehiago, zertxobait igo egin da". Hori dela eta, lasai agertu da, behera ez du-eta egin.

**LANGABEZIA TXIKIEN DUENA**
Bestalde, Gipuzkoan langabezia txikien duen herria dela jaso zuen Euskal Estatistika Erakundeak joan zen abenduan. Alkateak ez du zalantzan jarri datu hori, baina datuaren atzean zerbait gehiago dagoela dio: "Datu horren atzean zer dagoen jakitea komeni da lehenengo. Izan ere, Gatzagan, emakume asko daude etxean, baina enplegu zentroan izenik eman barik. Hortaz, horiek ez dituzte kontatzen".

Gainera, Gatzagan bertan lan egiten duten herritarrak oso gutxi dira: "Herrian lan egiteko aukera gutxi dago, eta bertan geratu gurako luketen emakumeek lanik ez egitea erabakitzen dute", esan du alkateak.

> UDALA

## Bi hilean behin egingo ditu udalbatzak ohiko osoko bilkurak

Ohiko osoko bilkurak bi hilabetean behin egitea erabaki zuen udalbatzak abenduan egindako azken bilkuran. Urtarrilean ez dute egingo; hortaz, otsailean izango da urteko lehen ohiko osoko bilkura. Hileko hirugarren eguenean egingo dute, 18:30ean, udaletxeko bilkuren aretoan, beste aldaketarik ez badago, behintzat.

Ezohiko osoko bilkurek, ostera, ez dute aurrez zehaztutako datarik. Gaiak sortu ahala egingo ditu udalbatzak. Esan behar da, gainera, bilkuretara guztietara edonor hurrera daitekeela herriaren gaineko gaiak gertutik jarraitzeko.

> INTERNET

## Gaur, hilak 11, eta 25ean egingo dituzte ikastaroak KZgunean

Urtarrilean bi egunean etorriko da herriko KZgunera arduraduna, Aitor Madrid: gaur, hilak 11, eta 25ean. 09:00etatik 11:00etara egongo da herritarren zerbitzura Interneten gaineko zalantzak eta kezkak argitu eta ikastaroak egiteko. Hala, gatzagarrek eurek aukeratuko dute Madridek eskainitako zerrendako zein ikastaro egin gura duten: sinadura elektronikoa edo osasun txartel elektronikoa erabiltzen ikasi, aisialdiarekin zerikusia duten gidak kontsultatu, kontsumitzaile zein etxeko kontuekin zerikusia duten orrien berri izan eta beste asko.

Aritz Aranburu > Surflaria

# "Harrituta geratu nintzen oñatiarrek surfa zenbat jarraitzen duten ikusita"

XABIER URTZELAI > OÑATI

**Aritz Aranburuk (Zarautz, 1985) hondartza batetik bestera egin du urtea, kontinente batetik bestera, bazter guztietako olatu onenak hartzen. Eta, 2008an ere horrela jarraituko du, WCT txapelketarako sailkatu da-eta –hori lortzen duen lehen euskalduna da–. Gabonak etxekoekin egoteko aprobetxatu ditu. Zarautz inguruan egin ditu egun gehienak, baina Oñatira ere etorri da, familiakoekin egotera. Izan ere, aita oñatiarra du.**

**Hainbat hilabete kanpoan egin eta gero, etxean egin dituzu Gabonak. Atseden hartuko zenuen.**

Bai, hori zen asmoa. Egia esateko, bidaia ugari egin ditut 2007an, eta banuen gogoa etxera etortzeko, batez ere familiakoekin eta lagunekin egoteko.

**Abenduaren 25ean izan zinen Oñatin. Zer moduz?**

Ondo, oso ondo. Familiako bazkaria izan nuen han, eta gutxitan joaten naizenez oso gustura izan nintzen. Gainera, harrituta geratu nintzen oñatiarrek surfa zenbat jarraitzen duten ikusita.

**Dena dela, Gabonetan etxera etorri bai, baina urtea hasi orduko Marokora egin duzue bidaia.**

Bai, iragarpenek zioten joan den astean Marokoko kostaldean olatu onak izan behar zutela, eta neure babesle garrantzitsuena den Quicksilver etxearendako erretratu eta bideo batzuk grabatzen izan naiz han.

**Askok urteari errepasoa egiteko aprobetxatzen dituzte Gabonak. Zuk?**

Nik apur bat lehenago egin nuen errepaso hori, denboraldia amaitutakoan. Eta bistan da urte oso positiboa izan dela niretako, nahiz eta beti dagoen zer hobetu.

**Bistan da WCT txapelketarako sailkatu izana dela iazko urteak eman dizun gauza onenetako bat. Baina une gogorrak ere izango ziren, ala?**

Bai, bai. Hilabete asko izan dira etxetik kanpora, txapelketa askotan parte hartzen. WCT txapelketarako sailkatzea ez da erraza, eta emaitza oso onak izan baditut ere, txapelketa guztietan ez dut eman nik espero nuena maila, denak ez dira onak izan; hala, une horiek ez dira gozoak izaten.

**Eta, zer eskatzen diozu hasi berri den urteari?**

Bueno, WCT txapelketan parte hartzea jadanik saria da, eta horrekin bakarrik iazkoa baino urte hobea izango da, seguru. Baina argi dago parte-hartzearekin batera txapelketa horretan lan txukuna egitea ere ondo egongo litzatekeela.

**Eta, zer da lan ona egitea, zein da benetako helburua?**

Horra iristen den jendeak esaten du maila horretan mantentzea dela benetan zaila. Horrenbestez, horretan saiatuko naiz lehendabizi, baina badakit nire buruarekin zorrotzagoa izango naizela, txapelketa ona egin gura dudala.

**Azal iezaguzu txapelketa horretan parte hartzeak zer esan gura duen.**

Pentsa txapelketa horretan munduko 45 surflari onenak izango garela, eta mundu osoan zenbat surflari dauden kontuan hartuta, niretako oso gauza handia da, ohore handia.

**Surfaren gailurrera iritsi zara?**

Argi dago zirkuitu horren gainetik ez dagoela ezer, automobilismoko 1-Formula dela, edo futbolean Txapeldunen Liga. Azken batean, WCT txapelketa oso elitista da, ez dago surflari askorendako tokirik.

**Zer da entrenatzaileak behin eta berriro errepikatzen dizun hori?**

Bada, azken urte hauetan oso argi izan dugu lana gogor egin gero, eta horretan jardun dugu. Gero, nahiz eta ondo entrenatu, txapelketa baten aurrean burua ere gertatuta izan behar dugu, proba bateko arrakastaren %50 baino gehiago hor dagoeta, psikologikoki prestatuta egotean, alegia.

> **"WCT txapelketan parte hartzea saria da, ohore handia; baina lana ondo egitera noa horra"**
>
> **"Txapelketa baten aurrean, arrakastaren %50 baino gehiago buruan dago"**

**Nola egiten die aurre Aritz Aranburuk txapelketei? Zelan prestatu arlo psikologikoa?**

Esaterako, entrenamenduetan txapelketan gaudela pentsatuta. Arlo hori ere landu egiten dugu, txapelketan murgilduta gaudela pentsatu eta entrenatu. Horrela, ordua iristen denean lasaiago egoten gara.

**Nondik nora ibiliko zara 2008an?**

WCT hamaika txapelketaz osatutako zirkuitua da. Lehenengo bi probak Australian dira, eta gero etorriko dira Tahiti, Fiji, Bali, Hegoafrika, Kalifornia, Frantzia (Hossegor), Mundaka, Brasil eta Hawaii.

**Ikustekoa izango da Aritz Aranburuk Mundakan zelako harrera izango duen.**

(Barre). Bai, polita izango da, ezta? Ea olatuekin zorte apur bat izaten dugun; izan ere, azken urteotan ez dute zorte handirik izan.

**WCTn parte hartzeak zer eskatzen du? Akaso, babesle gehiago?**

Gauza asko aldatzen direla esango nuke, denak egiten du-eta gora. Babesle aldetik bai, eta baita, esaterako, komunikabideetan izaten den oihartzuna ere. Hala, neure lana zorrotzago jarraituko dute orain.

**7 urterekin hasi zinen surfa egiten. Zerk bultzatu zintuen kirol hori aukeratzera?**

Txiki-txikitatik hasi nintzen gurasoekin hondartzara joaten, eta ipurterre samarra nintzenez, hondartzan ere zerbait egin behar nuen. Hondartzan egin daitezkeen jarduera gehienek itsasoarekin lotura zuzena dute, eta kortxoarekin hasi nintzen olatu gainean jolasten, eta 7 urterekin Zarauzko Surf Eskolan eman nuen izena.

**Euskal Herrian ez da beste leku batzuetan bezain errotua egon surfa, baina bidea egiten ari zarete, ala?**

Bai, nik uste dut surfak leku askotan egin duela gora, ez hemen bakarrik. Geroago eta surflari gehiago daude, eta maila ere goraka doa.

**Gainera, talde polita osatu duzue, hau da, Aritz Aranburu ez da Euskal Herrian neurria ematen dabilen bakarra.**

Hori da. Zarautzen bertan, esaterako, Hodei Collazo nirekin dabil munduko zirkuitua egiten, eta gure aurretik ere izan dira beste batzuk mundu mailan lehiatzen. Guztion artean ari gara erakusten hemen ere maila polita dagoela, eta ea hobetzen joaten garen.

**Eta zelan ikusten duzu harrobia, badatoz gazteak atzetik?**

Baietz esango nuke. Aurreratu moduan, baina, geroago eta jende gehiago dabil. Horrek esan gura du Euskal Herri mailan edota Europa mailan gora egin gura duenak seriotasun handiarekin hartu behar duela kirol hori.

**Zer dauka surfak? Izan ere, kirol hori probatzen duenak errepikatu egiten du.**

> **"Geroago eta surflari gehiago daude, eta ez hemen bakarrik; eta maila ere goraka doa"**
>
> **"Euskal Herri edo Europa mailan surfean aurrera egin gura duenak serio hartu behar du kirola"**




Aritz Aranburu surflari profesionala Oñatiko plazan, abenduaren 25ean, Oñatin duen familiarek





Zarauzko surflaria, munduko bost kontinenteetako olatuen gainean surfeatzen. Erretratu horiet



in elkartu baino lehen. XABIER URTZELAI





ako batzuk Pro France 2006 txapelketakoak dira. WWW.ARITZARANBURU.COM

Ez dakit ba. Oso kirol lotua da; aurrera egiteko gainean egon behar duzu, inoiz ez dituzu-eta bi olatu berdin harrapatuko. Gero, uretan zaudenean naturarekin izaten den kontaktua ere ederra da. Harrapatu egiten zaituen kirola da, eta konturatu orduko marearen, haizearen edo itsasaldi onaren zain zaude.

**Debagoienak ez du itsasorik, baina geroago eta lagun gehiago animatzen dira kostaldera joan eta surfa egitera. Zarautzen, zelan hartzen dituzue *kanpotarrak*?**

Nik, normalean, ondo. Hau da, uretan ez zait *rollo* txarrik gustatzen. Argi dago batzuetan nahiago izaten dugula jende gutxiagorekin surfa egitea, baina horren alde ezin da ezer egin. Jende asko dagoenean onartu egin behar da zein den egoera eta pazientzia izan. Azken batean, ez diogu jendeari uretara ez sartzeko eskatuko.

**Izan ere, kontu horrengatik arazo bat baino gehiago izaten da, ala?**

Ez pentsa, hemen ez horrenbeste. Nik dezente bidaiatu dut, eta beste leku batzuekin alderatuta, Euskal Herrian kontu horrekin oso lasai ibiltzen garela esango nuke. Kanpoan hemen baino errespetu txikiagoa izaten dute, eta han, ni izaten naiz kanpotarra (barre). Kanpoan norberari egiten diotena gero norberak etxean egiten badu, azkenean, guztiondako kalte.

**"Surfa oso kirol lotua da, aurrera egiteko gainean egon behar duzu. Baina harrapatu egiten zaitu"**

**"Normalean ondo hartzen ditut herrikoak ez diren surflariak; uretan ez dut 'rollo' txarrik gura"**

MOTZEAN

## "Ezin dut galleta pakete bat erdizka utzi; dena barrura"

**Surfa egiteko leku bat?**
Mundaka.

**Inoiz surfeatutako olaturik onena?**
Hori ere Mundakan.

**Gustuko surflari bat?**
Kelly Slater.

**WCTn gertutik jarraitu beharko dugun surflari bat?**
Ni neu! Bestela, Mick Fanning esango nuke.

**Gabonetan asko zaindu zara?**
Bueno, tarteka.

**Orain arte egindako bidaiarik onena?**
Bidaia asko izan ditugu oso onak, baina bat aipatzearren, Australiara egindakoa esango nuke.

**Itsasotik urrun bizi izatekotan, non?**
Europako ekialdera joango nintzateke, Bucarestera, adibidez. Ez dakit zergatik, ez baitut ezagutzen, baina badut hara joateko gogoa.

**Maniarik?**
Bat baino gehiago dut, baina orain momentuan esateko... Galleta pakete bat hasten badut, ezin dut erdizka utzi; dena barrura.

**Bertute bat?**
Burugogorra naizela.

**Hutsune edo gabezia bat?**
Burugogorra naizela, baita ere. Onerako eta txarrerako.

**Surfaz gain, beste kirolik?**
Irristatzearekin zerikusia duten kirolak gustatzen zaizkit, eta baita tenisa ere.

**Eta surfa alde batera utzita, beste ardurarik?**
Momentuz ez. Nire ikasketak selektibitatean utzi nituen, eta profesional izateari uzten diodanean seguruenik ikasketei helduko diet.

**Zer ikasiko zenuke?**
Marketina, esaterako.

## asteburuko hitzorduak

### FUTBOLA

**Bigarren maila**
Reala-Alaves
Zapatua. 18:30. Anoeta.

**Kadeteen Euskal Liga**
Aretxabaleta-Athletic
Zapatua. 15:30. Ibarra.

**Preferente maila**
Aretxabaleta-EHU Vasconia
Domeka. 16:30. Ibarra.
Mondra-Idiazabal
Zapatua. 16:30. Atxabalpe.
Ondar. Aurrera-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Zaldupe.

**Lehen erregionala**
Antzuola-Lazkao
Zapatua. 16:00. Estala.
Oiartzun-Bergara
Zapatua. 15:30. Ugadetxo.

**Bigarren erregionala**
Elgeta-Eibartarrak
Zapatua. 15:30. Unbe.
Aretxabaleta-Gazteak
Zapatua. 17:30. Ibarra.
Urki-BTLS
Zapatua. 17:30. Unbe.
Ikasberri-Mondra
Zapatua. 17:15. Garmendipe.

**Ohorezko mailako gazteak**
Anaitasuna-Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Azkoitia.
Hondarribia-Bergara
Zapatua. 15:30. Ondartza.

**Ohorezko mailako gazteak. Kopa eta jaitsiera**
Aloña Mendi-Elgoibar
Zapatua. 15:30. Azkoagain.
Tolosa-Mondra
Zapatua. 17:30. Usabal.

**Lehen mailako gazteak. Igoera fasea**
Lasarte Oria-Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Lasarte.

**Lehen mailako gazteak. Kopa.**
Amaikak Bat-Bergara
Zapatua. 16:30. Deba.

**Ohorezko mailako kadeteak**
Bergara-Reaul Union
Zapatua. 17:30. Ipintza.
Ordizia-Aloña Mendi
Domeka. 12:00. Altamira.

**Lehen mailako kadeteak. Igoera fasea.**
Arrasate-Trintxerpe
Zapatua. 12:00. Mojategi.
Aretxabaleta B-Sto Lizeoa
Zapatua. 11:30. Ibarra.

**Lehen mailako kadeteak. Kopa.**
Bergara-Ilintxa
Domeka. 12:00. Ipintza.
Arizmendi-Zestoa
Zapatua. 12:30. Almen.

**Kadete txiki**
Urki-Arrasate
Zapatua. 10:30. Unbe.

**Ohorezko mailako infantilak. Txapeldunen fasea**
Bergara-Lagun Onak
Domeka. 10:15. Ipintza.
Arizmendi.Aretx.-Kostkas
Domeka. 11:00. Ibarra.

**Ohorezko mailako infantilak. Kopa eta jaitsiera.**
Hondarribia-Arrasate
Domeka. 10:00. Ondartza.

**Lehen mailako infantilak. Igoera fasea.**
Aloña Mendi-Oiartzun
Domeka. 10:30. Ibarra.

**Infantil txikiak. Kopa.**
Hondarribia-Arizmendi Are.
Zapatua. 10:30. Ondartza.
Arrasate-Añorga
Zapatua. 10:00. Mojategi.

**Emakumezkoen Liga. Igoera fasea**
Zarautz-BTLS
Domeka. 11:30. Asti-Txiki.

**Emakumezkoen Kopa**
Bergara-Arizmendi
Domeka. 17:30. Ipintza.
Zestoa-Mondra
Zapatua. 17:30. Iraeta.
ArizmendiB-Urola
Zapatua. 15:30. Almen.

**Emakumezkoen F-8, Kadeteak**
Bergara-Euskalduna
Zapatua. 15:45. Ipintza.

**Emakumezkoen F-11, Kadeteak, txapeldunen fasea**
Beasain-Arizmendi
Domeka. 11:00. Igartza.

**Emakumezkoen F-11, Kadeteak, Kopa**
Mariño-Aloña Mendi
Zapatua. 10:45. Irun.

**Alebinak**
Aretxabaleta-Bergara
Domeka. 11:00. Unbe.
Eibar-Arrasate
Domeka. 09:45. Unbe.
Aloña Mendi-Urko
Domeka. 11:45. Unbe.

### ARETO FUTBOLA

**Euskadiko Txapelketa**
Eskoriatza-Racing Astrabud.
Zapatua. 17:15. Intxaurtxuet.

**Lehenengo maila**
Aloña Mendi-Zaldibi
Zapatua. 17:45. Zubikoa.

**Hirugarren maila**
Amara-UDA Izotz
Zapatua. 16:00. Donostia.

**Gazte maila**
Aloña Mendi-Lauburu
Zapatua. 12:30. Zubikoa.

### SASKIBALOIA

**Lehen maila**
MU-Tabirako Baque
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**Gipuzkoako ligako senior maila, gizonezkoak**
Coaatg-Candy BKE
Zapatua. 20:00. Donostia.
MU-Novamark
Zapatua. 16:00. Musakola.
Kostkas-Aloña Mendi
Domeka. 12:00. Donostia.

**Gipuzkoako ligako senior maila, emakumezkoak**
Eskoriatza-Tecnun
Zapatua. 19:00. Intxaurtxu.

**Gipuzkoako ligako gazte maila, gizonezkoak**
Aloña Mendi-Bretaña Berg.
Zapatua. 12:00. Zubikoa.

**Gipuzkoako ligako gazte maila, emakumezkoak**
Bergara-STL Lazkao Txi.
Zapatua. 18:00. Bergara.
Internacional-Eskoriatza.
Zapatua. 12:15. Donostia.

**Gipuzkoako ligako kadete maila, gizonezkoak**
MU-BKL
Domeka. 09:00. Musakola.
MU B-STL Lizardi
Domeka. 11:00. Musakola.
MU A-Caldereria Zaher
Zapatua. 16:00. Musakola.

**Gipuzkoako ligako kadete maila, emakumezkoakk**
Arizmendi Esko.-Antigua
Zapatua. 11:00. Intxaurtxu.
Aloña Mendi-Añorga
Zapatua. 12:00. Zubikoa.
Añorga-Mariaren Lagundia
Zapatua. 16:00. Donostia.

**Infantil maila, gizonezkoak**
Salleko-Arrasate Insti.
Zapatua. 11:00. Zarautz.
Arizmendi-Ikastola
Zapatua. 10:30. Musakola.
GSB Acero-Bergara
Zapatua. 09:30. Azkoitia.

**Infantil maila, emakumezkoak**
LEK B-Iragaz
Zapatua. 12:00. Musakola.
LEK D-Bergara
Zapatua. 12:00. Musakola.
LEK A-Mariaren Lagundia
Zapatua. 10:30. Musakola.
STL Egaña-LEK E
Zapatuan. 10:00. Donostia.

### ESKUBALOIA

**Euskadiko Txapelketa**
Bergara-Ford Mugarri
Zapatua. 18:30. Labegarai.

**Euskadiko gazte maila, emakumezkoak**
Usurbil-Verkol Aloña
Domeka. 11:30. Usurbil.

**Lehenengo territorial maila**
Arrasate-Usurbil
Domeka. 11:30. Iturripe.

**Bigarren territorial maila**
Bergara-Leizaran
Domeka. 12:00. Labegara.
BKL Iñausti-Aloña Mendi
Domeka. 12:00. Beasain.

**Gazte maila, gizonezkoak**
La Salle-Aloña Mendi
Domeka. 11:15. Legazpi.
Aloña Mendi-La Salle
Zapatuan. 16:00. Zubikoa.
Egia Servi Chap.-Arrasate
Zapatuan. 19:30. Egia.

**Kadete maila, gizonezkoak**
Leizaran-Bergara
Domeka. 11:30. Andoain.
Irungo-Berezao Aloña
Domeka. 10:00. Irun.
Citroen Chapime-Groseko
Domeka. 10:00. Arrasate.
Leizaran-Verkol Aloña
Zapatua. 16:15. Andoain.
Bergara-Bera Bera
Domeka. 10:30. Labegara.



**Eskoriatzak Astrabuduako Racing taldea hartuko du**
Zapatu arratsaldean (17:15, Intxaurtxueta) kontrario gogorra izango du Eskoriatzak aurrean, bilbotarrak bigarren daude-eta.

**ESKUBALOIA** > EUSKADIKO TXAPELKETA

# Bergara gertu dago Ford Mugarriren kontrako derbirako

Ibarreko bi taldeek zapatuan jokatuko dute ligako itzuliko partidua (18:30)

Bergara asko aldatu da joaneko partiduan Iturripen jaso zuen porrot mingarritik




**JAURTITZEKO GERTU** Aldanondo, Gure Jorge Fernandez taldeko jokalari baten begiradapean. JOSETXO ARANTZABAL

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Bihar arratsaldean, (Labegaraieta, 18:30) Bergarak eta Arrasateko Ford Mugarrik Euskadiko Txapelketa barruan derbia jokatuko dute. Joaneko partiduko emaitzak (32-15), eta egungo sailkapenak erakusten du Arrasatek talde osoagoa duela. Hori baino gehiago, kategoria horretan jokatzeko behar den esperientzia da bi talde horiek ezberdintzen dituena.

Hala, Ford Mugarrirendako bigarren denboraldia da kategorian; Bergara, berriz, garesti dabil ordaintzen hasiberri izatea. Hala ere, talde mahoneroa ez da irailaren 30ean debuta egin zuen talde hura: "Hainbat partidu behar izan genituen Euskadiko Txapelketan jokatzea zer den konturatzeko, baina ordutik taldeak esperientzian irabazi du", adierazi du Bergarako entrenatzaile Josetxo Muniategik. "Min hartuta ditugu bizpahiru jokalari, eta horiek lehenbailehen errekuperatu gura ditut", gaineratu du. Hori bai, derbirako gertu daudela adierazi du.

**20 PUNTU BATZEA**

Bergarara bisitari joango den Ford Mugarrik orain duen lehentasuna mailari eusteko beharrezkoak diren 20 puntuak lehenbailehen batzea da. Lehenengo itzulia amaituta, dagoeneko bide erdia baino gehiago egin dute, 13 puntu irabazi dituzte, eta Labegaraietara jokoan egongo diren bi puntuak batzera joango dira. Hori bai, Arrasatekoek dagoeneko argi izango dute etxean Bergararen kontra erdietsitako garaipen erraza ez dela biharko partidurako erreferentzia.

Gainera, Arrasatekoek puntu bat ekarri zuten joan den astean Basauritik (26-26), baina txartel gehiegi jasota itzuli ziren.

**ZIKLO-KROSA** > ESPAINIAKO TXAPELKETA

# Jone Muxika selekzioarekin lehiatuko da Villarcayon

Elgetakoak Euskadi ordezkatuko du gaur, bihar eta etzi Burgosen egingo duten txapelketan

Euskadiko Txapeldun izanda, denboraldia biribiltzen ahaleginduko da Muxika



**BERMEON** Muxika Bermeon, Gabonetan egindako Euskadiko txapelketan. X.U.

**X.U.** > BERGARA

Iritsi da ziklo-kroseko denboraldiko hitzordu garrantzitsuenetako bat, Espainiako txapelketa. Villarcayon jokatuko dute astebururuan, eta Jone Muxika Euskadiko selekzioa ordezkatzen izango da. Elgetakoak gaur, egubakoitza, egingo du estreinaldia, selekzioek errelebuka egingo duten lasterketan: "Gauza berria da, eta ez dakit itzuli bakarreko lasterketa egitea merezi duen, egun bat lehenago joan behar dugu-eta Burgosera". Bestela, Muxikak bihar izango du hitzordu nagusia, emakumezkoen lasterketan: "Euskadiko zirkuituan baino lehiakide gogorragoak izango ditut, baina aurrean egoteko asmoz noa".

> FUTBOLA

### Mondrak eta Aretxabaletak etxean jokatuko dute berriro

Bigarren astez jarraian etxean jokatuko dute Mondrak (25) eta Aretxabaletak (22) asteburuan. Arenazaren mutilek sailkapenean ondo-ondoan daukaten EHU Vasconia (22) izango dute kontrario domekan (16:30). Mondrak, berriz, Idiazabal (21) hartuko du bihar Mojategin (16:30).

Aloña Mendik (23) lehenbailehen heldu gura dio urte amaieran etendako bolada onari. Horretarako, Ondarroan irabazi behar da, bihar (16:30).

> ZIKLISMOA

### Atzo aurkeztu zuten 2008ko Euskaltel-Euskadi taldea

Euskaltel-Euskadi taldeak gertu dauka 2008rako taldea. Irunen egin zuten atzo aurkezpena, eta aurten ere ibarreko Markel Irizarrek eta Iban Velascok maillot laranja jantziko dute.

Horrekin batera, eguaztenean bertan aurreratu zuen Euskaltelek Samuel Sanchezek taldean jarraituko duela 2010era arte. Egoi Martinez da berritasunetako bat, Discovery Channel-etik bueltan.

> PILOTA

### Bost norgehiagoka zapatu arratsaldean, Bergaran

Zapatu arratsaldean, 16:30ean hasita eskuz binakako partiduak jokatuko dituzte Bergarako pilotalekuan.

Bergara1 bikoteak Lagunak taldeko pilotariak izango dituzte aurrean. Ondoren Goierrik eta Azkoitikok jokatuko dute; segidan, Oiarpe eta Zarautz lehiatuko dira. Azkeneko bi norgehiagokatan ere Bergarakoak izango dira protagonista, Goierriren kontra lehenengo, eta Ilunperen kontra gero.

> XAKEA

### Zapatuan hasiko du Arlutz Xake Taldeak liga, ohorezko mailan

Aurten ere Ohorezko Ligan jardungo du Aretxabaletako Arlutz Xake Taldeak. Zapatuan hasiko dute liga, kategoriari eusteko helburuarekin.

Aurreikuspenek diote, baina, helburu hori gero eta zailagoa dela, hainbat talde ondo indartu dira-eta. Hala, liga txapelketako debuta Groseko xakelarien kontra egingo dute. Jakin, hilaren 17tik aurrera arratsaldetan (17:30) lokalean izango direla, gazteei xakean erakusteko.




> 'NEGUKO GIDA' Ibarreko liburutegiek liburu gomendioen gida kaleratu dute > 45




> KANON DIGITALA Joxe Arantzabalek bere iritzia plazaratu du kanonari buruz > 51

> MAIALEN LIZARRALDE Barne diseinugile oñatiarrak Ingalaterran egin zituen arte ikasketak eta gaur egun estudioa du Bergaran; kirola du zaletasun nagusi > 50



# Mikel Urdangarin bihar Amaia antzokian izango da

A.ARANBURUZABALA > ARRASATE

Kaleratu berri duen *Anek idatzi dit zutaz* diskoa aurkeztera etorriko da Mikel Urdangarin (Zornotza, 1971) musikaria bihar, zapatua, Arrasatera. Amaia antzokian izango da, 20:00etan.

Musikalki sasoi onean argitaratutakoa eta pertsonalki izaera berezia duen diskoa dela aitortu du Urdangarinek: "Aspalditik landutako lana da, nire bizipenak eta, era berean, lagunenak batzen dituen bidaia-koaderno baten itxura du. Aspaldiko lagunekin grabatu izanak ere bereziagoa egiten du niretzako lan hori".

**DISKOAREN AURKEZPENA BAINO GEHIAGO**

2008an eskainiko duen bigarren kontzertua izango da biharkoa Amaia aretoan. Disko aurkezpen hutsa baino gehiago izango dela gaineratu du: "Disko berri bat egiten duzunean nondik zatozen ikusi behar duzu; horregatik, bada, aurkezpen kontzertuetan ere atzera begiratua egiten saiatzen naiz beti. Biharkoan ere horrela egingo dugu. Ia disko guztietatik pasatuko gara, hemendik eta handik abestiak jasoaz.Errepaso elegantea egingo diogu, bada, ibilbideari".

Amaia antzokiko taularen gainean ez da Urdangarin bakarrik izango, *Anek idatzi dit zutaz* diskoan izan dituen musikariak izango ditu-eta laguntzen: Rafa Rueda gitarra elektrikoarekin, Bingen Mendizabal eta Nika Bitchiasvili biolin-joleak, baterian Saihela eta teklatuan Koldo Uriarte. Taldekideak lankide huts baino gehiago lagun izatea beharrezkoa dela deritzo: " Zorionekoa naiz, musikari onak izateaz gain, lagun onak ere badirelako. Musika mundua arriskutsua da. Handiuste asko daude. Laguntasuna beharrezkoa dut". > 44



AZALA: ALEX AZKARATE / JATORRIZKO ARGAZKIA: KAP PRODUKZIOAK

**Mikel Urdangarin** > Musikaria

# "Poza hartu nuen nire diskoa Pablo Milanesenaren apal berean ikusita"







A.ARANBURUZABALA> ARRASATE

**Musikari zornotzarra bihar Arrasaten izango dela-eta, astean harekin izan gara. Gustura egin digu berba, gai askori buruz, bizitoki duen Gasteiztik.**

**Arrasaten aurrez ere izandakoa zara.**

Bai, ezagutzen dut Amaia antzokia. *Bar Puerto* eta *Zaharregia*... lanekin egon nintzen.

**Gasteizera lan kontuak direla-eta joandakoa zara.**

Ingeles irakasle lana sortu zitzaidan hamar bat urte dela eta harrezkero hemen nago. Oso gustura. Rafa izan ezik beste taldekideak ere hemen bizi dira.

**Irakasle lanak musikagatik utzi zenituen.**

Irakasle lanetan gustura jardun nuen arren, lehenengo bi diskoak irakasle lanarekin elkartu zitzaizkidan. Erabaki beharra sentitu nuen; nahiz eta eskolan lan finkoa eskaini zidaten. Nire barruan musika ate joka gogor nuen. Zalantza eta beldurrarekin hartutako erabakian sinistu nuen. Nire bizitzan hartu dudan erabakirik gogorrena dela aitortu behar dut.

**Damutu zaizu?**

Ez, ez nuke ezergatik aldatuko. Erabaki hori hartu nuenetik, orain bederatzi urte, zoriontsuagoa naiz. Gure gorabeherekin bada ere, pozik bizi naiz. Gehien maite duzunarekin bizi ahal izatea gauza handia da. Noiz arte ez dakit, baina oraingoz gustura nago dudan bizimoduarekin.

**Musika ofizio duzunez, zer diozu pirateriaz?**

Gaur egun pirateria baino gehiago, diskogintzarako arerio handiagoa da Internet eta horrek dakarren aldaketarako abiadura. Diskoa euskarri moduan erealitatea bada, baina bestea ere badela onartu behar dugu. Abiadura horretan toki bat topatzen jakin behar dugu. Gizon bat gitarra batekin taula gainean ezin da pirateatu; hori da, nire ustez, gure oraina eta etorkizuna. Ordezkaezina da hori!

**"Irakasle lanetan gustura jarduten nuen arren, musikaren aldeko erabakia hartu nuen "**

**Zer da garrantzitsuagoa: diskoak saldu ala aretoak bete?**

Diskoak saltzea ez da musikaren funtsa. Garrantzitsuena kantatzeko gogoa izatea eta aurrean norbait entzuteko prest egotea da.

**Euskal musika euskaldunontzako bakarrik da?**

Ez, baina gure musika kanpoan normal kontsumitzea falta zaigu.

**Mugak apurtze horretan dendetako apalek badute zeresana.**

Euskal talde guztiak apal berean kokatzen gaituzte, bakoitzaren estiloa aintzat hartu gabe. Orain dela gutxi, baina, Bartzelonan izan nintzen eta sekulako poztasuna hartu nuen nire diskoa Pablo Milanes eta Ismael Serranorenarekin ikusita. Nik horrela sinisten eta ikusi nahi dut: euskal musika, beste edozein musikaren pare.

**Etxean ze disko dituzu?**

Asko, horien artean: Tom Waitsen bat, Goseren azkena, Bruce Springsteenen azkena...

**Eta kontzertuetara joaten zara. Txiki ala erraldoiak gurago?**

Springsteenenean egon nintzen arren, txikietan nago erosoen.

**Beste zaletasunik?**

Kirola egitea, tabernan kafe bat hartzea... Hau da, bizitza *kamara lentoan* hartzea.

**Bertsolaria ere izandakoa zara.**

Egun, bertsozalea bakarrik. Urtean behin, modu anonimoan, plaza bat egiten badut ere.

## DISKOGRAFIA AUTOREAREN AHOTAN




***Haitzetan* (1997)**
"Garai hartan lagunek esaten zidaten erotuta nengoela, eta nik ezetz. Gutxik sinisten zuten proiektu hartan. Horregatik, bada, niretzako, *Haitzetan* diskoa gauza baten sinistearen indarra izan zela esango nuke".



***Bar Puerto* (2001)**
"Kirmen Uribe eta Bingen Mendizabalekin egin nuen lehen urtartea da batez ere *Bar Puerto* niretzako. Egun oraindik kantatzen ditudan kantuak dira; beraz, nigan oraindik bizirik dagoen diskoa da".



***Zaharregia txikiegia agian* (2003)**
"Lagun talde baten artean sortutako lana da; Kirmen Uribe, Bingen Mendizabal, Rafa Rueda eta Mikel Valverderekin egindakoa. Sasoi on baten oroitzapenak ekartzen dizkit".




***Badira hiru aste* (1998)**
"Eskozian bizi izan nituen gertakizunek margotutako diskoa izan zen bigarrena, hau da, *Badira hiru aste*. Horregatik, bada, sasoi bateko album bat moduan gogoratzen dut honako hori".




***Heldu artean* (2002)**
"Bizipen hurbil batek zentzu latzean markatu ninduen sasoi hartan eta ondorioz diskoan ere nabari da hori. Hala ere, bizipen latz batek ukitutako diskoa den arren, oroitzapen onak ekartzen dizkit".




***Dana* (2005)**
"Amari eskainitako diskoa da *Dana*. Itxurazko atsedenaldi baten ostean argitaratu nuen. Itxurazkoa diot; izan ere, sekula ez diot lan egiteari uzten. Beti dut proiekturen bat esku artean".




***Espilue* (2000)**
"Garai zoro samar baten isla da *Espilue* niretzako. Arrazoi pertsonalengatik ezin izan nuen aurrean eta ondoan neukanaz gozatu, hau da, garai polit batez gozatu. Horrekin lotzen dut nik *Espilue*".




***Lagun artean* (2003)**
"Grabatu nuen lehen DVDa izan zen. Nire musikaren muina zertan datzan erakusten saiatu ginen. Etxeko giroan egindako emanaldiaz gain, elkarrizketak, diskoei buruzko informazioa eta horrelakoak jasotzen ditu".




***Anek idatzi dit zutaz* (2007)**
"Oraina, gaur, momentua da *Anek idatzi dit zutaz*, eta, hain zuzen ere, oraina da niri gehien inporta zaidana. Autoekoiztutako diskoa da. Bi urteko lanaren ostean kaleratutako diskoa da".

**LITERATURA** > 'NEGUKO GIDA'

# 'Neguko gida' kaleratu dute ibarreko udal liburutegiek, irakurzaletasuna bultzatzeko

Literatura nobedadeak aurkeztu eta irakurzaletasuna bultzatu nahi dute, eta Debagoieneko Mankomunitatearen laguntza izan dute liburutegiek

**MIREN ARREGI** > DEBAGOIENA

Debagoieneko udal liburutegiek, Mankomunitatearen laguntzarekin, *Neguko gida* kaleratu dute, irakurzaletasuna bultzatu eta literatura nobedade aipagarrienak herritarrei aurkezteko asmoz. Zortzi urte dira udal liburutegiok *Udako gida* kaleratzen dutena, eta negukoa kaleratzen geroago hasi baziren ere, aurtengoa hirugarren edizioa izango da. *Neguko gida*-k egiten duen eskaintza oso zabala da eta 0 urtetik helduetarainoko eskaintzak aurki daitezke. Baita ikus-entzunezkoak ere.

**ESKAINTZA ZABALA**

Era guztietako liburuak aholkatzen dituzte Debagoieneko udal liburutegiek gidan: euskarazkoak, gaztelerazkoak eta itzulitakoak, eta baita era guztietako generoak jorratzen dituztenak ere.

Dagoeneko banatu dituzte gidak ikastetxeetan, eta Debagoieneko liburutegietan ere eskuragarri daude. Ez da laguntza txarra zein liburureki asmatu ez dakienarentzat. Gainera, erraz dauka interesatuak gomendatzen dituzten liburuak eskuratzeko; izan ere, gidan agertzen diren liburu guztiak udal liburutegietan egongo dira eskuragarri.




**'NEGUKO GIDA'-N** azaltzen dira azken hilabeteotako literatura nobedadeak. GOIENKARIA



**THE HOT DOGS** Talde urretxuarrak jarraitzaile ugari ditu. GOIENKARIA

**KONTZERTUAK** > 3.60 ARETOA

## 3.60 aretoan asteburu betea izango da honakoa

Gaur gauean Censurados eta Scam taldeak taularatuko dira eta bihar, The Hot Dogs

**MIREN ARREGI** > ARRASATE

Asteburua kontzertuz beterik datorkigu 3.60 aretoan. Izan ere, bai gaur eta baita bihar ere emanaldiak egongo dira.

Gaur gauean, 22:00ean hasita, Censurados taldea ikusi ahal izango da, eta ondoren Scam taldekoak ere izango dira entzungai eta ikusgai. Bihar, berriz, The Hot Dogs talde urretxuarrak eskainiko du saioa, eta DJ saioa ere egongo da kontzertuaren ostean, Alkate Clorofila Growren eskutik.

**MADRILDIK DATORREN ROCKA**

Censurados taldea Madriletik datorren rock talde bat da. Hard rocka, hardcorea, punk rocka eta metala lantzen ditu taldeak. Nirvana, Berri Txarrak, Reincidentes, Metallica, eta Incubus talde ospetsuen eragina nabari da euren kantuetan, baina soinu propioa sortzen dutela esan daiteke; soinu gogor eta freskoa aldi berean.

**ROCK INDARTSUA ZAPATUAN**

Doinu gogor eta indartsuekin iritsiko da gurera zapatuan Urretxuko The Hot Dogs talde ezaguna. 90eko hamarkadan eman zituen taldeak lehen urratsak, eta gaur egun, talde kontsolidatua da.

Jon Iturbe da The Hot Dogs taldeko abeslaria, eta ikuskizun paregabeak eskaintzen dituen abeslari karismatikoa da hura. Jarraitzaileek egina dute, beraz, bihar gauerako hitzordua.

**JARDUNALDIAK** > HISTORIA ZINEMAREN BIDEZ

# Historiak zineman izan duen isla, Arizmendiren eskutik

Hilaren 15ean hasita, 'Historia zinemaren bidez' izenburuko jardunaldiak egingo ditu Arizmendik EHUrekin elkarlanean

**MIREN ARREGI** > ARRASATE

"Historian zehar gertatutako hainbat gertakari historikok pantaila handian izan duten ikuspenaren isla eginaz, gizarteari beste eskaintza kultural bat egitea da helburua". Arizmendiko irakasle Jon Ander Ramosen hitzak dira horiek; hura da jardunaldien antolatzailea. *Historia zinemaren bidez* jardunaldiak urtarrilaren 15etik otsailaren 19ra bitartean izango dira, martitzenetan, 18:00etatik 21:00etara. Bost saio egingo dituzte, baina lau film eskainiko dituzte jardunaldiotan; izan ere, lehen egunean jardunaldiak aurkeztuko dituzte hitzaldi baten bidez, eta ez da filmik eskainiko. Beste saio guztietan, filmaren aurretik, hura bere testuinguruan kokatu eta haren nondik norakoak azalduko dituzte gai horietan adituak diren EHUko hainbat irakaslek.

**EHU-KO IRAKASLEAK HIZLARI**

Arizmendi ikastolak Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntza izan du *Historia zinemaren bitartez* jardunaldiak antolatzerakoan. Hala, film bakoitzaren aurretik ikusleak ikustera doazen filmaren testuinguruan kokatuko dituztenak EHUko irakasleak izango dira: Santiago de Pablo, Alvaro Aragon, Alberto Angulo, Ana de Zaballa eta Oscar Alvarez, hain zuzen.

**UMOREZKO ZINEMA ARDATZ**

"Lehenengo edizio honetan umorezko zinema hartu dugu ardatz", dio Ramosek; hala, zinema eta historia umorearen bidezidorretatik ezagutzeko aukera izango dute animatzen direnek. Eta hauxe gaineratu du: "Gertakari historiko zehatz bat hartu eta gai horrek zineman izan duen isla erakustera mugatu beharrean, lau film desberdin aukeratu ditugu; hala, garai historiko desberdinak jorratzeko aukera eskainiko dugu". Bada, Erdi Aroa, Aro Modernoa eta Aro Garaikidea, guztiak jorratuko dituztela azaldu digu Jon Ander Ramosek, jardunaldien antolatzaileak. Kulturateko aretoa bete gura dute antolatzaileek, eta film bakoitzaren bukaeran jendearen parte-hartzea espero dute.

**KREDITUAK ESKURA DAITEZKE**

Gainera, jardunaldi guztietan parte hartuz gero, unibertsitateko kredituak batu daitezke, ziurtagiria eskuratuta.

JARDUNALDIETAN ESKAINIKO DIREN FILMAK

**> ZINEMA ETA HISTORIA**

*Cine e historia ¿Una relación conflictiva?* delako hitzaldiarekin hasiko dira jardunaldiok, urtarrilaren 15ean, martitzena, Arrasateko Kulturaten arratsaldeko seietan. Hizlaria EHUko Santiago de Pablo da; lehen egun horretan ez da filmik eskainiko.

**> 'ERRESUMAKO PIZTIA'**

Erdi Aroan kokatuta dago film hori. Bruno monarkak duen erreinua txiki-txiki eginda uzten diharduen piztia baten istorioa kontatzen du. Film hori urtarrilaren 22an eskainiko dute, arratsaldeko seietan, Kulturaten.

**> 'KERMESSE HEROIKOA'**

Aro Modernoan girotutako film horrek XVII. mendean espainiarrek indarrez hartu zuten Flandesko herri txiki burges bateko historia kontatzen du. Urtarrilaren 29an eskainiko dute filma, hizlari Alberto Anguloren eskutik. 18:00etan hasiko da, Arrasateko Kulturaten.

**> 'TELEFONO GORRIA'**

Aro Garaikidean kokatzen den film horrek Gerra Hotzaren garaiko kontuak dakarzkigu gogora. AEBren eta Sobietar Batasunaren arteko tentsio uneak dira protagonistak filmean. Otsailaren 12an eskainiko dute eta hizlaria Ana de Zaballa izango da.

**> 'BAT, BI, HIRU'**

Film horrek ere Gerra Hotza du ardatz, baina amodio kontuekin datorkigu. Otsailaren 19an eskainiko dute filma eta hizlaria Oscar Alvarez izango da.

URTEURRENA

## Jose Maria Ugalde Olalde

Bergaran hil zen 2007ko urtarrilaren 19an, 80 urte zituela.

Lehen urteurreneko mezak
domekan, urtarrilaren 13an,
11:00etan eta 13:00etan,
Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Mariano Retolaza Aranzabal

Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilaren 13an,
11:00etan,
Angiozarko Mikel Goiangeruaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Salvadora Larrañaga Telleria

Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilaren 13an,
11:00etan,
Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Isabel Etxebarrieta Madinabeitia

2007ko urtarrilaren 6an hil zen.

## Joxe Inazio Telleria Etxebarrieta

2006ko abenduaren 28an hil zen.

Lehen urteurreneko meza
zapatuan, urtarrilaren 12an,
19:00etan, Arrasateko
San Frantzisko elizan.

*Urtebete ondoren
gogoan zaituztegu.
Ozen ezan nahi dizuegu
asko maite zaituztegula.*

Etxekoak



URTEURRENA

## Nicolasa Beloki Errasti

Martin Beitia Astigarragaren alarguna

Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilaren 13an,
11:00etan,
Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Jose Ignacio Telleria Etxebarrieta

'Telle'

*Hegoak ebaki banizkio nerea izango zen,
ez zuen aldegingo. Bainan, honela
ez zen gehiago txoria izango
eta nik... txoria nuen maite.*

Maite zaitugun guztion partez.

## hildakoak

- **Jesus Agirre Aldai.** Arrasaten, urtarrilaren 3an. 88 urte.
- **Juana Sagastizabal Zuluaga.** Bergaran, urtarrilaren 3an.74 urte.
- **Paulita Artola Ondarra.** Eskoriatzan, urtarrilaren 7an. 93 urte.
- **Izaskun Etxegoien Arzuaga.** Oñatin, urtarrilaren 7an. 39 urte.
- **Juana Mitikua Iarza.** Bergaran, urtarrilaren 9an. 90 urte.
- **Antonio Iturricastillo Askazibar.** Elgetan, urtarrilaren 9an. 77 urte.



ESKELAK
GOIENKARIAn eskela jartzeko
(eguen eguerdia baino lehen):
**943 25 05 05**
**idazkaritza@goiena.com**

**Eskelaren prezioa: 100 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **120** euro.

**Goienkaria: astero, 50.000 irakurle (CIES).**

## bono fotoa



**Erreta hil omen zen Oñatiko baseliza honi eta dagoen auzoari izena ematen dien santua. Nor zen hura?**

**Argazkia eta galdera** > Iñigo Biain

Super BM

Super BMk emandako
**50 euroko erosketa-txartela**
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

**ERANTZUNA** ........................................

IZEN-DEITURAK........................................
TELEFONOA ........................................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**Mendioliva oliba-olioa**
Litroko botila

**2,85 €**

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

Aramaioko **Victor Mendialdua**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

**Aurreko Galderaren erantzun zuzena: Ipizte (Iruatxeta).**

URTEURRENA

## Patxi Arriola Oregi



Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilaren 13an,
11:00etan,
Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Pedro Jausoro Galdos



Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilaren 13an,
11:00etan,
Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Benito Nafarrate Unzueta

Apaiza



Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilaren 13an,
12:00etan,
Aramaioko San Martin elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Candelario Zangitu Aperribai



Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilaren 13an,
11:00etan,
Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Elias Olmedo Paunero



Lehen urteurreneko meza
zapatuan, urtarrilaren 12an,
19:00etan,
Arrasateko San Frantzisko parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Maria Urriategi Larrea



Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilaren 13an,
11:00etan,
Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Maria Etxezarreta Alberdi

Ramon Arruabarrenaren alarguna

**2007ko abenduaren 19an hil zen, 96 urte zituela.**

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2008ko urtarrilaren 11n.

ESKER ONA

## Txomin Ibabe Zumelaga

**Arrasaten hil zen 2007ko abenduaren 29an, 87 urte zituela.**



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2008ko urtarrilaren 11n.

ESKER ONA

## Crispin Salazar Salazar

Miren Jauregiren alarguna

**Bergaran hil zen 2008ko urtarrilaren 1ean, 83 urte zituela.**



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2008ko urtarrilaren 11n.

ESKER ONA

## Rosario Iñurritegi Ortiz de Zarate

Modesto Larrañagaren alarguna

**Bergaran hil zen 2007ko abenduaren 20an, 92 urte zituela.**



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2008ko urtarrilaren 11n.

ESKER ONA

## Izaskun Etxegoien Arzuaga

**Oñatin hil zen 2008ko urtarrilaren 7an, 39 urte zituela.**



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko Ugarte Gonzalez sendikoen izenean.

Oñatin, 2008ko urtarrilaren 11n.

ESKELA

## Izaskun Etxegoien Arzuaga

**Oñatin hil zen 2008ko urtarrilaren 7an, 39 urte zituela.**



*Betiko lagunak,*
*betirako elkarrekin.*

**Esteban, Bixkai, Txitxarra, Monika,
Ruth, Nerea, Mailen, Amaia eta Agur.**

ESKER ONA

## Juanita Milikua Yarza

Juan Arinen alarguna

**Bergaran hil zen 2008ko urtarrilaren 9an, 90 urte zituela.**



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2008ko urtarrilaren 11n.

ESKELA

## Ignacio Gorosabel Madinabeitia

**Donostian hil zen 2007ko abenduaren 27an, 62 urte zituela.**



*Familiak ez zaitu ahaztuko.*

Arrasaten, 2008ko urtarrilaren 11n.

**OROILORE Hileta eta Beilatoki zerbitzuak**
Amillaga auzoa 27. 20570 Bergara
Tel.: 617 44 21 55 - 943 76 94 73 - Faxa.: 943 76 94 76
maribi@oroilore.com



Bidaia ezin hobea

OROILORE
Funeraria-Tanatorio
Hileta eta Beilatoki zerbitzuak

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

**Bergara:**
- Zabalotegi 80 $m^2$. Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 80 $m^2$. Eguzkitsua.
- Martoko 92 $m^2$. Prezio ona.
- Martoko 52 $m^2$. Berritua.
- Ibargarai. 40 $m^2$. Berria.
- Bidekurutzeta 60 $m^2$. Berritua.
- Martoko 52 $m^2$. Berritua.
- Iraburu 84 $m^2$. Terrazarekin.
- Zubieta 60 $m^2$. Prezio ona.
- San Juan. Bifamiliarra.
- Zubiaurre 70 $m^2$. Berritua.
- Martoko 53 $m^2$. Igogailuarekin.

**Antzuola:**
- Buztinzuri 76 $m^2$. Prezio ona.
- Aiherra 123 $m^2$. Duplexa.

**Elgeta:**
- San Roke 90 $m^2$. Berritua.
- Salbador 90 $m^2$. Igogailuarekin.
- San Roke. Prezio ona.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**BERGARA**
- Artekale, 82$m^2$, ondo
- Artzamendi, 80 $m^2$, oso ondo
- Zabalotegi, 80 $m^2$, ondo
- Ibargarai, 80 $m^2$, oso ondo
- Artekale, 70 $m^2$, oso ondo
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua
- Mugertza, 60 $m^2$, berria, aukera ona
- Zubieta 70 $m^2$, ondo
- Matxiategi, 65 $m^2$, ondo
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin
- Aranerreka, 87$m^2$, ondo
- Bidekurutzeta, duplexa, berritua
- San Anton Abad, 70$m^2$, oso ondo
- Etxebizitza berrien eraikuntza Madura, Masterreka eta Zubiaurren.
- Zurradero, 81$m^2$, oso ondo

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83$m^2$, berria

**ANTZUOLA**
- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 $m^2$, erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 $m^2$, ia berria.

# 1/ ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Aretxabaleta.** Bi etxebizitza salgai erdialdean. Batak 115 metro koadro, lau logela, sukaldea, egongela, jangela eta bi komun. Besteak 75 metro koadro, bi logela, sukaldea, egongela, jangela eta bi komun. Biak igogailuarekin. 648 79 46 77.

**Aretxabaleta.** Erdigunean teilatupeko etxebizitza salgai. 72 $m^2$. Jantzita. 16 metro koadroko garajea. Deitu ezazu telefono honetara: 659 64 67 38.

**Aretxabaleta.** Etxebizitza salgai Durana kalean. 90 metro koadro, hiru logela, bi bainu, egongela, terraza eguzkitsua eta ganbara. Deitu ezazu telefono honetara: 685 76 44 77.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Grupo San Juanen. 60 $m^2$. Oso egoera onean. Altzariekin eta bizitzera sartzeko moduan. Ganbara eta sotoa dauzka. Igogailua eta berogailua, berriak. 600 90 76 73 edo 635 71 93 00.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai. Otalora 2. Azken solairua, ikuspegi zoragarria, 3 logela, 2 komun. Bizitzera sartzeko moduan. Deitu ezazu telefono honetara: 675 71 37 27.

**Arrasate.** San Andresen etxebizitza salgai. 57 $m^2$. Guztiz berritua. Bi logela, egongela, bainugela, sukaldea. Kanpoaldera begira. Igogailua eta 37 $m^2$-ko sotoa. Deitu ezazu telefono honetara: 620 15 12 12.

**Arrasate.** San Andresen. 61 $m^2$. Sukaldea, bainugela, bi logela, egongela eta terraza. Igogailua. 12 $m^2$-ko sotoa. Berritua eta sartzeko prest. Ongi kokatua. 669 14 67 92.

**Arrasate.** San Andresen. 61,50 $m^2$ eta 261.440 euro. Bi logela, bainugela bat, egongela, sukalde hornitua eta terraza. Jantzia. Igogailua berritu berri eta 12 $m^2$-ko trastelekua. Bizitzera sartzeko prest. Telefonoa: 669 14 67 92.

**Bergara.** 80 metro koadroko etxebizitza salgai Koldo Eleizalde kalean. Berritua eta bizitzera sartzeko moduan. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, jangela, trastelekua eta garajea. Prezio interesgarria. 665 30 42 26 edo 627 34 91 77.

**Bergara.** 90 $m^2$-ko duplexa salgai. Ibargarai 21. Jantzia. Estreinatzeko dago. Garajearekin. Deitu ezazu telefono honetara: 619 71 70 53 edo 943 76 54 72.

**Bergara.** Alde zaharrean etxea salgai. Bi logela eta berogailua dauzka. Guztiz eraberritua. 649 56 34 92.

**Bergara.** Basalgo auzoan baserria salgai lursailarekin. 610 73 65 40 edo 943 76 19 28.

**Bergara.** Etxebizitza nahiko berria da, erdialdean, eta egoera oso onean dago. 90 metro koadro ditu, ia erabat jantzita. Deitu ezazu telefono honetara: 685 72 40 30.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Zubiaurren. Guztiz berritua. Berogailua eta ganbara. Telefonoa: 619 41 39 72.

**Bergara.** Etxebizitza salgai erdialdean. Berritua. Bi logela eta ganbara ditu. 605 73 37 39.

**Bergara.** Labegaraietan etxebizitza berritua salgai. 29.800.000 pezeta. Deitu ezazu telefono honetara: 635 71 04 55.

**Bergara.** Zabalotegin etxea salgai. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Telefonoa: 653 70 84 04.

**Bergara.** Zientzietako klaseak ematen ditut (Matematika, Fisika, Kimika, Biologia eta Geologia), Lehen hezkuntzako, DBH-ko eta Batxilergo kurtsoetan dauden ikasleentzat. Arreta pertsonalizatua eta ikaslearen etxean. Deitu ezazu telefono honetara: 627 85 20 80.

**Debagoienean** edozein motatako lanak egingo nituzke. 659 58 67 69.

**Donostia.** 74 $m^2$. Zurriolako hondartzatik bost minutura. 55.000.000 pezeta. Aukera aparta. Deitu ezazu telefono honetara: 639 33 33 58.

**Donostia.** Egia auzoan. 55 $m^2$. Dekoradoreak egindako erreforma integrala. 52.000.000 pezeta. Aukera aparta. Deitu ezazu telefono honetara: 639 33 33 58.

**Elgeta.** Etxea salgai Elgetan. Bi logela, ganbara, igogailua. 946 81 71 97.

**Elgeta.** Etxebizitza salgai. Bigarren solairua. Igogailua dauka. Hiru logela, sukaldea, komuna eta ganbara. Aukera ona. 137.032 euro (22.00.800 pezeta). Telefonoa: 645 71 76 25.

**Eskiatzeko** botak salgai. 40-41 neurriko Lange 130 World Cup MF modeloa. Lehiaketetarako, eta umeentzako. Oso egoera onean. 120 euro. Deitu ezazu telefono honetara: 676 97 54 44.

**Eskoriatza.** 90 metro koadroko etxebizitza salgai. Sukaldea, egongela, lau logela, bi bainugela eta beste bi terraza ditu, baita gas bidezko berogailua ere. Erabat berritua. 636 57 76 13.

**Eskoriatza.** Baserri berria salgai. 220 $m^2$. Bi bizitza ditu. Lursaila dauka. 420.708 euro. Deitu ezazu telefono honetara: 647 64 02 81.

**Eskoriatza.** Etxebizitza salgai Dorleta auzoan. 82 metro koadro. Lau logela, sukalde-jangela, bainugela eta lehortegia ditu. Berogailua du. Oso eguzkitsua da. 210.000 euro. Aukera paregabea. Deitu ezazu telefono honetara: 645 97 45 64.

**Getarian** itsasoari begira 58 metro koadroko etxebizitza salgai. Estreinatu gabea. Deitu ezazu telefono honetara: 699 18 75 68.

**Guardamar del Segura (Alacant).** 63 $m^2$-ko apartamentu berria salgai. Logela, bainugela, egongela, sukaldea, terraza, aire girotua, solariuma eta trastelekua ditu. Erabat jantzita. 117.800 euro. Deitu ezazu telefono honetara: 657 79 88 01.

**Luz Saint Sauveur.** Apartamentua salgai. 76.000 euro. Aukera ona. 685 78 37 82.

**Nafarroa.** Urederra inguruan bi solairuko etxea salgai. 123 metro karratu. Berritua. 185.000 euro. Deitu ezazu telefono honetara: 943 76 00 03.

**Oñati.** Duplexa salgai eraikitzen diharduten eraikinean. Lehen eta bigarren solairuak. Garajea eta trastelekua dauzka. Zubibarri kalean. 670 85 85 41.

# IRAGARKI SAILKATUAK

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 18 EURO (+BEZ-A) ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO.**
**PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 25 EURO (+BEZ-A).**

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ARRASATE-ARETXABALETA**
**Okindegi- gozotegiak zerbitzari-dendaria behar du. Esperientziaduna.**
**645 99 67 06**

**Oñati.** Apartamentua salgai Kalegoieneko plaza berrian. Bi logela, bainugela, sukalde-egongela eta trastelekua. Egoera onean. Deitu ezazu telefono honetara: 605 77 46 79.

**Oñati.** Duplexa salgai. 120 $m^2$, erdialdean. Argitsua eta material ederrekin egina. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela eta estudioa. 420.000 euro. Deitu ezazu telefono honetara: 676 39 36 93.

## 103. ERRENTAN EMAN

**Aramaio.** Etxebizitza alokagai herriko plazan. 4 logela, 2 komun, sukaldea, egongela eta berogailua dauzka. Lehenengo solairua. Deitu ezazu telefono honetara: 945 44 53 60.

**Arrasate.** 70 $m^2$-ko etxea errentan unibertsitate aldean. Deitu ezazu telefono honetara: 634 40 37 03.

**Bergara.** Barrenkalean etxebizitza errentan. Erabat berritua. Bi logela ditu. Jantzia. Deitu ezazu telefono honetara: 656 85 38 30.

**Bergara.** Erdialdean dago. Sukaldea, egongela, bi logela eta bi komun. 900 euro hilean. 20:00etatik 22:00etara deitu. Deitu ezazu telefono honetara: 679 86 64 38.

**Costa Sancti Petri-Chiclana** (Cadiz). Udarako guztiz hornituta dagoen apartamentua errentan ematen da. Leku zoragarrian kokatua, urbanizazio berria, igerilekua, mini-golfa, lorategiak... La Barrosa hondartzatik oso gertu. Deitu ezazu telefono honetara: 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

## 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta edo Arrasaten** etxea errentan hartuko luke bikote batek. Deitu ezazu telefono honetara: 610 82 02 17.

**Aretxabaleta edo Eskoriatza.** Igogailua duen etxe txiki bat alokatuko nuke. Deitu ezazu telefono honetara: 696 74 92 43.

**Arrasate inguruan** langile gazte batek logela hartuko luke errentan. Deitu ezazu telefono honetara: 630 43 72 96.

**Arrasate inguruan** logela bila dabilen langilea naiz. Galiziatik Ikerlanera lanera nator. Urtarriletik aurrera behar dut. Mila esker. Daniel. Deitu ezazu telefono honetara:616 90 58 38.

**ARRASATE**
**Ile-apaintzailea behar da.**
**676 22 33 18**

**Bergara.** Etxea errentan hartuko nuke erdialdean. Ez du zertan berria izan. Deitu ezazu telefono honetara: 669 64 76 28.

**Donostian** logela bat hartu nahi dut etxe partekatuan. 30 urte ditut eta lanean ari naiz. Deitu ezazu telefono honetara: 655 73 23 34.

**Etxe edo logela bila.** Galiziatik Ikerlanera praktika egitera nator eta urtarriletik aurrera logela bakarreko etxe bila nabil; ez bada posible, logela ez banatzea eskertuko nuke. Deitu ezazu telefono honetara: 616 90 58 38.

## 105. ETXEAK OSATU

**Aramaio.** Etxebizitza osatzeko pertsona baten bila gabiltza. Deitu ezazu telefono honetara: 699 28 99 06.

**Arrasate.** Musakolako etxebizitza batean logela emango nuke errentan. Berogailua du. Oso eguzkitsua. Egoera onean. Deitu ezazu telefono honetara: 943 79 02 37 edo 699 47 76 24.

**Arrasate.** Pisua osatzeko bi lagun etxe eta jende bila dabiltza. (Haritz eta Manex). Deitu ezazu telefono honetara: 605 75 69 84 edo 675 70 46 88.

**Arrasaten.** Jendea behar da etxebizitza osatzeko. Deitu ezazu telefono honetara:630 43 72 96.

**Gasteiz.** Neska behar dugu etxea osatzeko Gorbea kalean.Berokuntza zentrala dauka.350€ hilero, gastu guztiak barne. Deitu ezazu telefono honetara: 652 72 18 87.

**Pertsona** bat behar da etxebizitza osatzeko Aretxabaletan Otsailerako pertsona bat behar da etxebizitza bat osatzeko Aretxabaletan. Deitu ezazu telefono honetara: 652 72 00 06.

## 106. BESTELAKOAK

**Aretxabaleta.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. 652 72 00 06.

# 2/ GARAJEAK

## 201. SALDU

**Bergara.** Garajea salgai Masterreka kalean. 651 70 90 12.

**ARRASATE**
**Zerbitzari euskalduna behar da aste bukaeretarako.**
**670 42 21 08**
**617 20 59 45**

**Eskoriatza.** Garaje itxia salgai Aingeru ibiltokian, gasolindegitik gertu. Deitu ezazu telefono honetara: 607 43 84 55.

**Oñati.** Garaje itxia Olapoto auzoan. 17 $m^2$. 943 08 18 13 edo 677 42 57 94.

## 203. ERRENTAN EMAN

**Antzuola.** Garaje plaza emango nuke errentan Sagastin. 650 55 44 98.

**Aramaio.** Iturrizuri kalean garaje bat errentan ematen da. Gauez deitu. 945 44 51 97.

**Arrasate.** Garajea errentan Kontzezino kalean. 943 79 54 06 edo 655 71 81 84.

**Arrasate.** Garajea errentan Uarkapen. 675 71 59 92.

**Garaje irekia** errentan Uribarri kalean. Trastelekuarekin. 635 72 27 81 edo 686 62 25 75.

# 4/ LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Aretxabaleta.** Zerbitzaria behar da. Telefonoa: 615 74 62 50 edo 943 77 11 81.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da lanaldi erdiz umeak zaintzeko. 943 79 52 78.

**Bergara.** Egunean bi orduz umeak zaintzeko emakumea behar da. 686 24 68 92.

**Bergara.** Emakumea behar da etxean lan egin eta umeak zaintzeko. 943 76 50 63 edo 690 77 66 03.

**Bergarako** etxe batean andre euskalduna behar da 07:00etatik 09:30era. 656 41 00 03.

## 402. ESKAERAK

**Antzuola.** Emakumea gertu atariak, lokalak eta abar garbitzeko. 667 80 63 97.

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu adinekoak edo umeak zaintzeko, eta etxeko garbitasun lanak egiteko. 943 53 33 92.

**Arrasate.** Emakume euskalduna etxeko lanak egiteko gertu. 680 49 11 45.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu umeak zaintzeko. Esperientziaduna. 943 79 78 43 edo 665 74 51 22.

**Arrasate.** Emakumea gertu garbiketa lanak egin edota nagusi zein umeak zaintzeko. Maria Teresa Oliva. 943 79 13 10.

**Arrasate.** Neska euskalduna prest eguerditik aurrera umeak zaintzeko, goizez Haur Hezkuntzako ikasketak egiten diharduelako. 620 42 38 48 edo 690 19 82 79.

**Arrasate.** Neska gertu etxeko lanak egin, bulegoak garbitu eta umeak zaintzeko. Esperientziaduna. 696 11 01 94.

**Bergara.** Egunean bi orduz umeak zaintzeko emakume bat behar da. 686 24 68 92.

**Bergara.** Emakume bat etxeko lanak eta adineko pertsonak zaintzeko gertu. 618 93 59 29.

**Bergara.** Esperientzia handia duen emakumea haurrak zaintzeko prest. 675 70 10 63.

**Bergara.** Etxeko lanetan edo adinekoak zaintzen lan egiteko gertu. Esperientziaduna. Telefonoa: 650 17 74 87.

**Bergara.** Neska gaztea etxeak garbitzeko gertu. 10:00etatik 12:00etara eta 15:00etatik 18:00etara. 696 84 19 51.

**Debagoiena.** Edozein lan egingo nuke, batez ere ostalaritzan. 638 44 02 84.

**Debagoiena.** Emakumea gertu arratsaldeko 3ak arte etxeko lanak egin, lantegi edo bulegoak garbitu edota pertsonak zaintzeko.Maura. 637 06 16 31.

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko. Telefonoa: 610 84 94 85.

**Debagoiena.** Emakumea prest nagusiak edo umeak zaintzeko. 663 65 78 43.

**Debagoiena.** Era guztietako ordenagailuak konpondu, instalatu eta gertatzen ditut. Aaron. 659 58 67 69.

**Debagoiena.** Eraikuntzan lan egingo nuke. Urtarriletik aurrera. Esperientziarekin. 696 48 42 50.

**Debagoiena.** Gizonezko gaztea eraikuntza alorrean lan egiteko gertu. Bigarren mailako ofiziala. 696 48 42 50.

**Debagoiena.** Mutil gaztea gertu edozein lan egiteko. Arkaitz. 608 14 68 03.

**Debagoiena.** Mutil gaztea lan egiteko gertu. 645 72 92 87.

**Emakumea** atariak edo etxebizitzak garbitzeko prest. Segurua daukat. 695 58 88 63.

**Oñati.** Neska bat gertu tabernak edo elkarteak garbitzeko. 635 70 07 92.

# 5/ IRAKASKUNTZA

## 501. JASO

**Arrasate.** Goi zikloetarako sarrera-proba egin ahal izateko, matematika eskolak hartuko nituzke, aste bukaeretan. 629 42 25 84 edo 669 23 61 85.

**Eskoriatza.** Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako ikasleari eskola partikularrak emateko irakaslea behar da. 943 71 46 87 edo 646 87 29 32.

## 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Ingeles eskolak ematen ditut. 943 79 03 83.

**Arrasate.** Neska euskalduna prest Lehen Hezkuntzako umeei eskola partikularrak emateko. Deitu ezazu telefono honetara: 620 42 38 48 edo 690 19 82 79.

**Bergara.** Ikasketadun gazte bat Lehen Hezkuntzatik batxilergorainoko haurrei eskola partikularrak emateko prest dago. 645 71 81 84.

**Bergara.** Zientzietako klaseak ematen ditut (Matematika, Fisika, Kimika, Biologia eta Geologia), Lehen hezkuntzako, DBH-ko eta Batxilergo kurtsoetan dauden ikasleentzat. Arreta pertsonalizatua eta ikaslearen etxean. 627 85 20 80.

# 6/ MOTORRA

## 601. SALDU

**Autokarabana** salgai. 1990ekoa, egoera onean. 7.500 euro. 686 86 01 62.

**BMW 320.** 1996koa. Telefonoa: 635 71 04 55.

**BMW F 650 GS** motorra salgai. Egoera oso onean: 2.543 kilometro. Bi urte. Hainbat osagai. 6.100 euro. 636 85 74 43.

**C-Max** autoa salgai. Hagunak (llantak) eta aire-girogailua ditu. 50.000 Km. Diesela. 14.000 euro. 639 90 36 18.

**Derby Senda-R** 4000 kilometrodun 49ccc-dun motorra salgai. 950 euro eta egoera oso onean. Deitu ezazu telefono honetara: 670 60 02 65.

**Ford Fiesta 1.1** autoa salgai. 1994an matrikulatua. Egoera onean, IAT (ITV) pasa berri. 95.000 km. 669 73 76 04.

**Ford Mondeo 2.500** V6 familiarra. 1998koa. 635 71 04 55.

**Harley Davidson** motorra salgai. 883 cc. Transformatua. Egoera onean. 6.000 euro. Telefonoa: 686 86 01 62.

**KTM 250** EXC 2T salgai. 2000koa. Matrikulatua eta paper guztiak egunean. IAT (ITV) 2009ko martxora arte. Diskoak eta transmisioa jarri berriak. Oso egoera onean. 2.300 euro, transferentzia barne. 699 98 36 71.

**Karabana** salgai. Bürstner Holiday. AL-KO egonkortzailearekin. Hozkailua, hiru su eta Thetford komuna. Truma berogailua. Telebistarendako antena. Udako Fiamma toldoa eta neguko abantzea. 3.500 euro. 655 70 16 44.

**Nissan Almera** salgai. 2,2 di. 16 v. Sport. 646 03 39 45.

**Peugeot 205.** 121.000 Km. SS-X matrikula dauka. 450 euro. Deitu ezazu telefono honetara: 606 21 72 56.

**Onda CR** litro eta erdiko motorra salgai. 1999koa. 1.200 euro, negoziagarriak. Deitu ezazu telefono honetara: 686 37 71 39.

**Volkswagen Transporter TDI** furgoneta salgai. 2004koa, 95.000 km. 1.9 motorra, 104 ZP. Aire girotua, berogailu estatikoa, atzekoa muntatuta. 685 72 11 67.

# 7/ ANIMALIAK

## 701. SALDU

**Cocker ingelesa** salgai, emea. Txertoa jarrita, parasitoak kenduta eta mikrotxiparekin. Beltza. 250 euro. Deitu ezazu telefono honetara: 696 11 01 94.

## 703. EMAN

**Txakur** txiki bat opari egiten da. Emea eta kanela kolorekoa. Txertoa jarrita eta parasitoak kenduta dauzka. Deitu ezazu telefono honetara: 696 11 01 94.

# 8/ DENETARIK

## 801. SALDU

**Astrolon teleskopioa** salgai. Deitu ezazu telefono honetara: 943 79 41 31.

**Autorako** umeen aulkia salgai. Deitu ezazu telefono honetara: 943 79 41 31.

**Gitarra elektrikoa** salgai, ezkertiarrendako. Fender Stratocaster mexikarra. Marroi eta zuria. Urtebete bakarrik du. 600 euro. Anplifikadorea nahi izanez gero ere saltzen dut, Ibanez markakoa, prezio onean. 685 73 11 35 edo 943 79 45 33.

**Jostun manikia** salgai. Prezio onean. Arrasate. 635 75 09 47.

**Karabina salgai** Karabina erdiautomatikoa saltzen dut, 22koa. Berri-berri dago. 943 76 56 94.

**Mahai obalatua** salgai. 136x92 cm, luzagarriarekin. Asier. Telefonoa: 617 17 15 88.

**Olympus E-410** argazki kamera digitala saltzen dut. ED 14-42 mm eta 40-150 mm-ko objektiboekin. Erabili gabe dago. 700 euro. 660 80 09 71.

**Olympus e-330.** Gorputza gehi Zuiko Digital 14-45 eta 40-150 objektiboak. Bi filtro, GB bateko xD txartela, Case Logic garraio-poltsa eta hiru cr123a pila erabiltzeko bateria opari. 500 euro. 667 95 73 16.

**Somierra** salgai. 1,35. 60 eurotan. 617 17 15 88.

**Ume-kotxea** salgai, bikiendako. Jane Twin Two markakoa. Matrix Pro bi opari. Sei hilabete erabilita eta egoera oso onean. 645 00 99 35 edo 636 51 54 79.

## 802. EROSI

**Bigarren eskuko** soinu handia erosiko nuke. Iker. Telefonoa: 635 00 69 26.

## 803. EMAN

**'Desnivel' eta 'Pyrenaica'** aldizkari zahar mordoa daukat kentzeko (botatzeko). Inork gura baditu, deitu arratsaldeko 6etatik aurrera. 646 37 76 57.

**Gurpil-aulkia** eta nagusien takataka debalde ematen dira. Telefonoa: 636 34 18 47.

## 806. GALDU

**Argazki kamera digitala** galdu dut Bergarako taxi geltokian. Sarituko da. Deitu ezazu telefono honetara: 605 71 77 11.

**Txaketa beltza.** Urtarrilaren 5eko gauean, Bergarako Ariznoa tabernan txapeladun bi txaketa beltz berdin nahastu ziren nahi gabe, bat S neurrikoa eta nirea XL. Gustura trukatuko nituzke berriz. Telefonoa: 645 00 53 91.

## 807. AURKITU

**Argazki kamera** digitala aurkitu dut mendian. Deitu ezazu telefono honetara: 607 97 61 85.

**Txaketa beltza** aurkitu nuen Gabon Zahar gauean, Bergarako Ariznoa taberna parean. Deitu ezazu telefono honetara: 943 76 29 79.

# 9/ HARREMANAK

## 902. HARREMANAK

**Emakumezkoa ezagutuko nuke.** 39 urteko gizonezko arrasatearra naiz, eta emakumezkoa ezagutuko nuke edozein harremanetarako. Ezkongabea naiz, eta ez dut seme-alabarik. Deitu ezazu telefono honetara: 943 79 02 37.

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA
**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13
**LORENZO M. JOOSTEN**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behea / 943 79 29 13

## ALBAITARIAK
**ARATZ KLINIKA (LAZPIUR ROMAN)**
Bergara / Zurradero 6, behea / 943 76 70 67 / 607 48 71 19
**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## ANALISI KLINIKOAK
**LABORRA ISABEL**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## BARNE MEDIKUNTZA
**IRIGOIEN VICTOR**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## DENTISTAK
**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23
**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46
**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23
**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Zerkaosteta 19, behea / 943 79 71 90
**ASTIAZARAN SOLOZABAL**
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95
**BENGOA SAN MIGUEL ANGEL**
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57
**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77
**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54
**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88
**IRIARTE IRURETA ANE MAITE**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45
**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74
**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36
**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA
**TAMAYO CONCEPCION**
OÑATI / ATZEKO KALEA 6, BEHEA / 620 124 843 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK
**GAES**
Arrasate / Otalora Lizentziaduna 18 / 943 71 27 93
Bergara / Zurradero 10 / 943 76 94 55
**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
**ITZIAR UGARTE OPTIKA - AMPLIFON**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

## ERREUMATOLOGIA
**GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**
**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## FISIOTERAPEUTAK
**ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA**
Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96
**ARZAK MIREN**
Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71
**BASTERRETXEA MARIA**
Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71
**IONE MOÑUX FISIOTERAPIA ZENTROA**
Bergara / Burdiñate 2 / 943 76 21 31
**IRATZARRI FISIOTERAPIA LOGOPEDIA ZENTROA**
Arrasate / Uribarri etorbidea 7 / 943 53 39 90
**UNZUETA IRENE. SAN MARTIN OSASUNDEGIA.**
Bergara / Ramon Maria Lili 2 / 943 76 59 39

## HOMEOPATIA
**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA
**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA
**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77
**IRATZARRI LOGOPEDIA FISIOTERAPIA ZENTROA**
Arrasate / Uribarri Etorbidea7 / 943 53 39 90

## MASAJISTAK
**ABUIN JOSE LUIS**
Arrasate / San Josepe 10, behea D – Kiroldegian
943 77 01 33 / 943 77 16 77
**ARANTZABAL SAIOA**
Elgeta / Domingo Iturbe 10 / 646 50 00 29
**ARANTZETA JUAN MARI**
Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54
**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43
**CASANELLAS JABIER**
Bergara / Boni Laskurain 5-2E / 943 76 03 78
**ELORTONDO FLOREN**
Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK
**ARRASATE OPTIKA**
Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98
**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21
**INSTITUTO OPTICO**
Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68
**ITZIAR OPTIKA**
Oñati / Kale Barria 32 / 943 71 82 88
**ITZIAR UGARTE OPTIKA**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87
**MULTIOPTICAS LARRAÑAGA**
Arrasate / J. Carlos Guerra 1 / 943 79 29 95
Bergara / Ibargarai 16 / 943 76 15 75
**PORTALOI OPTIKA**
Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

## ORTOPEDIA
**ORTO LAGUN**
Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK
**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA
**BENGOA NEREA**
Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK
**AZPIAZU ARANTZAZU**
Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32
**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46
**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84
**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA
**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK
**AGIRRE ENARA - PSIKOTERAPEUTA**
Antzuola / Olaran etxea 3, MA10 / 670 45 19 62
**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86
**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16
**PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA ZENTROA**
Bergara / Herri lagunak z/g / 943 76 14 80 / 610 05 99 55
**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## UROLOGOAK
**LLUCH ALBERTO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)**
Arrasate / Ferrerias 56 / 943 79 44 22

## YOGA
**AREDHANA YOGA ETA GESTALT PSIKOTERAPIA ZENTROA**
Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.
**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea / 943 76 11 38 / 639 235 753

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.

Maialen Lizarralde > Barne diseinugilea

# "Modernoak garela uste dugun arren, gurean klasikoak gara etxeen diseinuan"

Diseinugilea da Maialen Lizarralde, barne diseinugilea, hain zuzen ere. Arte ikasketak Ingalaterran egin ostean, orain etxeak jendearen beharretara eta gustuetara egokitzen jarduten du. Kanpora joaten denean beti egoten da detailerik txikienari begira dekoraziorako ideiak hartzeko asmotan. Bidaiatzea du gustuko eta kirola da haren beste zaletasunetako bat.

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

**Oñatiar honek, herriko estudio batean jardun ostean, Bergaran zabaldu du bere barne diseinu estudioa. Plano, dekorazio aldizkari eta katalogo artean, ikasketak, lan ibilbidea eta diseinu joerak eta zaletasunak izan ditugu hizpide.**



**Nolakoa da Maialen Lizarralde?**
Inkonformista, ausarta eta ametsak burutzea gogoko duena.

**Barne diseinuan jardutea zen zure ametsa eta horretan diharduzu. Nolatan hasi zinen?**
Betidanik gustuko izan dut mundu hori, batik bat artea. Argi nuen nire lanak originala izan behar zuela, buruari bueltak ematekoa, beti gauza berean jardun ordez. Batxilergo Zientifikoa egin ostean, arterantz bideratzea erabaki nuen. Hala, Artea eta ondoren Barne Diseinua ikasi nituen.

**Non egin zenituen ikasketak?**
Ingalaterran egin nituen Arte ikasketak. 18 urte nituela erabaki nuen ingelesa ikasteko eta pertsona modura hazteko aukera egokia zela, eta, bi aldiz pentsatu gabe, abentura bila abiatu nintzen. Londrestik 20 minutura dagoen Woking herrian egon nintzen aurrez ezagutzen nuen familia batekin. Etxekoandreak Barne Diseinua ikasia zuen eta nik hango eskola batean ikasi nuen.

**Nolako esperientzia izan zen?**
Urtebete pasa nuen eta esperientzia oso ona izan zen, baina era berean gogorra, ikasgelan atzerritar bakarra nintzelako.

**Berriz gurera bueltatzea arraroa egin zitzaizun?**
Gustura bueltatu nintzen eta Gasteizen jarraitu nituen ikasketak. Ikasketei dagokienez sekulako ezberdintasuna sumatu nuen. Han *self teaching* delakoa egiten dute, hau da, materia barneratzea eta gero nork bere kontura informazio gehiago lortzea eta ikastea; hemen errazagoa da, materiala eskura ematen digute.

**Orain barne diseinugilea zara. Zein da zure eginbeharra?**
Askok dekoratzaile deitzen badigute ere, ezberdindu egin behar dira. Gure lana da beharren arabera espazioak sortzea eta etxea diseinatzea. Horretarako, detailerik txikienak hartu behar dira kontuan. Dekoratzailearen lana gehien ikusten dena da, baina aurretik lan handia egin behar da.







IRATI AGIRREAZALDEGI

**PERTSONALA**

**Herria:** Oñati. **Adina:** 23 urte. **Ikasketak?** Artea eta Barne Diseinua. **Zaletasunak?** Kirola, bidaiak, zinema eta bertsolaritza. **Etxe batean falta ezin diren altzariak?** Aulkiak eta lanparak. **Zein kolorerekin margotuko zenituzke zure etxeko hormak?** Zuriz. **Bidaiatzeko toki bat?** Italia. **Bizitzeko leku bat?:** Euskal Herria. **Futbolari bat?** Xabi Alonso. **Bertsolari bat?** Andoni Egaña. **Biziorik baduzu?** Bai, kafea. **Amets bat?** Abian ipini berri dudan proiektua, barne diseinu estudioa, martxa onean joatea.

**Ingalaterran egon ostean, barne diseinuari dagozkion ideiak ekarri dituzu gurera?**
Batzuk bai; beste batzuk, berriz, erabat baztertu ditut. Asko gustatzen zaizkit hango espazio irekiak, baita ate zuriak ere; bestalde, ez ditut batere atsegin moketak.

**Gurean nolakoak gara etxeak janzteko orduan?**
Modernoak garela uste dugun arren, nahiko klasikoak gara, hemengo modernoa ez da horrenbesterakoa. Esaterako, Italiatik jasotzen ditut katalogoak eta oso aurreratuak dira diseinuari dagokionez. Hemengoei erakutsita ez dira diseinu horiek erabiltzera ausartzen. Klasiko berriak garela esan genezake, eta baserri girokoa ere asko gustatzen zaigu.

**Nola jantziko zenuke zuk etxea?**
Gauza oso minimalistak eta modernoak ez zaizkit gustatzen. Zaharraren eta berriaren arteko konbinazioa nahiago dut; hortaz, etxe egokia litzateke baserri edo etxe zahar baten egitura duena, altuera handikoa, altzari modernoekin jantzia.

**Ikastera Ingalaterrara joan zinen. Gainontzean ere kanpora irtenzalea zara?**
Bai. Gainera, arkitektura oso gustuko dut eta arretaz begiratzen diet gauzei. Argazki mordoa ateratzen dut, eta, esaterako, leiho batetik armairu baterako ideia sortzen zait. Hala ere, oraindik toki asko daukat ezagutzeko; nire ametsa Italia bisitatzea da. Alemanian auzolandegi batean izan nintzen eta asko gustatu zitzaidan. Urrutira joan gabe ere badaude leku politak: Iparraldea gustatzen zait; Lanzaroten arkitektura oso zainduta dago...

**Zein beste zaletasun duzu?**
Orain artean futbolean ibili naiz; iaz, lana zela-eta ez nuen jokatu eta aurten, Oñatin ez delako nesken talderik sortu. Gainontzean, futboleko lagunekin antxintxika egitera joaten naiz, bizikletan ibiltzen naiz eta mendia ere gustuko dut. Beste nire zaletasunak bertsolaritza eta zinema dira.

**Etorkizunean barne diseinuan jarraitzeko asmorik baduzu?**
Orain dela gutxi ireki dut estudioa, eta honetan jarraitu nahi nuke. Etxe bat diseinatzea oso garrantzitsua da, batez ere, etxebizitzen prezioa ikusita merezi du nork bere gustura egokitzea.

**ZERGA DIGITALA >** Espainiako Kultura eta Industria Ministerioak Informazio Legeari aldaketak egin eta zergapean ez zeuden zenbaiti euskarriri zerga ipini die: kanpoko diskoei, MP3 eta MP4, sakelako telefono eta agenda digitalei.

# Kanon digitalaren zitalkeriaren harira

Espainiako Parlamentuak kanon digitalaren legea onartu du, SGAEk proposatuta. Gaizki sentitu naiz gehiegikeria horrekin.

Hemendik aurrera, CD bat, DVD bat, pendrive bat edo horrelako aparailu bat erosten dudan bakoitzean, zerga bat ordaindu beharko dut, kanon bat, "badaezpadan kopiarik-edo egiten badut". Hori oso logika makurrean oinarritzen da:



**Joxe Aranzabal** > Irakaslea

**"Ez digute esaten larregi kobratzen digutela disko edo film batengatik, baina horrela da"**

**LAPURRAK OMEN GARA**

Lehenengo eta behin, pentsarazi nahi digute lapurrak garela musika, bideoak edo bestelako informazioa kopiatzen dugunean guk erabiltzeko.

Zinera goazenean edo DVD bat alokatzen dugunean film bat ikusteko, iragarki bat erakusten digute, Espainiako gobernuarena, eta hor esaten digute filmak edo musika kopiatzea lapurreta egitea dela.

Mezu horiek bidaltzen dizkigutenek inoiz ez digute esaten larregiko dirua kobratzen digutela disko batengatik edo film batengatik, baina horrela da.

Teknologia berriek argi erakutsi dute gaur egun film bat DVD batean kopiatzea edo abesti batzuk CD batean kopiatzea oso merkea dela, eta, beraz, ez dagoela zertan kobratu kobratzen dizkiguten kopuru handiak.

Denok dakigu disko eta film horiekin sekulako margenak dituztela, larregizkoak.

Horregatik, jende askok, milioika pertsonak, uste dugu hori lapurreta bat dela, legeak babestutako lapurreta bat.

**BERDIN ORDAINDU BEHAR DUGU**

Kopiak egin edo ez egin, berdin ordaindu beharko dugu. Behin erruduntasun kulpa sartu digutenean, esaten digute: "seguru asko, erabiliko dituzunez aparailu hauek legez kanpoko kopiak egiteko, guk, badaezpada, zerga bat kobratuko dizugu bekatua egin aurretik".

Hori da logika. Bush presidente amerikarrak erabili zuen logika berbera Irak inbaditzeko. Hori aberrazio hutsa da.

Zenbait kasutan, zoritxarreko kanon horrek garestituko du produktua %20, baina beste zenbait kasutan baita %40 ere.

**EZ DIGUTE UTZIKO KOPIAK EGITEN**

Baina hor ez da bukatzen kanon digitalaren logika makurra. Izan ere, zerga bat kobratu ondoren susmagarriak izateagatik, gero ez digute kopiarik egiten utziko, segituko dutelako diskoak eta DVDak saltzen kopien kontrako babesarekin.




PROTESTA *Todos contra el canon* plataformak egindako ekimen bat. GOIENKARIA

## teknologia berriak

> SOINUA

### Abesti gogokoenak iPod edo iPhone aparailutik etxeko edo autoko irratira eramateko osagarria

Soinu osagarri erabilgarria iPod edo iPhone duenarendako. Horren bidez, airetik transmititu ahal izango dira aurrez diskoetan artxibatutako abestiak, ondoren autoan edo etxeko irratian entzuteko.

LCD pantailan aparailuaren egoera azalduko da abian denean. Bestalde, bi botoiren bidez frekuentziak molda daitezke, eta soinua hobetu. Interneten dago salgai.



FM transmisorea Internet bidez eros daiteke.

> ORDENAGAILUAK

### Teklatuen eta saguen moda pasatu egingo da bost urte barru, Bill Gates-en esanetan

Microsoft-eko presidente Bill Gates-ek dio ordenagailuetako teklatuak eta saguak ez direla modan egongo bost urte barru. Horien ordez, ukimenaren, ikusmenaren eta ahotsaren bidez emango dizkiogu aginduak ordenagailuari.

Horren adierazgarri da Microsoft etxearen Surface ordenagailua. Mahai itxurako aparailu horrek aukera ematen du objektuak pantailan mugitzeko ukitu hutsarekin.



Surface konputagailuak mahai baten itxura du.

> MEMORIA

### Corsair etxeak 32 GB-ko memoria duten bi pendrive aurkeztuko ditu CES erakustazokan

RAM memoria fabrikatzaile nagusienetarikoa den Corsair etxeak 32 GB-ko bi pendrive USB berri aurkeztuko ditu CES teknologia erakustazokan. Flash Voyager izenekoa bidaiariendako da aproposa, eskaintzen dituen segurtasun aukerengatik; eta Flash Survivor delakoak ura sartzea eragozteko aluminiozko xafla bat du. Gainontzean, ez dute ezberdintasun handirik.




Flash Voyager eta Flash Survivor dira pendriveak.


Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko blog komertzialak

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- Emaitza onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

**Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:**
**www.goiena.net/blogak·**
**azabarte@goiena.com·**
**943 76 92 70**

**www.goiena.net/blogak**

/aebpn
/aiastui
/arantxa
/aretxargi
/argi-plastik
/arregi
/atai
/azkarate
/bastida
/briz-aseguruak
/BZ-sistemas
/bolusukaldeak
/denetik
/dragon-oriental
/dukiena
/ego
/eguzkigraf
/ekilore
/ekin
/elejalde
/ezkutuorly
/galgorri
/gallastegi
/ganesha
/garaia
/gertu
/gorkataxi
/gorla
/gurea
/guztizeder
/hamaikataberna
/itxaseder
/irudisport
/ixaun
/izeder
/jrcacing
/lamaino-etxeberri
/lorelan
/korozabaleta
/kizkur
/markiegi
/maulanda
/mayte
/merkeopari
/multiopticas
/ohiak
/ogizun
/okipark
/optico
/otzeta
/pando
/perfipar
/puerta-ingles
/richimaier
/tabernaberri
/udalatx
/udalaitz
/urdeki
/ugartearotza
/urbieta
/urko
/vitoria
/zainduz
/ziripot

**Eta baita ere:**

**www.aizue.com**
**www.amgautoak.com**
**www.baster-aldejatetxea.com**
**www.ehmff.com**
**www.gelatzu.com**
**www.goikobenta.com**
**www.haurtxoa.com**
**www.kizkur.com**
**www.klorofila.com**
**www.landaluze.com**
**www.lilura.com**
**www.toldoslete.com**
**www.uxarte.net**
**www.biark.net**




Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

## berriak

> HARMAILATIK

### Bergara eta Ford Mugarri lehian, 'Harmailatik' saioan

Xabier Urtzelai *Harmailatik* saioko aurkezlearen eskutik, datorren astelehenean Euskadiko eskubaloi txapelketako derbia ikusteko aukera izango duzue. Partidua Bergarako Labegaraietako kiroldegian jokatuko da, 18:30ean, bihar. Errebantxarako gogoz joango dira bergararrak; izan ere, Arrasateko partiduan galdu egin zuten. Horren guztiaren gaineko xehetasunak, astelehenean, *Harmailatik*-en.

> ERREPORTAJEA

### 'Udazkeneko loreak' izeneko erreportaje sorta GOITBn

ETBk ekoizten duen *Udazkeneko loreak* erreportaje sorta Goiena Telebistan eskaintzen hasiko dira hemendik aurrera. Oraingo asteko astelehenean hasi dira erreportajeak eskaintzen, eta hamabostean behin ikusi ahal izango da, astelehenetan.

*Udazkeneko loreak* saioak onddoak, entsaladetarako belarrak eta udazken garaian hazten diren beste hainbat belar ditu oinarri.

> ARRASATE IRRATIA

### Inauteriei begira ipiniko da irratia datorren astean

Aurten Aratusteak bestetan baino lehenago izango dira: otsailaren 2an. Jakin badakigu asko eta asko aspaldi hasita daudela jai hori prestatzen eta beste asko ere laster hasiko direla. Horrez gainera, aurten, modu berezian landu gura ditu Aratusteak arrasatear talde batek.

Beraz, Arrasate Irratian ere lekua egingo diete horrenbeste jende erakartzen dituen jai horiei.

> ARRASATE IRRATIA

### Opariak zozkatzen jarraituko dute, urte osoan

Aquariumerako sarrerak agortu arren, bestelako opari ugari dituzte irratian entzuleen artean zozkatzeko. Datorren astean, musika eta jolasak oparituko dituzte. Musikari dagokionez, Aby-kem taldearen azkeneko diskoa zozketatuko dute. Eta jolasei dagokienez, berriz, *Salamalekum Euskal Herrira* izeneko jolasa zozketatuko dute. Parte hartzeko 943 25 05 05 telefonora edo *irratia@goiena.com* helbidera bidali behar dira mezuak.

**'ILUNPEAN'** > EGUBAKOITZA, 22:15

# Alex Sardui, Eskixu taldeko abeslaria izandakoa, GOITBn

Alex Sardui guztiontzat da ezaguna, Eskixu taldean egindako lanagatik

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Gernikarra da Alex Sardui, eta guztiok ezagutzen dugun abeslari horietakoa gainera, Eskixu taldeko abeslari moduan egindako lanagatik. Rocka folk doinuekin uztartzeko gai izan zen. Eskixu talde bizkaitarrak, gainera, hitzak bizkaitarrez egiten zituen. Taldean ibili zen denborak egin zuen ospetsu Sardui, eta, nola ez, baita taula gainean egiten zituen mugimendu bereziek ere. Geldialdia egin ostean, Gatibu taldearekin itzuli da Sardui taula gainera eta, horretaz guztiaz gain, gaur egun ETBko *Bi errepidean* saioa aurkezten dihardu.



**ALEX SARDUI** Gatibu taldean dihardu gaur egun. IKER BARANDIARAN

**'ERREPORTAJEA'** > ASTELEHENEAN 21:47

# Datorren astelehenetik aurrera astero eskainiko ditu GOITBk erreportajeak

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Orain artean Julen Iriondok ekoiztutako erreportajeak bi astean behin eskaintzen baziren, datorren astetik aurrera astero eskainiko dira erreportajeak Goiena Telebistan. Hala, datorren astelehenean, hilaren 14an, eskainiko dute oraingo urteko lehen erreportajea, 21:47an.

Oraingoan, 40 urte atzera egin eta Vasco-Navarro trenaren nondik norakoak azalduko ditu Iriondok. Tren horrek duela 40 urteko abenduaren 31n egin zuen azken bidaia. Gaur egun, nostalgia puntu batekin atzera begiratu eta trenarekin gogoratzen gara, baina askok eta askok orain gazte direlako ez dute jakingo trenak zer-nolako itxura zuen, zein ibilbide egiten zuen, edota zein abiaduratan ibiltzen zen. Trenaren gainean gehiago jakiteko asmoz, Julen Iriondo Azpeitiko *Museo Vasco del Ferrocarril* delako erakusketan izan da, bertako zuzendari Juanjo Olaizolarekin.

Hori guztia eta gehiago ikusteko aukera datorren astelehenean, 21:47an, Goiena Telebistan.

## telebegi

**Edu Mendibil**

### Izerditan blai famaren bila

Mutikotan ikusten genuen *Fama* telesaileko irakasle hark zera esaten zien dantza akademiako bere ikasleei: "Famak kostu handia du, eta hemen izerdi egitea zer den ikasiko duzue". *Revival* sasoi honetan, 25 urte geroago, *Fama ¡A bailar!* lehiaketa iritsi zaigu (Cuatro).

Fama (laburra bada ere) lortzea merkeagoa da gaur; ikusi besterik ez dago *reality* eta bestelako lehiaketetan ateratzeko gertu dagoen jende mordoa. Pagotxa ona kateendako; ordu dezente betetzen dituzte *casting*-ekin. *Fama*-n 20 gazte ari dira lehian astelehenetik. Paula Vazquezek aurkeztuta, Victor Ullate (junior) da akademiako zuzendaria. Berarekin batera, Rafa funky irakaslea, Marbelys liraina (lirikoarena), Sergio (street dance) eta Lola ikasketa burua (eratsua ematen du, baina dantzan hasi eta aho zabalik utzi gintuen martitzenean). Bikoteka banatuta, hasi dira lehiakideen negarrak eta sufrimenduak, betiko moduan. *Feeling*-a da kontua eta Lorena eta Marcos hor ari dira, hori lortu nahian: "*Rollo happyago* bat lantzen saiatu gara...". Rafak, berriz, zera bota zion Susana potolotxoari : "*Rollito* onarekin bi kilo kenduko ditugu...". Ez da errezeta txarra Gabonen osterako.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
*Ilunpean* saioan, Exkixu taldeko Alex Sardui; musika kontuak, *Kantaka* saioan; hirugarren adinekoen gainekoak (dieta kontuak, besteak beste) *Zaharrak berri* saioan, eta beste.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik eguaztenera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Teknoberriak
Igo Euriborrera!
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearen errepasoa
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko:
943 25 05 05 (*irratia@goiena.com*)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## GOITBko programazioa

**Egubakoitza, 11**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Kantari. **14:15**Animalia. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Berbaire. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Musikantoi. **16:15** Ur eta lur. **16:45** Albisteak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ilunpean. **18:15**Erreportajea. **18:45**Albisteak. **19:15**Ikusmira. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Erreportajea. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Gertutik. **22:15**Ilunpean. **22:45**Berriak. **23:15**Musikantoi. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Klip 28. **00:15**Emisio amaiera.

**Zapatua, 12**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak: Horry, Calimero eta Trikitraka trikitron. **11:00** Ikusmira. **11:30**Ikusten. **12:00** Astekoak. **12:15**Klip. **12:30** Gertutik **13:00** Eltze beroa **13:30** Erreportajea. **14:00**Berbaire. **15:00** Kantari. **17:00** Marrazki bizidunak. **19:00**Udazken kolore. **19:30**Klip@. **20:00**Ur eta lur. **20:30**Animalia. **21:00**Berbaire. . **22:00**Udazken kolore . **22:30**Ilunpean. **23:00**Musikantoi. **23:30**Jazmina. **00:00** Emisio amaiera.

**Domeka, 13**
**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron. **11:00**Kantari. **12:00**Ur eta lur. **12:30**Berbaire. **13:00**Ikusten. **13:30**Jazmina. **14:00**Animalia . **14:30**Eltze beroa. **15:00**Musikantoi. **15:30**Udazken kolore. **14:00**Ilunpean. **16:30**Marrazki bizidunak. **19:00**Eltze beroa. **20:00** Ur eta lur **20:30** Erreportajea. **21:00** Musikantoi. **21:30**Animalia. **22:00** Astekoak. **22:00** Gertutik. **23:00** Teknopolis. **23:30**Ilunpean. **00:00** Musikantoi. **00:30**Emisio amaiera

**Astelehena, 14**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Erreportajea-Ttipi TTapa. **14:15**Eltze beroa. **14:45**Berriak. **15:15**Ilunpean **15:45** Gaurkoak. **15:47** Berbaire. **16:15**Berbaire. **16:45** Berriak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Hitz bitan. 1**8:15**Ikusten. **18:45**Berriak. **19:15** Gertutik. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Harmaillatik. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Erreportajea. **22:15** Kirolari. **22:45**Berriak. **23:15**Harmaillatik. **22:45**Gaurkoak. **23:30**28 Klipa. **00:15**Emisio amaiera.

**Martitzena, 15**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Horry. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Erreportajea. **14:15** Harmaillatik. **14:45**Berriak. **15:15**Gertutik. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Kirolari. **16:15**Eltze beroa **16:45**Berriak. **17:15** Horry. **17:45**Gaurkoak. **17:47** 28 Klipa . **18:15**Musikantoi. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazki bizidunak: Horry. **19:45**Berriak. **20:15** Kantari **20:45** Berriak. **21:15**Teknopolis. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Berbaire **22:15**Animaliak. **22:45**Berriak. **23:15**Ikusmira. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Erreportajea. **00:15**Emisio amaiera.

**Eguaztena, 16**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Kantari. **14:15**Eltze berioa. **14:45**Berriak. **15:15**Berbaire. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Animaliak. **16:15** Teknopolis. **16:45** Berriak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Gertutik. 1**8:15**Harmailatik. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazki bizidunak. **19:45**Berriak. **20:15** Zaharrak berri. . **20:45** Berriak. **21:15** Ikusten. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Zu kazetari. **22:15**Ur eta lur. **22:45**Berriak. **23:15** Teknopolis. **22:45**Gaurkoak. **23:30** Jazmina. **00:15**Emisio amaiera

**Eguena, 17**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Zaharrak berri. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Marazki bizidunak. **14:15**Zu kazetari. **14:45**Berriak. **15:15**Berbaire. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Animalia. **16:17**Teknopolis. **16:45** Berriak. **17:15** Horry. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Gertutik. 1**8:15**Harmailatik. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazkiak. **19:45**Berriak. **20:15** Kantari. **20:45** Berriak. **21:15**Erreportajea. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Berbaire. **22:15**Musikantoi. **22:45**Berriak. **23:15**Ikusten. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Ilunpean. **00:15**Emisio amaiera

# Debagoieneko **GREMIOAK**



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

## ELEKTRIZITATEA

**AITZORROTZ ELEKTRONIKA**
Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

**ARANZABAL KOOP. E.**
Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

**ARETXARGI**
Aretxabaleta
• Instalazio elektrikoak
Belorrieta 15 behea
T: 943 532 628 / 645 734 032
F: 943 532 629
aretxargi@euskalnet.net

**BELLIDO ELEKTRIZITATEA**
Oñati
• Erreformak orokorrean
• Marka guztietako etxetresna elektronikoen konponketa
Kale zaharra 60 - 3 erd.
T: 943 78 23 10 / 615 74 94 94

**RELE**
Eskoriatza
• Instalazio elektrikoak
Santa Ana 12 eta 17
T: 943 71 41 65 / 943 71 41 12
F: 943 71 41 65 / 943 71 41 12

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

**FRIXI ERAIKUNTZAK**
Eskoriatza
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

## IGELTSEROAK

**G. IZCUE IRURZUN**
Arrasate
• Igeltserotza orokorra
• Etxeen berrikuntza
• Sukaldeak, komunak…
Munar 6
T: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## ITURGINTZA

**ARETXABALETA ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Sukalderako eta bainugelarako altzariak
Santa Kurtz 24, behea
T: 943 79 17 53
F: 943 79 17 53

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

**IMANOL ITURGINTZA**
Arrasate
• Iturgintza
• Berogailua eta gasa
• Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

**J.J. IRURE ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Ura
• Gasa
• Kalefakzioa
Mitarte 15
T: 943 793 187
F: 943 793 187

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

**TXORROTA**
Arrasate
• Berogailua eta gasa
• Galdarak aldatzea
• Obra integralak
• Zaharberritzeak
Bolibar doktorea 5, behea C
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
F: 943 77 17 13

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

**VALES ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

## KONPONKETAK

**MULTIARREGLOS**
Arrasate
• Konponketak: Altzariak, zoruak, zokaloak, entxufeak...
• Instalazioak; Geletan antenak, telefoneonkableak...
• Jartzeak: Koadroak, lanparak gordiank...
• Ahokadurak: Telebistak, bideoak, musika ekipoak...
Tel: 699 60 97 08

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIC**
Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

**ION LEIHOAK**
Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

**YOSU THERMIK**
Arrasate
• Lehio eta ate isolatzaileak
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko lehioak
• Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)
Kataide poligonoa 4 Pab.
Tel: 943 77 01 57
F: 943 77 03 21

**LEIHATEK**
Arrasate
• Leiho eta ate isolatzaileak
• Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
• Kontraleiho errustikoak eta mallorkinak
• Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
Okendo 1 - behea
T: 943 79 69 91
ventanasleihatek@hotmail.com

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.

# Urtarrilak 11-17

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12

### Erakusketa



ARRASATE

**> 'Txotxongiloaren artea' delako erakusketa dago Arrasateko kultura etxean**

Corrado Masacci italiarrak sortu eta batutako lanen erakusketa, *Txotxongiloaren artea,* dago Kulturaten. Txotxongiloaren artegintzaren historia errepasa daiteke. Zabalik dago arratsaldero (17:30-20:30), astelehenetan izan ezik.

### Ikuskizuna



ARETXABALETA, BERGARA

**> 'Eskerrik asko!' ikuskizuna egingo dute Pirritx eta Porrotx pailazoek**

Pirritx eta Porrotx pailazoek eta Mari Mototsek *Eskerrik asko!* ikuskizuna egingo dute hilaren 26an Aretxabaletan –sarrerak, kultura etxean, hilaren 21an–, eta otsailaren 2an Bergaran –sarrerak, pilotalekuan, hilaren 22tik 24ra.

### Deia



ANTZUOLA

**> Aratusteetarako dantzak entseatuko dituzte martitzenetan**

Aratusteetan, otsailaren 3an, euskal dantzak entseatzeko martitzenetan batuko dira, eskolan, 20:00etan. Mutilek sorgin dantza egingo dute eta neskek, makil dantza bat. Entseguok nesken dantzarako dira.

## Antzerkia

OÑATI

**> 'Los Pagagnini' antzezlan musikala, Yllanaren eskutik**

Yllana taldeak, Ara Malikian biolin-jolearekin, Los Pagagnini antzezlan musikala egingo du. Sarrerak 10 eurotan salduko dituzte kultura etxean; goizez, 10:00etatik 13:00etara, bulegoan salduko dituzte, eta arratsaldez, 16:30etik 20:30era, berriz, harreran.

Hilaren 20an, domeka, Santa Ana antzokian, 19:30ean.

ARETXABALETA

**> Helduendako ipuin kontakizun saioa egongo da**

Antton Irustak helduei zuzendutako ipuin kontakizuna egingo du, Loramendi euskara elkarteak antolatuta. Sarrera doan da.

Egubakoitzean, hilak 18, Gurea tabernan, 19:00etan.

## Lehiaketak

ARETXABALETA

**> Aratusteak iragartzeko kartela aukeratzeko sariketa**

Aratusteak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du Aretxabaletako Udal Kultura Sailak. Edozeinek parte har dezake, teknika librean egindako kartelekin. Neurria 50x70 cm izango da. Derrigorrezko testua hau da: *Aratusteak Aretxabaleta 2008.* Hain zuzen, 300 euroko saria emango dute.

Kartelak urtarrilaren 18a baino lehen eraman behar dira kultura etxera edo udaletxera.

BERGARA

**> Poxpolo, Mokolo eta Konpainia pailazoen emanaldia**

Poxpolo, Mokolo eta Konpainia pailazo taldeak emanaldia egingo du. Kutxak lagundu du saioa antolatzen. Sarrera doan da.

Etzi, domeka, pilotalekuan, 18:00etan.

## Erakusketak

OÑATI

**> Luis Laskurain bergarararren margo erakusketa**

Luis Laskurain margolari bergarararrak erakusketa dauka kultura etxeko erakusketa aretoan. Urtarrilaren 20ra bitartean egongo da zabalik.

Bisita ordutegia hauxe da: egunero, 18:30etik 20:30era.

ELGETA

**> Gemma Silbanen margolan erakusketa Espaloian**

Gemma Silban margolari zarauztarrak margolanak ipini ditu ikusgai Espaloian.

Urtarril osoan dago zabalik.

ARAMAIO

**> Herritarrek egindako argazkiak erakusketan jarri dituzte**

Herrian argazkiak ateratzeko zaletasuna duten hainbat herritarrek egindako argazkiak erakusketan jarri dituzte. 24 argazkik osatzen dute erakusketa. Sastiñan ikus daiteke.

Bihar, zapatua, da bisitatzeko azken eguna.

Ordutegia: gaur, egubakoitza, 18:00-19:00, eta bihar, zapatua, 12:30-13:30 eta 18:30-19:30.

BERGARA

**> Taila eta zeramika erakusketa ikusteko azken egunak**

Taila eta zeramika erakusketa dago Aroztegi aretoan. Etzi, domeka, da hura ikusteko azken eguna.

Ordutegia: egubakoitza, 18:00-20:30; zapatua, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta domeka, 12:00-14:00.

BERGARA

**> 'Hondakinak, amesgaiztorik ez!' delako erakusketa dago**

*Hondakinak, amesgaiztorik ez!* delako erakusketa bisita daiteke kultura etxean urtarrilaren 21era arte.

Ordutegia: astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 21:00etara bitartean.

## Musika

ARRASATE

**> Censurados eta Scam taldeek joko dute 3.60 aretoan**

Censurados taldeak kontzertua egingo du 3.60 aretoan. Rock-punk-metal estiloko talde hori bigarren diskoa prestatzen dabil, eta otsailean argitaratzeko asmoa daukate. Aretxabaletako Scam taldeak ere joko du.

Gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan, 23:00etan.

BERGARA

**> Ziripot tabernan disko-jartzaileen saioak izango dira**

Oraingo aste bukaerarako, honako saioak antolatu dituzte: DJ Elektro K, gaur, egubakoitza; eta El Txef A vs. The Gonzo, bihar, zapatua.

Emanaldiak 23:00etan hasiko dira.

ARRASATE

**> The Hot Dogs! taldeak kontzertua egingo du bihar**

The Hot Dogs! taldeak kontzertua egingo du 3.60 aretoan. Cool Circus taldeak ere joko du. Sarrera 7 euro da.

Bihar, zapatua, 23:00etan.

ARRASATE

**> Mikel Urdangarin kantautoreak kontzertua egingo du**

Mikel Urdangarin musikariak emanaldia egingo du bihar, zapatua. Sarrerak erosteko aukera dago Servikutxa sarean, *www.kutxa.net* webgunean edo 943 00 12 00 telefonora deituta. 10 euro da.

Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 20:00etan.

ARRASATE

**> Disko-jartzaile baten emanaldia egongo da 3.60 aretoan**

Alkate (Klorofila Grow) disko-jartzaileak musika jarriko du 3.60 aretoan.

Bihar, zapatua, 04:00etan.

BERGARA

**> Udal txistulari bandako kideek kalejira egingo dute**

Udal txistulari bandaren kalejira egongo da etzi, domeka, Bergarako kaleetan.

Kalejira 09:45ean hasiko da.

BERGARA

**> Bandaren kontzertua egongo da datorren domekan**

Bergarako musika bandak kontzertua egingo du datorren domekan, hilak 20.

Pilotalekuan izango da, 12:30ean.

PROPOSAMENA

ELGETA

### > 'Gu ta gutarrak' bertso ikuskizuna egingo dute

*Gu ta gutarrak* delako musika eta bertso ikuskizunaz gozatzeko aukera egongo da Elgetako Espaloia antzokian. Igor Elortzak, Unai Iturriagak, Josu Zabalak, Aitor Rubiok eta *Xanpe*-k parte hartuko dute.

Proiektu horren helburua euskal herriei, hitzari, gauari, maitasunari, politikari… bertsoak jartzea zen, Josu Zabalak herri musikatik abiatuta egin dituen doinuekin.

Urtarrilaren 18an, egubakoitza, Espaloia antzokian, 22:30ean.



## Bestelakoak

DEBAGOIENA

**> 'Neguko gida' kaleratu dute udal liburutegiek**

Udal liburutegiek eta Mankomunitateak *Neguko gida* prestatu dute. Han, ia 90 dokumentu gomendatzen dituzte, liburu, ipuin eta ikus-entzunezko artean.

Debagoieneko liburutegietan dago gida hartzeko aukera.

ARETXABALETA

**> Ardo-dastatze ikastaroa antolatu du Loramendik**

Ardo-dastatze ikastaroa antolatu du Loramendik otsailaren 8, 15, 22 eta 29rako, egubakoitza, 18:00-20:00, eta izenematea zabalik dago otsailaren 1era arte.

Martxoan, upeltegi batera joango dira.

## nire aukera



Gerardo Eskartza
Kirol teknikaria
Oñati

## "Kiroletan nabil asteburuan ere"

Zapatu goizean, semea eskola kirolean dabilenez, bere partiduetara joaten naiz; entrenatzaile lanak ere egiten ditut. Bi astean behin ere, areto-futboleko kadete mailako partidu baten epaile izatea egokitzen zait. Zapatu arratalsean, batzuetan Reala ikustera joaten naiz; beste batzuetan, areto-futbola ikusten dut Oñatin, eta, beterano talde baten jokatzen dudanez, horretako partiduak ere izaten ditut.

Domeketan, paseatzera irteten naiz batzuetan emaztearekin; bere gurasoengana ere joaten gara bazkaltzera eta arratsalde pasa egitera.

**Ez zara aspertzen asteburuan hainbeste kirolekin?**
Egia esan, batzuetan, partidu gehiegi izaten ditut, bai; gurako nuke gutxiago izan. Denboraldia bukatzen denean, libreago ibiltzen naiz. Orduan, mendira joateko-eta aprobetxatzen dut.

**Beste ze zaletasun dituzu?**
Irakurtzea asko gustatzen zait. Orain, Matilde Asensi idazlearen liburuak irakurtzen nabil. Ken Follett-en azkena ere irakurriko dut. Nobela historikoa gustuko dut. Bazkalostean, gauean... irakurtzen dut gehien.

**Realarekin sufritzea egokitu zaizu azkenaldian, ezta?**
Iaz egin nintzen bazkide, eta, bai, une txar batzuk bizi izatea egokitu zait; aurten, igotzeko esperantzarekin, behintzat, bagabiltza...

**Ze mendi duzu gustukoen?**
Orain bi urte, Donejakue bidea egin nuen, eta, prestatzekoedo, mendira joaten nintzen asko. Aizkorri, Urbia... gustatzen zaizkit.

# Zinema

### ARAMAIO
**KULTURA ETXEA**

**Karramarro uhartea**
Domeka: 17:00.

### ARRASATE
**AMAIA ANTZOKIA**

**Michael Clayton**
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Encantada: la historia de Giselle**
Domeka: 17:00.

**Persepolis**
Eguena: 20:30.

### BERGARA
**AGORROSIN**

**La vida de los otros**
Zapatua eta domeka: 16:30 eta 19:30.

**GAZTETXEA**

**Leolo**
Domeka: 18:00.

### ELGETA
**ESPALOIA ANTZOKIA**

**Asterix eta hamabi probak**
Domeka: 17:30.

**Infiltrados**
Eguaztena: 21:30.

### OÑATI
**KULTURA ETXEA**

**Conversaciones con mi jardinero**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Encantada**
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

**Tiempos de amor, juventud y libertad**
Eguena: 20:00.

### EIBAR
**UNZAGA**

**Alien vs. Predator 2**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

### GASTEIZ
**GURIDI**

**American gangster**
16:30, 19:30, 22:30.

**La sombra del cazador**
16:30, 19:30, 22:30.

**Alvin y las ardillas**
16:30, 18:15.

**La búsqueda 2**
18:15, 22:30.

**Soy leyenda**
17:30, 20:00, 22:30.

**Deseo, peligro**
16:30, 19:20, 22:15.

**Alien vs. Predator 2**
16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

**Expiación**
17:00, 19:45, 22:30.

**FLORIDA-GURIDI**

**XXY**
17:30, 20:00, 22:30.

**Irina Palm**
17:30, 22:30.

**Tehilim**
20:00.

**Interview**
17:30, 20:00, 22:30.

**This is England**
17:30, 20:00, 22:30.

**Viaje a Darjeeling**
18:00, 20:15, 22:30.

**El prado de las estrellas**
18:00, 20:15, 22:30.

**Desacuerdo perfecto**
18:00, 20:15, 22:30.

**YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

**Alien vs. Predator 2**
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

**Desacuerdo perfecto**
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

**La sombra del cazador**
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**American gangster**
15:45, 18:45, 20:15, 22:00, 23:45.

**Halloween**
20:15, 22:30, 00:45.

**Mimzy, más allá de la imaginación**
12:15, 16:15, 18:15.

**Viaje a Darjeeling**
20:05, 22:05, 00:05.

**La búsqueda: el diario secreto**
18:30, 21:30, 00:00.

**Soy leyenda**
12:15, 16:20, 18:20, 20:25, 22:35, 00:45.

**El método**
12:15, 15:55, 18:10.

**Match point**
12:15, 15:30, 17:45, 20:05, 22:25, 00:45.

**La brújula dorada**
12:15, 15:40, 17:50, 20:00.

**El arca de Noé**
12:15, 16:25, 18:25.

**Escuela de pringaos**
20:25, 22:25, 00:25.

**Rec**
18:45, 20:30, 22:15, 00:00.

**1.408**
12:15, 16:05, 18:05.

**Alvin y las ardillas**
12:15, 16:10, 18:10.

**Encantada**
12:15, 15:45, 17:45.

**El orfanato**
22:10, 00:15.

**Las 13 rosas**
19:45, 22:10, 00:35.

**Bee movie**
12:15, 15:50, 17:50.

**Promesas del este**
19:45, 21:45, 23:45.

**Donkey Xote**
12:15, 16:45.

**Tierra**
12:15.

**Mr. Magorium y su tienda mágica**
12:15, 16:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

**ÁBACO BOULEVARD**

**Alien vs. Predator 2**
16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

**Expiación**
17:00, 19:30, 22:15, 01:00.

**Halloween**
20:30, 22:45, 01:00.

**Mimzy, más allá de la imaginación**
16:05, 18:10.

**American gangster**
16:00, 19:00, 19:30, 22:00, 22:30, 01:00.

**No digas nada**
22:15.

**Soy leyenda**
16:10, 18:20, 20:30.

**El arca de Noé**
17:00.

**El espía**
20:25, 22:40, 01:00.

**La búsqueda 2**
16:30, 19:10, 22:10, 00:45.

**Alvin y las ardillas**
16:15, 18:15, 20:15.

**Mr. Magorium y su tienda mágica**
16:20, 18:25.

**1.408**
20:20, 22:30.

**La brújula dorada**
15:45, 18:05, 20:25, 22:45.

**Bee movie**
16:15, 18:20.

**Encantada: la historia de Giselle**
15:50, 18:05.

**El orfanato**
20:20, 22:25, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**1.408**
AEB, 2007. Zuzendaria: Mikael Hafstrom. Aktoreak: John Cusack, Samuel L. Jackson, Mary McCormack.
104 min. 18 urtetik gorakoendako.
Beldurrezko generoko idazle batek gertakizun paranormalen gaineko liburu batzuk idatzi ditu, eta orain, hotel baten gela madarikatu baten egonaldia egin nahi du, han gertatzen denaz gero idazteko.

**Alvin y las ardillas**
AEB, 2007. Zuzendaria: Tim Hill. Aktoreak: Jason Lee, David Cross.
90 min. Guztiendako.
Hiru katagorri bihurri dira protagonistak. Dave-ren etxean bizi izatera joatea erabakitzen dute, baina Dave konbentzitu beharko dute lehenengo...

**Deseo, peligro**
Txina eta AEB, 2007. Zuzendaria: Ang Lee. Aktoreak: Tony Leung, Tang Wei, Joan Chen.
157 min. 18 urtetik gorakoendako.
Txinatar unibertsitateko ikasle bat antzerki talde batekin parte hartzen hasten da.

**Bee movie**
AEB, 2007. Zuzendaria: Steve Hickner eta Simon J. Smith.
90 min. Guztiendako.
Erle batek ikasketak bukatu berri ditu, baina ilusioa galtzen du lanbide aukera bakarra duela jakiterakoan: eztia egitea, alegia.

**Interview**
AEB, 2006. Zuzendaria: Steve Buscemi. Aktoreak: Sienna Miller, Steve Buscemi, Michael Buscemi.
84 min. 13 urtetik gorakoendako.
Pierre Peders-ek biolentzia eta bortizkeria ondo ezagutzen ditu. Halako baten, Katya, telenobela bateko protagonista, elkarrizketatu beharko du, eta ideia ez zaio batere gustatzen...

**This is England**
Erresuma Batua, 2006. Zuzendaria: Shane Meadows. Aktoreak: Thomas Turgoose, Stephen Graham.
101 min. 13 urtetik gorakoendako.
Shaun-ek 12 urte ditu 1983. urtean. Gizonezko eredu berriak aurkitzen ditu kaskamotz talde batek taldeko kide moduan hartzen duenean.

**Viaje a Darjeeling**
AEB, 2007. Zuzendaria: Wes Anderson. Aktoreak: Owen Wilson, Adrien Brody, Jason Schwartzman.
91 min. 13 urtetik gorakoendako.
Aitaren heriotzak hiru anaia batzen ditu berriz ere. Trenez, bidaia espiritual bati ekingo diote, berriz ere garai bateko bateratasuna berreskuratu nahian.

**Un funeral de muerte**
AEB-Erresuma Batua, 2007. Zuzendaria: Frank Oz. Aktoreak: matthew MacFayden, Keeley Hawes, Andy Nyman.
90 min. 13 urtetik gorakoendako.
Familia ingeles baten burua hiltzerakoan, familiako beste kideak ados jarri beharko dira hileta antolatzeko.

**Mr. Magorium y su tienda mágica**
AEB, 2007. Zuzendaria: Zach Helm. Aktoreak: Dustin Hoffmann, Natalie Portman.
94 min. Guztiendako.
Mr. Magoriumen Jostailu Denda Magikoaren ugazabak erretiroa hartu nahi du, 243 urte dituelako...

**Rec**
Espainia, 2007. Zuzendaria: Paco Plaza eta Jaume Balaguero. Aktoreak: Manuela Velasco, Ferran Terraza.
85 min. 18 urtetik gorakoendako.
Kazetari bat eta kameralari bat etxalde batera joango dira gau batez, suhiltzaileekin, erreskate bat ikusteko. Baina gauzak uste ez bezala irtengo dira.

**Halloween**
AEB, 2007. Zuzendaria: Rob Zombie. Aktoreak: Malcolm McDowell, Brad Dourif, Tyler Mane.
109 min. 18 urtetik gorakoendako.
Haddonfield herrixkan, Halloween gau baten sarraskia eragin zuten gertakarien ondoren, Michael Myers ospitale psikiatriko batera eramaten dute.

**El arca de Noé**
Argentina, 2007. Zuzendaria: PJuan Buscarini.
88 min. Guztiendako.
Noe zaharrak, Jainkoak hala eskatuta, itsasontzi erraldoi bat egin du. Filmak han batzen diren animalien gorabeherak eta bizipenak kontatzen ditu bidaiak dirauen artean.




## American gangster ****

**Zuzendaria:** Ridley Scott.
**Aktoreak:** Denzel Washington, Russell Crowe.
AEB. 2005.
00 min. 18 urtetik gorakoendako.

*American Gangster*-en hasieran kontatzen zaigun istorioa errealitatean oinarrituta dagoela adierazten duen kartel bat agertzen da. Eta ideia hori filmaren motor bihurtzen da. Ridley Scott-en filma kronika bat da, nahiko modu eta egitura lineala jarraitzen duen kronika. Horrela, pausoz pauso, detaile eta datu guztiak kontuan izanda, istorioak ekintza eta pertsonaia ugari izan arren, modu ordenatuan eta ulergarrian heltzen zaigu. Filmak gangster eta polizia asko badu ere, bere egituran eta izaeran zerikusi handiagoa du *Zodiac* filmarekin Martin Scorseseren gangsterri buruz eginiko lanekin baino.

*American Gangster*-ek bi pertsonaia nagusi ditu: Denzel Washington, gangster arrunt bat izatetik, droga negozioari esker, gailurreraino heltzen den gizona dugu; eta Russell Crowen pertsonaia horren atzetik eta ustelkeriaren atzetik lanean buru-belarri ari den polizia da. Horrela, bi pertsonaien munduak ezagutuko ditugu: lehenengoaren negozioak eta familarekin dituen harremanak; eta bigarrenaren ikerketak eta emaztearekin dituen gatazkak.

Oso ondo ikusten da 70eko hamarkadako alderdi erdi ustela: alde batetik, gangsterrak eta euren arteko botere-norgehiagokak; eta beste aldetik, poliziaren barruan dauden azpijokoak. Argazki ilunak; girotze egokiak; aktoreen lana eta Scott-en narratzeko moduak oso film erakargarria ematen dute.

**Antonio Zabala**

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Harpidetza:** 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2008-01-11

# Ur ionizatua, garbitzeko

**ALEMANIA** Fernando Llanosek Internet bidez izan zuen garbitze sistema horren berri; Alemanian erosi zuen makina

**20 METRO** Leku garaietara heltzeko sistema aproposa da; pertika bitartez, 20 metroko altuerara heltzen da

**EKOLOGIKOA** Sistema horrek ez du inolako osagai kimikorik behar; ura besterik ez du erabiltzen

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Hiru urtez ibili da Fernando Llanos garbitze lanak egiten; lehen, baina, eskaileraren beharra izaten zuen leku garaietara iristeko. "Azkenaldian, segurtasun neurriak direla-eta, leku batzuetan ezin ditut eskailerak erabili. Hala, beste sistema baten beharra zegoela konturatu nintzen", adierazi digu Llanosek. Orain daukan sistemarekin, langileak lurretik lan egin dezake.

**UR IONIZATUA**

Garbitze sistema horren berri Internet bidez izan zuen Llanosek. Alemaniako enpresa bati eskatu zion makina eta iazko uztailean jaso zuen etxean. Gero, makina furgonetan jarri besterik ez zuen egin.

"Ur iturri bati lotuta egon daiteke furgoneta; edo, bestalde, furgonetan daukadan biltegia erabil dezaket. Biltegiak 500 litro ur gorde dezake", argitu digu. Makinak bost filtro ezberdin ditu; ionizazio sistema bidez, biltegiko ura garbitu egiten du makinak. Hala, ur ionizatua, guztiz gardena lortzen da; hau da, H2O purua. Gainera, sistema horrek ez du behar inolako osagai kimikorik. "Ur purua denez, zikintasun guztiak harrapatzen ditu. Ez dut xaboirik erabiltzen; eta lehortzeko ere ez da ezer berezirik egin behar", adierazi du Llanosek.

**150 METROKO KABLEA**

Leku garaietara iristeko, karbonozko zuntzez egindako bi pertika ditu Llanosek: bat 20 metrokoa eta bestea bederatzi metrokoa. Hala, fatxadak garbitzeko ez du inolako arazorik izaten.

"Edozein tokitara iristen naiz, ez daukat oztoporik; 150 metroko kablea daukat. Hortaz, furgoneta aparkatuta daukadan lekutik 150 metro ibil naiteke", esan digu Llanosek. Gero, pertikak batu eta furgonetan gordetzen ditu.

Gurean dagoen horrelako furgoneta mota bakarra da Fernando Llanosek duena: "Hori uste dut, behintzat", esan digu .



PERTIKA 20 metroko pertika dauka; muturrean ura botatzen duen eskuila dauka pertikak. A.E.

## ahobero

### "Herritarrek eta hiltzaileek eskubideak dituzte; baina baita Guardia Zibilak ere"

**Jose Bono** >
Defentsa ministro ohia

Konstituzioak bermatzen duen eskubidea al da atxilotuak jipoitzea? Gertatutakoaz gogoeta egin eta Guardia Zibilaren alde jartzeko eskatu die espainolei; Guardia Zibilaren alde jarriko dira, baina gogoetarik egin gabe.

## iturri onetik

### Bergarako Udalak Marcial Agirreri buruzko ikerlana argitaratuko du

Marcial Agirre eskultore bergararraren gaineko ikerlana argitaratzeko egile eskubideak erosi ditu Bergarako Udalak 6.000 euroren truke.

Ikerlana Mikel Lertxundi eta Larraitz Arretxea Donostiako Arte Historiako irakasleek egin dute. Bergarako Udalak ikerlana argitaratzeko egile eskubideak erosi ditu. Lana datorren urtean kalean izatea espero du Bergarako Udalak.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Egurra

Azken boladako jarrerak ikusita, ezinezkoa dirudi iazko udaberrian bizi izan genuen loraldi politikoa. Bozemaileak ez dira asko aldatu –dakiguneraino–, baina mezuak, erabat. Lehen itxaropenaren tokian egurra ari du orain, gogotik.

Iazkoa oraindik berri samar dugulako, badakigu bestelako jarrerak posible direla, oraingo hau ez dela betiko. Zenbaitek martxoaren 10ean jarri du inflexio-puntua, hauteskunde biharamunean, betiere Rajoy ez bada Espainiako presidente. Nik baditut nire zalantzak. Ez dut uste gauzak berehalakoan aldatuko direnik, zauriak irekitzen ari dira oraindik, eta elkarrenganako konfiantza apurtu egin da. Eta ikusteko dago Ibarretxeren ekimenak zein bide hartzen duen. Baina zerbait hobea etorriko da, ekarriko dugu.

## ai, ene!



### Ordenagailuz idatzi eta oinez ibiltzeko euskarria

Oraindik proiektua besterik ez den arren, *Lindo*-k oinez ibili eta idazteko aukera ematen du.

http://www.nopuedocreer.com/quelohayaninventado/category/oficina/







*Eraman dotoretasuna zure etxera*

gelatzu
Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51